

IRRINTZINA BAT MENDIAN

Semperen Lehen Garhait-Saria izan phersuak

AIREA : *Sor lekua utziz geroz.*

1

Gau eder batek ninduen hatzeman mendi gainetan ;
Iguskia aintzinean emeki etzan zitzaudan ;
Azken abereak etchera zoazin ene oinetan,
Bazterrak ainharrosiz beren joare-soinuederretan.

2

Lehen izarrak doidoia ziren orduan agertzen.
Harrabots guziak ere hasiak ziren ezitzen.
Gaua, hura ere, ari zen kapa beltzaren hedatzen,
Bizkitartean etche batzu oraino ikhus zitezken.

3

Hor, sumatzen dut artzain bat mendi artetariz kantuz
Zakizkan eskualdun aire zaharrak charamelatuz,
Botz hura bakharrik orduan mendi gain hetan adituz
Beha nindagon lorietan eta burua zutituz.

4

Bat-batean, kantu orde, oihu latz bat dut aditzen
Bere samintasunean nauelarik harritzen ;
Mendi mazelatan harri-kotor zaharrak zituen yotzen,
Eta lekhu basa hetako, oiharzunak irartzarten.

5

Oihu gora, garratza zen nola emaztearena,
Azkarra eta borthitza nola gizonkiarena,
Artetarik iduri zuen basa ihizi batena,
Zertan edo hartan hargatik oraino yendearena.

6

Luzaz zuen inharrosi mendi hetako bortua,
Iduri zuen hastean norbait zela minhartua,
Irri lotsagarri batean zen aldiz akabatua,
Bide-chendran nindagolarik oraino ni baratua.

7

Ibañetan ere, lehen, *irrintzina* aditu zen
Arrolani zitziola odol guzia gatzatzen.
Alferretan ditu mendiak deihadarraz dardaratzen
Eskualdunen irrintzineak du ichiltzera bortchatzen.

8

Gogoetan nintzalarik, osoki zen ilhundua.
Zerua zuten izarrek mila itzez izatua,
Bortuan aldiz irrintzina aspaldi zen ichildua,
Haranean lanhoek zuten hasia beren gudua.

9

Azken aldikotz behatu nituen bortu ilhunak :
Iduriz, orduan zautan ihardesten oiharzunak :
— « Mendian entzunen direno hoin ederki irrintzinak
« Ez beldurrik izan galtzera doazila Eskualdunak !

BARBIER, de Saint-Jean-Pied-de-Port.

Bigarren Garhait Saria

IRRINTZINA BAT MENDIAN

Semperen Lehen Garhait-Saria izan phersuak

AIREA : *Sor lekua utziz geroz.*

1

Gau eder batek ninduen hatzeman mendi gainetan ;
Iguskia aintzinean emeki etzan zitzautan ;
Azken abereak etchera zoazin ene oinetan,
Batzerrak ainharrosiz beren joare-soinuederretan.

2

Lehen izarrak doidoia ziren orduan agertzen.
Harrabots guziak ere hasiak ziren eztitzen.
Gaua, hura ere, ari zen kapa beltzaren hedatzen,
Bizkitartean etche batzu oraino ikhus zitezken.

3

Hor, sumatzen dut artzain bat mendi artetariz kantuz
Zakizkan eskualdun aire zaharrak charamelatuz,
Botz hura bakharrik orduan mendi gain hetan adituz
Beha nindagon lorietan eta burua zutituz.

4

Bat-batean, kantu orde, oihu latz bat dut aditzen
Bere samintasunean nauelarik harritzen ;
Mendi mazelatan harri-kotor zaharrak zituen yotzen,
Eta lekhu basa hetako, oiharzunak irartzartzen.

5

Oihu gora, garratza zen nola emaztearena,
Azkarra eta borthitza nola gizonkiarena,
Artetarik iduri zuen basa ihizi batena,
Zertan edo hartan hartatik oraino yendearena.

6

Luzaz zuen inharrosi mendi hetako bortua,
Iduri zuen hastean norbait zela minhartua,
Irri lotsagarri batean zen aldiz akabatua,
Bide-chendran nindagolarik oraino ni baratua.

7

Ibañetan ere, lehen, *irrintzina* aditu zen
Arrolani zitzaiola odol guzia gatzatzen.
Alferretan ditu mendiak deihadarras dardaratzen
Eskualdunen irrintzineak du ichiltzera bortchatzen.

8

Gogoetan nintzalarik, osoki zen ilhundua.
Zerua zuten izarrek mila itzez izatua,
Bortuan aldiz irrintzina aspaldi zen ichildua,
Haranean lanhoek zuten hasia beren gudua.

9

Azken aldikotz behatu nituen bortu ilhunak :
Iduriz, orduan zautan ihardesten oiharzunak :
— « Mendian entzunen direno hoin ederki irrintzinak
« Ez beldurrik izan galtzera doazila Eskualdunak !

BARBIER, de Saint-Jean-Pjed-de-Port.

Bigarren Garhait Saria

+

1900 garrenean

AZKAINGO bestetan garaitsaria (1)

EREMAN DUTEN NEURTHITZAK

IRATIKO ARTZAINA

AIREA :

Orai noha cantatzerat,
Bertsu bien emaiterat..

Ga-ra-zi bor-tu gai-ne-an, I-ra-ti-ko oi-ha-ne-an,

Artzain bi-zi naiz u-da de-ne-an, Fa-go-a-ren ge-ri-ze-an,

Ga-ra-zi bor-tu gai-ne-an, I-ra-ti-ko oi-ha-ne-an,

Ga-ra-zi bor-tu gai-ne-an,

Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua ;
Bazka gizenen badu hautua,
Uda negu urtatua :
Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua.

3

Gora fagoa hedatzen!
Berotik nau gerizatzen :
Gauak zerua du urheztatzen,
Ihintz gozoa ichurtzen :
Gora fagoa hedatzen!
Berotik nau gerizatzen.

I-ra-ti-ko oi-ha-ne-an,

Errege dugu jarria
Marro bulumba larria :
Utzirik dabil bozik herria,
Adar handi bihurria :
Errege dugu jarria
Marro bulumba larria.

Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik :
Berrehun goare ozen lephotik,
Athera ziren herritik :
Ardiak dohaz ondotik
Bulumba hasiz geroztik.

(1) Prix fondé par feu Ant. d'Abbadie - d'Armas de l'Institut.

Otseho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.
Behar orduko baduk uhala
Sendo burdina bezala :
Otseho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.

7

Artzain bagare mendian,
Saro zabalen erdian :
Chirola dugu eguerdian,
Pilota bere aldian :
Artzain bagare mendian,
Saro zabalen erdian.

8

Olha zaharren barnetan,
Koblak, euria denetan!
Errepikatzen dire artetan,
Bi eta hirur bozetan :
Olha zaharren barnetan
Koblak euria denetan!

9

Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena :
Hurbilarazten du beregana

Kharmin, artzain mokhorrena!
Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena.

10

Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea.
Otsoak ere galtzen gosea,
Guganat hartzen chedea!
Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea.

11

Chirolak ditu oihanak
Hasperenen emanak!
Errekan dire jausten auhen k,

Chirolari daudezenak!
Chirolak ditu oihanak
Hasperenen emanak.

12

Bortuan sasoin ederra!
Chantchori diot eskerra.
Baderamaiot, neure beharra,
Mizpira baten adarra.

Bortuan sasoin ederra!
Chantchori diot eskerra.

13

Nik badut kaiku berria
Chantchok aurthen ekharria :
Zurean lanthuz du ezarria

Jauzicotan gazteria :
Nik badut kaiku berria
Chantchok aurthen ekharria.

14

Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz :
Ithurburuan ahuspekatuz,
Suntsitzen dut hurrupatuz!
Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz.

15

Hedoia dathor airetan
Su sarkhorrak erraietan!
Ihortziria samin denetan,
Zeinhatzen naiz hiruretan!
Santa Barbara, ni baithan,
Balia zaizkit gau huntan!

16

Iguzkia bada sartzen,
Belhauniko gare jartzen.
Igandez Credo dugu cantatzen ;
Oihartzunak ikharatzen!
Bihotzak dire mugitzen
Eta begiak bustitzen.

Harrotzen dut hausperria,
Aphaintzeko janaria :
Urdai, esneki, talo berria!
Lakhet dugun hazkurria!
Ikhus artean herria,
Hoiche da gure bizia.

18


Zimaildurik iratzea
Egiten dut ohatzea.
Ez baita luze loharkatzea
Maiteekin mintzatzea;
Egik, Otseho, zaintzea,
Etsaiekin hizkatzea.

AZKAINEN bestak badire
Ezin gohazke batere : T.B.
Igartzen ditut hemen halere
Goraintzi choil hauk nik ere :
Cantatzen ahal badire,
Ez dut galdetzen deus ere.

MARTIN LANDERRECHE,

Apeza,

BUZUNARIZTARRA.



A Monsieur de St. Yvaine,
honorablement connu et
profondément aimé par tous les
Basques, hommage respectueux.
Géthary, le 15 Octobre 1900.
Landerreche

Neure zuzonak neure.

L.

Eta bestanak ere

Mayonne. — Imp. Lasserre.

(Bartha, mende d'Alcave
oufalye Landerreche)

1

Diputadutza utzi eta guero ere nola diputadu izan ditequean :
 Urte batequin *tir....aca tir.....aca*, nola sei urte eguñ ditezquean ;
 Guipuzcoa, Naparroco mendi Francia uquitzen dagoan batetic, ederqui nola
 administratu, gobernatu, arreglatu, compondu (multac boteaz) ditequeau ;
 Guipuzcoaco lurrean sartu gabe nola Oyarzuna joan, eta an egon, litequean ;
 Eta beste onelaco milagro asco esplicatzen dituzten.

VERSO BERRIAC

I

Diputadua dala
 Digo Potzolotec
 Guc galde dizagogun
 Ta *bastoga* non dec?
 Entregatu uala
 Onezquero badec
 Docen-Erdi bat urte,
 ¿ Bururic ez aldece ?

II

Aguinea artu ta utzi
 Noiz nai dala eguiten
 Pocholito gureac
 Nosqui du pensatzen ?
 Diputadu izatea
 Zayo asco gustatzen,
 Baña obligacioac
 Ez daqui complitzen.

III

¿ Certaco Ondarrabian,
 Juntetaco sala
 Utziric, irten etzan
 Besteac bezala ?
 Arc esan bear zuan
Bidezcoa etzala
 An bildu zuten *junta*
 Eta bacijioala.

IV

Au eguin bearrean
 Bastoya hmill, humill,
 Eman cien, ta etzan
 Portatu chit abill :
 Orañ damuturican
 Buru autsten dabill,
 Baña aren aguintea
 Aspaldicho zan ill.

V

¿ Cer nai dioc Santa-Cruz
 Valienteari ?
 Gueldi utzi aquioc
 Erori danari :
 Badec irequiñ pare
 Hernialde jarri
 Gendeac obeto dic
 Cer aicen igarri.

VI

Cergatic Hernialde
 Ez dec ecusi nai ?
 Yñoiz aren laurdenic
 Eguiteco ez aiz gai :
 Euskaldunac eguia
 Comprenditzen dic, bai,
 Caso asco eguñ gabe
 Hire esa cayai

VII

Santa-Cruz ibilli dec,
 Or, bala tardean
 Hi Peña de la Platan
 Berriz bitartean :
 Ura gose ta egarri
 Hi tripa betean ;
 Ollo café ta coñac
 Naiz jai, naiz astean.

VIII

Letu zac fueroen
 Liburu lodia
 Guipuzcoan escatzen dic
 Arc *residencia* :
 Baña Paña Platatic
 Alde egon Francia
 Naiz era batera utzi
 Gure Provincia

IX

Gañera urte bacarra
 Diputaduentzat
 Señalaturic ceoc,
 Ez bost ta sei beintzat :
 Baña laburcho izan
 Eun ere iretzat,
 Eternidaderaco
 Albadec, arrezac.

X

Zaldiz balio ez dec
 Oñez guchiago,
 Ecer ez badezaquec
 Yshilican ago :
 Hic beñepen esan dec
 Ez dan gauza franco,
 Muturic egotea
 Uan ederrago.

XI

Oyarzunen nago ni
 Cion Ots-illean
 Guri zucendu cigun
 Papercho batean :
Zuen artera nator
Ta zuen artean
Perill guciac nai det
Sartu nic partean

XII

Baña ez pensatu zala
 Oyarzunen sartu ;
 Paper ura Francian
 Zuan are moldatu :
 Gueroonean ere
 Nola arrascheatu ?
 Añ sagar gordiñican
 Ez du nai otzcatu.

XIII

Jartzen danean fruta.
 Sasoi obechuan,
 Ycusico dezute
 Pocholoren auan :
 Ez escutic quentzera
 Joan ari orduan
Bastoiric baldin badu
 Jotzeco buruan

XIV

Beltzac erriyetatic
 Badute aldeguiten,
 Bideac garbi garbi
 Badirade jarlzen ;
 Orduan Naparrotic
 Campora irteten
 Ycusico dezute,
 Eta muga utzitzen.

XV

Bost urteco contuac
 Deseatzen dira,
 Sartutaco diruac
 Urtu ote dira ?
 Zayezco cartuchotan
 Gastatu balira
 Berdiñ citzaiguquean
 Botatzea ibaira

XVI

Gazteac nai lituzque
 Soldadu eraman
 Nolaco da inorcho
Aren deysera joan ?
 Diputadu *bidezco*
Batec balu esan
 Joateco, an ciraden
 Guciac lastercan

XVII

Multac ipiñtzeco da
 Mutill chit azcarra
Bost eun-etic asi ta
Zortzi millatara
 Adisquideai guchi,
 Ez diranai carga
 Egniteco asmoacquiñ
 Jarri ote du ala ?

XVIII

Liburucho polit bat
 Artu det escuan,
 Versoac ipiñtzeco
 Sartu nau gogoan
 Nezaqueana esan det
 Euscara claruan
 Ytzeguingo dizutet
 Gueyago urrenguan

4

Jaun batec Santa Cruzen contra, eta beste batec alde, esan
dutenaren gañean.

CANTA BERRIAC

I

Carlistac ezagutzen
Degu Hernialde:
Gauza franco aren contra
Ytzeguín dirade.
Ay ay ay! mutillac,
Ytzeguín dirade.

II

Ez nolanaí sinistu
Esaten dan gauze :
Non dala uste dezute
Ura beciñ fiñic ?
Ay ay ay! mutillac
Ura beciñ fiñic ?

III

Eguia aguertuco da
Goiz edo berandu :
Ez beintzat esperantzie
Egundaño galdú.
Ay ay ay! mutillac
Egundaño galdú.

IV

Norbaitec naizukean
Ura des famatu,
Ysabelino bat zan
Au contuan artu
Ay ay ay mutillac
Au contuan artu.

V

Liburucho batean
Dator errepuesta:
Letu gabe urashen
Utzi bear ezta
Ay ay ay! mutillac,
Utzi bear ezta

VI

Anchen dezu icusico
Cer dan arrazoya :
Baita guizoncho batec
Alcha duan loya
Ay ay ay mutillac
Alcha duan loya

VII

Ysabel ta Alphonsoren
Devociyocoac
Dirade Santa-Cruzen
Oso contracoac
Ay ay ay! mutillac,
Oso contracoac.

VIII

Eciñ dute icusi
Beguiz liberac :
Eguín dituzte contra
Beren eguiñalac.
Ay ay ay! mutillac,
Beren eguiñalac.

IX

Carlita fiñarentzat
Marca segurua :
Beltzac eracustea
Eren amorrua.
Ay ay ay! mutillac,
Eren amorrua

X

Ceñ Hernialde aimbat
Dute gorrotatu ?
Aren burua aspaldi
Zuten preciatu.
Ay ay ay! mutillac,
Zuten preciatu.

XI

Liberal beltz oriyeñ
Diputaciyoac
Millaca nai cituan
Luzatu duroac.
Ay ay ay! mutillac,
Luzatu duroac.

XII

Galestiyago ez da
Yeusi bnruric :
Ez baitu iñore jartzen
Arc aimbat beldurric,
Ay ay ay! mutillac,
Arc aimbat beldurric

XIII

Cembat neque peligro
Ez du arc pasatu ?
Negu biciz citzaigun
Guipuzcoan sartu
Ay ay ay! mutillac,
Guipuzcoan sartu

XIV

Amorevietarequiñ
Gueunden oso illic,
Etzala iñon uste zan
Alchaco carlistic
Ay ay ay! mutillac,
Alchaco carlistic

XV

Onetan sartzen dira
Oguai ta amazapi :
Orra cer gendetzacquiñ
Santa-Cruz zan asi
Ay ay ay! mutillac,
Santa-Cruz zan asi.

XVI

Ez lo, ez jan, ta ez ecer
Mendiz mendi dabilz,
Euskaldunen biyotzac,
Animatzen aguitz
Ay ay ay! mutillac,
Animatzen aguitz

XVII

Asco gazte pocican
Ayequiñ joan ciran
Fifitasuna icusi ta
Gustatu baitziran.
Ay ay ay! mutillac,
Gustatu baitziran.

XVIII

Gueroztic ayen lanac
Caburic etzuten
Beltz guciac icaraz,
Ypiñi cituzten
Ay ay ay! mutillac,
Ypiñi cituzten

XIX

Fusil, polvora, balac
Jana ta jancia,
Nombait moldatzen zuten
Bear zan gucia
Ay ay ay! mutillac.
Bear zan gucia.

XX

Azquenean cañoyac
Cituzten eratu,
Ystrumentu berriac
Baitere asmatu,
Ay ay ay! mutillac,
Baitere asmatu.

XXI

Noizbait igaroco da
Emengo itsumena
Yzango alda ayentzat
Zor dan aitormena.
Ay ay ay! mutillac,
Zor dan aitormena.

Poésie en réponse à celle parue dans un journal Basque

Refrain :

Biba Porteño Americanoa
Pilotaritan pare gabecoa.

1

Goñiri pertsulari bat, champaz zaio atrebitu
Holaco pertsu chirtchilik ez dut seculan aditu (Refrain).

2

Urruñarrak espantuka, Vaskito dauku hampatcen
Pilotarien errege, tronu handirat altchatcen (Refrain).

3

Porteñok behar omen du Vaskitoren aiteinean
Humilki buruz aphaldu, bere chapela eskuan (Refrain).

4

Sobera galdediguiten duc, ene pertsulari charra,
Porteñoc eguinen dioc aphaldu gabe agurra (Refrain).

5

Dutelakotz sos puchka bat Donibanen irabazi
Eskutican yuanc dire, pertsu, fandango-ta yauzi (Refrain).

6

Bara, bara Urruñarra, Porteño ez dago lotsa
Zilhar churi, urhe gorritz bethe bethea du moltsa (Refrain).

7

Elhe alferrak utcirik mintza gaiten egiazki
Vaskitok erregetceko, ez du segur eguin aski (Refrain).

8

Errebki zaio nausitu, Vasquito Semperetarra
Berak zituen hautatu, trinket pilot eta marra ! (Refrain).

9

Lehenago hor berean echkerrez ziren izartu
Partida dudan egon cen, ez baitzuten akhabatu (Refrain).

10

Geroztic Ameriketean elgar baitzuten hatceman
Porteñoc Vaskito horri partida zion ereman (Refrain).

11

Porteñoren contra orai, hic errege pilotari
Eskuin, ezker eta biez pleka nahi duka ari ? (Refrain).

12

Donaphaleun badie trinket bat eder berria,
Porteñok bezambat ongui badakic hango airia (Refrain).

13

Edo bertce bat hauta zac, ez dadien izan elhe,
Nahi baduc hauta Cambo, nahi baduc hauta Maüle (Refrain).

14

Bertcenaz ez duc Vaskito zucenic erregetceco
Eskuaraz erraiten deat : Ukho, Vasquito, bai **ukho** (Refrain).

Ochkach.

Poésie en réponse à celle parue dans un journal Basque

Refrain :

Biba Porteño Americanoa
Pilotaritan pare gabecoa.

1

Goñiri pertsulari bat, champaz zaio atrebitu
Holaco pertsu chirtchilik ez dut seculan aditu (Refrain).

2

Urruñarrak espantuka, Vaskito dauku hampatcen
Pilotarieren errege, tronu handirat alchatcen (Refrain).

3

Porteñok behar omen du Vaskitoren aïtcinean
Humilki buruz aphabetu, bere chapela eskuan (Refrain).

4

Sobera galdediguiten duc, ene pertsulari charra,
Porteñoec eguinen dioc aphabetu gabe agurra (Refrain).

5

Dutelakotz sos puchka bat Donibanen irabazi
Eskuticuan yuanac dire, pertsu, fandango-ta yauzi (Refrain).

6

Bara, bara Urruñarra, Porteño ez dago lotsa
Zilhar churi, urhe gorritz bethe bethea du moltsa (Refrain).

7

Elhe alferrak uteirik mintza gaiten egiazki
Vaskitok erregetceko, ez du segur eguin aski (Refrain).

8

Errechki zaio nausitu, Vasquito Semperetarra
Berak zituen hautatu, trinket pilot eta marra ! (Refrain).

9

Lehenago hor berean echkerrez ziren iza:tu
Partida dudan egon cen, ez baitzuten akhabatu (Refrain).

10

Geroztic Ameriketean elgar baitzuten hatceman
Porteñoec Vaskito horri partida zion ereman (Refrain).

11

Porteñoren contra orai, hic errege pilotari
Eskuin, ezker eta biez pleka nahi duka ari ? (Refrain).

12

Donaphaleun badie trinket bat eder berria,
Porteñok bezambat ongui badakic hango airia (Refrain).

13

Edo bertce bat hauta zac, ez dadien izan elhe,
Nahi baduc haüta Cambo, nahi baduc hauta Maüle (Refrain).

14

Bertcenaz ez duc Vaskito zucenic erregetceco
Eskuaraz erraiten deat : Ukho, Vasquito, bai **ukho** (Refrain).

Ochkach..

(Abdi Turi Bidart curé d'Ybarrola)

6

+
CHANT BASQUE
DÉDIÉ A M. DASCONAGUERRE
AUTEUR DES ÉCHOS DU PAS DE ROLAND

GANICH MENDITARRAREN

CANTA BERRIAC

Sarako bestan lehembicico precioaz ohoratua izan dena
YOANES OXALDE BIDARRAYTARRAC EGUINAC

AIREA : *Yarayqui içan nayo Chori pollit bati.*

1

Mendi gainean haci Cantarbe çaharrac
Erroac harroquetan urrun tu adarrac,
Bihotcez ezti eta berthutez azkarrac
Lauda ditçagun lauda oroc menditarra.

2

Odol bereco haur bat mende erdi huntan
Aiphatua içan da asco lekhuetan,
Francian, Espaiñian, baster gucietan
Hitz batez errateco chume handietan.

3

Hercul baten pare cen Bidarraytar Ganich
Balentriac eguin tu contrebandan hariz
Bihotz azkar batequin çagolaric irriz
Fagoratcen baitçuen çahar gazte hainitz.

4

Mendiz mendi çabilan harrocaz harroca
Ardura exayequin haricen borroca
Bat hasi baitçiçayon harmequin tiroca
Hatceman çuen bainan ez lurrerat botta.

5

Bidachungo oihana lekhu itxuxiya
Hartan hartu baitçuen min hori gucia,
Orduan galcer çuen yaun horrec bicia
Yaincoac ez balio bidali gracia.

6

Hortacotz galdatua içan çen Pauberat
Huna nola mintço cen Saint-Blancard hau bera
« Herxadura handitic horrec nau athera :
« Nahi nuque descantxu yoan dadin etchera. »

7

Orobat guerthatu cen gau batez Heletan
Uste gaberic sarthu baitçen exaiyetan,
Cardinale gaichoa çagon ikharetan,
Harturican yuan çuen bere sorbaldetan.

8

Morde Belsunce bisconde aitoren semea
Çuc bidali çinion Ganichi galdea :
Gastelu hortan cela Carlosen andrea,
Nahi çuen seguitu Estella aldera.

9

Orduan hartu çuen princesa berequin
Arrolanen ibaya iragan harequin,
Etxayec heyen berri ez baitçuten yaquin,
Carlosec hartu çuen bozcariorequin.

10

Ehun mila libera gaztean eguinic,
Oro Carlistetarat cituen emanic,
Orduan ethorri cen deus ez ukhanic
Nihorc eztio eguin secular funx onic.

11

Norbaitec içatu du Ganich çutaz artha
Cerbait ukhan deçaçun nahiz den beranta
Uste çuen beçala baliatu baita,
Orai bici çareno baduçu errenta.

12

Dembora bacinuen onthasun ederra
Guero aldiz ikhusi ondoan beharra,
Orai descantxu çare, gaicho menditarra,
Çucenari eman dio Yaincoac indarra.

ATHEKAIZEKO MENDITARRA

AIREA : Amabatec bere haurrari.

I

Arrolanen itzala ilhun nabarrian
Tristerik aguertzen den arrokaren aldian,
Etehe batian dago ghizon bat zaharra,
Herrian deitzen dute Ganich menditarra!

II

Bere gazte demboran urus bizitzeco
Ganichec bacituen adiskide franko ;
Nehor etzen mendian hau becen askarra.....
Orai hor uzten dute Ganich menditarra!

III

Aldi bat colpatua, bere etsaiari
Bizitzeco grazia eman dio leiyalki ;
Ynkoac ikusi du haren obra ederra.....
Bertzec ahantzi dute Ganich menditarra!

IV

Ihurzuri borumban, chimisten erdian,
Ibaïya pasatzen du Athekaitz aldian,
Erregiña bizkarrian, Español lurrera
Uruski heldu zare, Ganich menditarra!

V

Cerbitzu handi hori erregec diruaz
Nahi du zaristatu, eta bere escuaz,
Eztu errezebitu Ganichec zilharra
Urhez bihotza duzu, Ganich menditarra!

VI

Munduac ahantzia egun sofritzen du,
Bai eta miseriac haren bortan yo du
Orai zahartu eta sendituz beharra,
Bakarrik bizi zare, gaicho menditarra!

VII

Bainan haren zortez onkitua minki
Ganichen zorigaitzac erteco goraki
Ghizon batec izan du talendu ederra
Nigarrac agortzazu, gaicho menditarra!

VIII

Botz caritatos hori guciec aiturik,
Athera izan dute bere ilhumbetik ;
Orai botzic han dago ghizon bat zaharra
Herrian deitzen dute Ganich menditarra!

ESKUALDUN BAT.

COMPLAINTE BASQUE

Sur l'air de *Amabatec bere haurrari*.

DÉDIÉE A M. DASCONAGUERRE

CONSEILLER - GÉNÉRAL

Auteur des ÉCHOS DU PAS DE ROLAND

I

Non loin du roc solitaire
Où l'ombre du paladin
Revient, menaçante et fière,
Quand le jour touche au déclin,
Sous un humble toit de chaume
Demeure un pauvre vieillard ;
Dnns le pays on le nomme
Ganich le vieux montagnard.

II

Géant au cœur intrépide,
Son regard est assuré ;
Son bras est aussi solide
Que son *makila* ferré.
Aux beaux jours de sa jeunesse,
Il fut grand, l'humble vieillard ;
Aujourd'hui chacun délaisse
Ganich le vieux montagnard.

III

Dans une lutte sanglante,
Il protégea de sa main
Celui dont l'arme puissante
Venait de percer son sein.
Contrebandier magnanime,
Il fut grand, le montagnard ;
Qui songe à ce trait sublime
De Ganich, l'humble vieillard ?

IV

L'éclair luit, la foudre gronde,
L'ouragan est déchaîné ;
Sans crainte il traverse l'onde,
Le Basque déterminé.
Voyez ! sur sa large épaule,
Fardeau cher au montagnard,
La pauvre Reine espagnole,
Qui se souvient du vieillard ?

V

Il dépose la princesse
Sur le sol libérateur.
Elle est pauvre, sa vieillesse ;
Oui, mais l'or est dans son cœur.
Et pour toute récompense,
Il ne veut, le montagnard,
Qu'un mot de reconnaissance.
O Ganich, noble vieillard !

VI

Aujourd'hui l'oubli rapide
L'a couvert de son linceul,
Et le héros intrépide
Est demeuré triste et seul.
Hélas ! la pâle misère,
Sous le toit du montagnard,
A montré sa tête austère :
O Ganich, pauvre vieillard !

VII

Mais une âme charitable,
Chez qui fleurit la pitié,
Tendant sa main secourable
Au vieux Cantabre oublié,
A, d'une voix éloquente,
Retracé du montagnard
L'infortune déchirante :
Sèche tes pleurs, bon vieillard !

VIII

A ce cri d'un cœur sensible
Tous les cœurs ont répondu,
Et du ciel, ange visible,
Le bonheur est descendu
Sous cet humble toit de chaume
Où demeure le vieillard
Que dans le pays on nomme
Ganich le vieux montagnard.

UN BASQUE.

KANTU BERRIAC

(Laur ponduco airea.)

1^{en} BERTSUYA.

Arrondizamendua dugu Bayonaco ;
Aurten izan baitugu oroc lana frango.
Deputatu berri bat bacen egiteco,
Biga baciren present gure cerbitzucó.

2^{en} BERTSUYA.

Chemartin Harriague dugu presentatu,
Lehen ere gurekin baitcen abiatu.
Zaharrac duenean lanari barkatu,
Haren plazan behar da ganberetan sartu.

3^{en} BERTSUYA.

Bien artean, bacen lehenic auzia
Ortzaizeco artzainac eginic yaucia.
Bainan gusta ceraco Hasparnen sartzia ;
Trinketian galdudu partida handia.

4^{en} BERTSUYA.

Andredena Maria ez da ahantzico ;
Egun seinalatua zuten trinketeco,
Ehun emazte bacen bederen sareco ;
Oro alde izanez, ez çuen galduco.

5^{en} BERTSUYA.

Hasparneco merari yuan zayo borthala,
Haren herrico bozac behar dituela.
Iduriz nahi çuen ichuri odola,
Gizon buru berua ibiltcen da hola.

6^{en} BERTSUYA.

Hasparneco herrian ez cen behar sartu.
Fidel anhitz bacela behartcen orhoitu.
Yaun mera nahi çuen lurrerat botatu ;
Proposatudu bainan ez da baliatu.

7^{en} BERTSUYA.

Artzainac arthaldea behar du gidatu.
Ez da behar bordatic hola escapatu.
Eri bat nahi bacen hari cofesatu,
Haren gatic penetan behar cen phartitu.

8^{en} BERTSUYA.

Otsua artzain dela aspaldico fama ;
Orai ikhusten dugu egiazco lana.
Ez du arropa hori gerlaco ukhana ;
Bakean bici dadin dakote emana.

9^{en} BERTSUYA.

Yuanes eta Maria biac ezkontzeco,
Espos geya gorria boza emaiteco,
Maria nahi zuten Yuanesen biltceco ;
Bertcenaz ez cirela ceruan sarthuco.

10^{en} BERTSUYA.

Uzkina yaun horiec bere gisa, haurra ;
 Bardin eginen diun hire hasi lana.
 Obedituco zaitut, ichil zaite ama ;
 Batere ez dut maite churien chicana.

11^{en} BERTSUYA.

Azkenian, cer nahi yin zaye burura.
 Boza hitz eman eta gizona cerura,
 Ez bazuten emaiten, artzain yoco hura ;
 Kendu nahi baitzuten batayoco ura.

12^{en} BERTSUYA.

Orhoit gaiten Hasparne bici dela ongi,
 Trabarie egin gabe deusetan nchori.
 Iguzkitie hedoya nahi duenari
 Izpiritu sainduac egin beza argi.

13^{en} BERTSUYA.

Harriague Morrochco oyhuz gaude zuri.
 Barkatu behar duzu etsai zorueri.
 Zu izanen zarela gucien sokorri,
 Kantuz nahi dut erran heskual herriari.

Pax vobis!



MENDARO TXIRRISTAKA

(Doña. Beroiaren kantena bezela)

Con estos comerciantes
 Saiguna gertatzen
 Hablar concretamente
 Ez naiz bildurtzen
 A mi me extrañan ellos
 Ez dute alkar artzen
 En cambio inicuamente
 Gaituste esplotatzen
 Zer dute pensatzen
 Pixuan jostatzen
 Bagera kejatzen
 Gaituste insultatzen
 Semejante mania
 Etzait gustatzen.

Se levantan del lecho
 Lenbizi bañatu
 Luego la peinadora
 Illia orrastu
 Con bizcochos de Mendaro
 Txocolatia artu
 La lechera en basarri
 Kamixa garbitu
 Asko kritikatu
 Sarri konpesatu
 Ezatia astu
 Zenbat duten ostu
 Con los ultramarinos
 Dira aberastu.

Sus vestidos de seda
 Modako piñena
 De allende Bidasoa
 Ekartzautena
 Por esas tan en balde
 Dago Aduana
 Sin ningún contratiempo
 Sartzen dute dana
 Mingaña leuna
 Gesurra laguna
 Projimuangana
 Biotza zekena
 Si alegar quieren algo
 Betos nigana.

El pan nos encarecen
 Merke artu iriña
 Señores panaderos
 Deukaten griña
 No quiero malamente
 Dantzatu mingaña
 Que abusan en el peso
 Gusiak es baña
 Asmatu esiña
 Suari tamaña
 Asala ikatz eiña
 Mamia gordiña
 Con frecuencia notamos
 Tripako miña.

Tambien debo deciros
 Dia arakiñaK
 Aunque de poco estudio
 Asko jakiñaK
 Nuestro bien adquirido
 Diruan ordaiña
 Unos huesos partidos
 Sebua ta saiñaK
 Orra oien asaiñaK
 Leunak migaiñaK
 Gisato bikaiñaK
 Berak jan mamiñaK
 Judas Eskariote
 Zan bezin piñaK.

Tocante a los sidreros
 Itz egin biar det
 En forma comprensible
 Albaldin badet
 En precios y medidas
 Sarri arkitzen det
 Abuso intolerable
 Eta penzatzen det
 Egia aitortzen det
 Korajia badet
 Mingaiñ lusia det
 Profestatzen badet
 Todos me llaman loco
 Eta pos artzen det

Tambien debo deciros
 Etxe jabiekiñ
 Lo que nos acontece
 Naiduenak jakiñ
 Haciendo unos remiendos
 Noisikan eta bein
 Nos duplican las rentas
 Pretestu orrekiñ
 Nork esdu artzen miñ
 Bizi lagunekin
 Naiz dala eroseiñ
 Pakean bizi esiñ
 No creo que es mentira
 Gausa au beñepein

De todos los tratantes
 Konzientziskuak
 Son sin duda ninguna
 Tarbeneruak
 Porque muchos nos venden
 Zigarro puruak
 A cuatro perras gordas
 Errialekuak
 Dauska estankuak
 Prezio pijuaK
 SeilluaKin juaK
 Gu gera KaiKuaK
 Por eso abusan tanto
 BitarteKuaK.

Los holgazanes comen
 Gausarik obenak
 Jamón y buenos lomos
 eta lukainkak
 Pollos y huevos frescos
 eta arkumiak
 Merluzas y besugos
 eta txipiroyak
 Frescas barbariñaK
 Eta korrokoiak
 Angula ta amorraiaK
 Eta isukiyak
 No es extraño que tengan
 Matrail guriyak.

Y los obreros honrados
 Onelako gausak
 Patatas y habichuelas
 Porru ta asak
 De vacas tuberculosas
 Saiaski argolaK
 De las peñas de Ullia
 Muskullo eta lapak
 Trimpoill eta arrabaK
 Pimpiño perloiak
 Txitxarro berdelak
 Eta potaKarraK
 Ni es extraño tengamos
 Mutur igarrar

De nuestro municipio
 a la corporación
 Sinceramente hago
 Una observación
 El sport del boxeo
 Como es buena instrucción
 Tambien esos muchachos
 Son dignos de atención
 Del progreso comisión
 En la próxima sección
 Que lleve a la sanción
 Que asignen subvención
 Mandibulas rompiendo
 Tengan diversión



Eusebio Mugerza

Prohibida la reproducción

Bertzoz Berriyac

Santa Teresa de Jesus'enac



Deboto batec bere honran jarriyac



Berso berri batzuec
nai nituzque jarri;
Jaunac laguntsen badit,
bere honragarri;
esagusen emanic
mundu gustiari,
Jesus alabatzer
guerala etorri.

Abillaco alaba
Teresa de Jesus,
gure biot gogorrac
bigundu isasus;
Jesusen erreguae
aditzen badisus,
gugaitican berari
sucendu sayosus.

Espanaco lorea
Abillan jaiua,
sure bisitza ederra
asaltzer noa;



icusican celten
do i ta ejemploa
desampara desagun
guc mundu soroa.

Aurrena Espanian
urreua African,
dabil sure anima
is oturican;
Jesusen Biotzari
gusto emon nairic,
esdosu suc billasen
ifonbe nequeric.

Martirien bisitzac
iracurritzean,
erabagi arcendu
bere biotzian;
Africara joateco
sarturic ontzian.
Jesussegaitic bertan
ilteco ustean.



Igues dute echetic
anaichu batequin
billatuac dirade
biac alcarrequin;
ecin cumpliturican
desio oicquin,
penas gelditzen dira
echian aitaquin.

Sarricho pensatuas
eternidadian,
erabaguitzen dute
alcarren artian;
guela bat eguitea
hortu bastarran,
bertan erregutzeco
juaten diranian.

Cilicio ta baru
disciplinarequin,
gorputza esitendu
aleguiñarequin;
gracia gueiturican
oraciorequin,
beti dago bilduric
Jesus berarequin.

Abillaco comentu
Carmenarrenian,
sartzea desiodu
bere biotzian;
aitaren licencia
artu suanian,
ecin pozas estadu,
bere barrenian.

Preparaturic dago
onguei urtarequin
bildutzeco betico
Jesus berarequin;
estalduric goputza
abitu batequin
sarricho sei bitzendu
Jesus berarequin.

O cer omudioa
o cer ferboria,
esau gusien Jesus
duela beria;

Teresa de Jesus da
Carmengo lorea,
sabalduco duena
Jesusen leguea.

Debocio aundibat
cion Mariari,
gure salbasallea
cigula ecarri;
eta gusto ematen
Amabijiñiari,
gutia ematenda
Jaungoico onari

Ceinbat igaro suan
bere biotzian,
ecin det esplicatu
biardan bestian;
bada enfermedade
andian erdian,
gogorutzen cisayon
Jesus curusiae.

Osta espirituco
liortasunaquin,
prueba gogorric franco
badu berarequin;
baña Jaungoicuare
laguntasugaquin,
curusia darama
pacienciaquin.

Amasortzi urtean
sufriren arida,
bere paciencia
onguei aguirida;
ecin gure biotzac
bigundu badira,
animatu jarriric
berari beguira.

Teresaren ejemplu
miragarriaquin,
igaro ortasunac
pacienciaquin;
eta Jesus maitiac
bere indarraquin;
lagunduco algaitu
borondatiaquin.

Oraciuau berriz
jarrisen sanian.
malco gozoa franco
basuan bldian;
pensatuas Jesusen
omodio andian,
ilsean beragaitic
curutze batian.

Sarritan ikustesan
bere arpeguia,
Jaunarequin bilduric
gustiro arguia;
esagutzen emanic
suturic gustia,
bere barruticaco
ferbore andia.

Sarritan Jaunagandic
san bisitatu,
argaitic diabrua
seguan sutua;
ecin logratu
bere desigua,
Teresana dator
bai sufrimentua.

Teresa de Jesusen
birtute andiac,
lurpera naicitusten
munduco gentiac;
baña gure Jaunaren
misericordiac,
desiguiduten ditu
esaien ustiac.

Oso naibagueturic
burlac adicean,
ecin erabagui du
ecer ondorean;
bada despreciuac
burlaquin batian,
dudac sorcen dituste
beren biosean.

Estutasun onetan
Jesusi deituric,
onec erantzun deutza
es dudaric euqui;

su nirea serata
Teresa osoric,
eta es gaistoari
suc eguin jamonic:

O cer consuelua
isensan suria,
jesusec esatian
ciñala beria;
eta aundiagoa
berris aditzea,
Jesusen agotican
esposa nirea.

Illobachu gaste bat
suen comentuan,
ceñerequin Teresac
itz eguin oisuan;
beraquin egonic
erabagui suan,
erreguela estubac
jarsea claustruan.

San Pedro Alcántara,
San Luis de Beltrán,
oien consejuaquin
fundasen asisan;
eta beronegaiti
infenuen guisan,
ari contra eguiten
gentía jarri san.

Cenbat caluniata
cenbat desprecio,
Teresaren obretan
Santac berac dio;
baña mundua gaitic
ardura estio,
eta Jesusec bera
lagundusen dio.

Beae contra jaguiric
genteric guciena,
licenci artu suen
Aita Santuena,
jarseco erreligio
Carmenguarena,
erreguela jarriric
berac naisuena.



Pio laugarrenaren
bayartu arequin,
asidu bere lana
aleguinaquin;
emanic asiera
Abillacuaquin,
conbentu asco.ditu
bere reglarequin.

Necaturic gorputza
ainbeste lanequin,
gaisen dau osasuna
urtearequin;
Alba de Tormes era
eldutzeaquin,
Jesusec naidu bildu
ceruan beraquin.


Sacramentu gustiac
errecibituric,
gueldicenda Teresa
beragan urteric;
eta amalau egun
alan pasaturic,
cerurar igosendu
birtutes beteric.



Bere gorputza dago
Alba de Tormes en,
baita bere biotza
aranza betesen;
nunbaif dago
chit asco sufritzen,
aranza eder aiec
dutenes esaten.

Iru aranza daucaz
naicua andiac,
oiec irtenda guero
ciran desgraciac,
orain berris irtesen
badaucas bost berriac,
nunbat es dira isango
gueureac chiquiac.

Santa Teresa ona
gugaitic erregu,
gure animachoa
esteitesan galdü;
eta etzai gaistoa
etortzen bazagu,
gu socorridusera
Marta bialdu.



CHARDIN SALTZALEA

Gaiment Pas trop vite

HARMONISATION DU
R.P.J.A. de Donostia

très léger

Un — tzi — a jin de—

toujours

2^e ed.

ne — ho i — tsas baz — te — rre — ra Ga chu — chak e — ro—

m.g. md.

si tu bi sas — ki — no — ta — ra bi ak al tcha tu—

mf

ri — kan ai — ros — ki bu — ru — ra ho — rra zoin las ter

pp

do — an ka — rri — ka be — he ra

ppp

CHARDIN SALTZALEA

1

Untzia jin deneko itsas-bazterrera,
Gachuchak erosi tu bi saskiñotara ;
Biak altchaturikan airoski burura,
Horra zoin laster doan karrika behera...

2

Zaiak estekaturik gorachko gerrian,
Zango sagarrak ditu arras agerian,
Etchean bezain aise dabila hirian,
Irrintzin bat eskainiz guzier lorian !

3

Itzuliak eginik, « Au bon vin » ethorri,
Zintzurra idor eta sudurttoa gorri,
« Arras akhitua naiz behar dut sokhorri,
Onetik nahi nuke barnerat igorri... »

4

Barnearen phizteko, hustu-ta basoak,
Mokoka hasten bada zer elhe gochoak !...
— Amak, gordazkitzue zuen haur gaichoak,
Garbi behar baitira hekien gogoak !!!

5

Mihia badu ere sobera zorrotza,
Zuzen gelditzen zaio nonbeit han bihotza...
Arnoa dukenean, ez maite ur hotza,
Ez da nehon ez dena Gachucharen gaitza !!!

6

Eskalerik badea, guziz beharreen,
Dabiltzaner othoitzka bide bazterreen ?
Gachuchak pausaturik saskia lurrean,
Chardinak eman daizko laster ahurrean.

7

... Emanak othe ditu bertzer harrapatzen...???
Etchekeeri bethi kario du saltzen !
Alferretan andrea mokoka da hartzen,
Ez dako behin ere sos bat atheratzen !!!

8

Iguzkia zerutik aphaltzen denean,
Oraino're Gachucha karrika gainean ;
Hasi zuen bezala boz ederrenean,
Eguna finitzen du irrintzin batean !

9

Gachucha moko biphil, Gachucha kokina,
Badinat Jinkoari othoitz bat egina :
Beira dezaunan luzaz hire zintzur fina
Guhauri merkechago igorritz chardina !!!

OXOBI.

IRUNGO PILOTA PARTIDA, 1847^{an}

KASKOINA

HARMONISATION
R.P.J.A.de Donostia

Allegretto

Pi-lo-ta par-ti-da bat J-run-go he-ri-

pp recita

an, Pro-bin-tzi a-rren e-ta Fran-tse sen ar-te-

an Jaun a-pez Baz tan dar bat zen Fran tze se-ki

mf *cres* *cres*

Jaun a-pez Baz-tan-dar bat zen,

lan Gi-da ri Go-ber-na-dor ku-ra-ia-re-ki-

ao *f*

Pran-tze-se ki-lan Go-ber-na-dor ku-ra-ia-re-ki-

lan E-tho-ri-a u-rrun-dik molts o-na-re-ki

pp

lan

lan Bi-to-ri-a-ren bil-ha kas-koi-na-re-ki-lan

rall.

IRUNGO PILOTA PARTIDA, 1847^{an}

KASKOINA

1
 Pilota partida bat, Irungo herrian,
 Probintziarren eta Frantsesen artian ;
 Jaun aphez Baztandar bat zen Frantsesekilan,
 Gidari gobernador, kuraiarekilan,
 Ethorria urrundik, molts-onarekilan,
 Bitoriaren bila « Kaskoinarekilan ».

2
 Probintzian jendia estimagarria,
 Gazteria guzia da pilotaria ;
 Orai arte bazuten bethi bitoria,
 Azpitik zadukaten Eskualdun herria,
 Bainan orai Frantses bat, guti iduria,
 Baztandar jaun batekin dute nagusia.

3
 Jaun apezaz, kaskoinaz, girade mintzatu ;
 Orai bertze lagunak, nahi'tut aipatu ;
 Hazpandarrak diote ederki botatu,
 Eta Uztariztarrak guziak charmatu ;
 Baztane-ta Frantzia dire koroatu,
 Eta Probintziarrak tristerik gelditu.

4
 Ez da posible, Jaunak, kasik sinhestia,
 Konfidantzia nola zuten ezarria ;
 Duroz kargaturikan mandoa ekarria,
 Garbitu nahi zuten arraia guzia,
 Bainan etcherakoan heien doloria !
 Mandoak Irunen galdu kargaren erdia.

5
 Probintziarrak ziren ongi preparatu,
 Mandoa trebaseko duroz zen kargatu ;
 Galtzeaz, duda gabe, ez ziren orhoitu ;
 Abilak dire bainan, hek ere trompatu,
 Español moneda da Frantzian frankatu,
 Mandoa etcherakoan kargak ez kolpatu.

6
 Probintziarrek zuten prekozionia,
 Berekin ekarria pertsu emailia ;
 Berendako zaukaten arras bitoria,
 Urrun zen pensatzia partida galtzia ;
 Kanturik egin bada, ez daite egia,
 Erretzen ahal dute oraiko kopia.

7
 Urgulutan zirela, ez dugu dudarik,
 Ez zuten ez pentsatzen partida galtzerik,
 Uste zuten Frantzian ez zela gizonik,
 Heien Kontra pilotan atherako zenik ;
 Jakin bezate beraz, Lapurtarren ganik,
 Probintzia ez dela munduan bakarrik.

8
 Irunen in derauku urrezko uria,
 Bainan ez baliatu hanitz Probintzia ;
 Frantziako parterat zuen ichuria,
 Aise doratu dugu Pausuko zubia,
 Aintzinetik bantatzia ez da prudentzia,
 Jaungoikoak eman daie punizionia.

9
 Bitorios balire Irunen izatu,
 Usoño bat behar zen berehala partitu,
 Frantses kasta guzia zutela garbitu,
 Miseria gorrian ginela gelditu ;
 Bainan usua zaie bidian trompatu,
 Donostia utzirik, Lapurdin da sartu.

10
 Arraio demonio! Kaskoin trunko hori
 Bizitik bai loretik ederki duk hari !
 Egundaino holakorik ez diagu ikusi ;
 Horrekin behar diagu pilotan ikasi ;
 Frantses pikaro hoier etzaie itsusi,
 Lapurdí Probintzian pilotan nagusi !

11
 Adios, Probintziarrak, orai bagoatzi,
 Despendio sariak ditugu irabazi,
 Baldin berriz haitzeko gosturik baduzi,
 Etzaituztegu nahi errenkuran utzi ;
 Mando mula eder hori ongi karga zazi,
 Plazer duzuenian gaztiga daukuzi.



MARIAREN ALABAC EGUIN BEAR DABENA
EUREN AMAREN ONDRA
ETA EUREN ONERACO

Cantartea

*Agur, agur, agur Maria
Agur, agur, gustiz garbia.*

Cantaldiac

Maria Amatzat
Artu guenduan,
Ondra obagoric
Ez da munduan.
Agur, agur....

Ondo aziteco
Egun sentia,
Esan iru bider
Abe Maria.
Agur, agur....

Alan gordeco dauz
Ama laztanac,
Bere alabaren
Eguite onac.
Agur, agur....

Itzalez yantzita
Zinta medallac,
Aguertu beditez
Orren alabac.
Agur, agur....

Jaincoa lelengo
Guero aita amac,
Beti ondo eguin
Euren esanac.
Agur, agur....

Jesus biotzetie
Maite badogu,
Ilean bein Jauna
Ondo bai artu.
Agur, agur....

Icustealdi bat
Eguin illean,
Izentadu yacun
Egun berean.
Agur, agur....

Ama Mariaren
Alabea da,
Otzan eta garbi
Biziten dana.
Agur, agur....

Lagun charretatic
Urrin egonda,
Gordeco da ondo
Garbitasuna.
Agur, agur....

Noren alaba dan
Ondo pentsauric,
Iños be ez eguin
Garbi ez danic.
Agur, agur....

Nazte santarrari
Iguez eguñic,
Diabru loiari
Ez emon pozic.
Agur, agur....

Ama garbiaren
Umiltasunac,
Eracusten deuzcuz
Zeru-bideac.
Agur, agur....

Gogoan gordeta
Pozezco cantoc,
Mariaz bizico
Zare gustioc.
Agur, agur....

Alcar ondo maite
Bizitz-onetan,
Zeruan Amagaz
Bizi gaitezan.
Agur, agur....

NOTA. Se cantarán con la misma música del *Ave, Ave, Ave María*, que se acostumbra cantar en Lourdes. (Bear dan Baiaz.)

¿Zer probechu dauca guizonac mundu guzia irabaztearequiñ, baldiñ bere anima galtzen badu?

Adisquide leial baten lau conseju on.

1.

Zure anima salba dezazun
Oraindic zaite oartu,
Dembora ondo aprobechatzen
Etzaitzela zabartu;
Penitentziaz emengo pena
Ta neque laburrac artu,
Eta ardura andiaz danac
Zeruco urre biurtu.

2.

Odol tantoac diamante ta
Perla ederrac malcoac,
Zufriquizunac zetro ta coroi
Biurtzen ditu Jaincoac,
Dacartzquigute grazi andi ta
Ondasun zeru-goicoac,
Pecatariac santututzeco
Beste guziaz gaincoac.

3.

Mundu au ezta, beti emen zu
Bizitutzeco, eguiña,
Ostatu bat da, egon zaitezen
Bertan, Jaunac nai adiña;
Bacarric emen izan nairican
Beti bizico baziña,
¡Ay zer pena ta atsecabea
Naia irichi eziña!

4.

Baldiñ emengo sua izanic
Pintatuaren antzera,
Alare bera uquitze utsaz
Icaratutzen bazera,
Infernucoa gogoratzean
Biurtu zaite atzera,
Pecatuari igues eguin ta
Bizitz onean sartzera.

Guizonaren azquena

Zeruraco jaioa	Guerta ditequela ta
Laster bear det ill,	¿Alare jolastu?
¿Nola bada lureco	¿Baña nola nindeque
Gauzen billa nabill?	Gauz oezaz aztu?
Condenatutzia da	Baditeque bitic bat
Gauzic tristeena,	Oso seguratu,
Ala ta guziz ere	Edo ta santu eguiñ
Guerta ditequena.	Edo ta zoratu.

Azquen orduen oroipena

Ilco zera ta dezu
Izango zoria,
Betico pena edo
Betico gloria.

Estas HOJITAS, aprobadas por la Autoridad Eclesiástica, se hallan de venta a 2'50 pesetas el ciento, en la Imprenta y Librería de Elosu, Durango.

Durango-n F. Elosu-ren echean.



Bizi zaite munduan
Ondo iltzeco moduan.



Beguirra, zer naico dezun
Jaun artezari erantzun.



Laburra gozamena
Beti-betikoa pena.



Penac laster pasatu
Gloria beti gozatu.

OROITU ZAITE ZURE AZQUEN ORDUAZ, ETA EZTEZU PECATURIC EGUINGO

Photographie Franco-Russe

F. PIELLET -- A MAULÉON (B.-P.)

PORTRAITS, GROUPES, REPRODUCTIONS,
AGRANDISSEMENTS, VUES PANORAMIQUES, MONUMENTS, ETC.
Les prix sont à 20 % plus bas que partout ailleurs

A Saint-Palais : Maison **Béréterbide**, tous les vendredis de
marché. — On opère par tous les temps.

IKHAZKINA MENDIAN

Airea : *Gauden muthil zahar*

Gazterik hasi nuen gogoalhatzen,
Bakezko estatua zein othe zaiteken;
Ez bainuen kausitzen egonez herrian,
Hortako yarri nintzen ikhazkin mendian.

Urrikari nautenak dira enganatzen,
Urrikal garriago dituz egagutzen,
Bake osoa nunda hekien artian?
Ni hartaz gozatzen naiz ikhazkin mendian.

Yainkoari diozkat eskerrak bihurtu,
Lagun zoro hetarik bainau aldaratu.
Beude beren atsegin galkorren erdian!
Ni prestu biziko naiz ikhazkin mendian.

Mendiko ur chirripak dohaz erasian;
Chori, chocho, epherrek kantatzen sasian;
Uso ihiztariak arbolen gainian...
Nola trichta naiteke ikhazkin mendian?

Igandetan mezarat menditik naiz yausten,
Yainkoaren manua hola ez dut hausten,
Egun hura gozatuz ahaiden erdian;
Gero aste guzian ikhazkin mendian.

Zapetain, sastre, harotz, zargin eta hargin,
Hek hirian lanean igandearekin;
Astelehena besta, gero min burian!
Ni zuhur eta sano ikhazkin mendian.

Gizon gazte lorios, merkhatukaria,
Yan edan onen zale eta yokhairia,
Onthasunak horrela goaten direnian,
Erranen duk : Hobe zen ikhazkin mendian.

Ene anaia goan zen Amerikan barna;
Laster zerbait eginik uztekotan lana,
Egun bezain aberats zen sorthu zenian!
Hobe lukela dio ikhazkin mendian.

Lili arrosa hainitz bada bazterretan,
Gazteen choragarri herri guzietan;
Ez naute enganatu ni orai artian;
Lorerik gabe nago ikhazkin mendian.

Igande bestetan dut garbitzen larrua.
Plazarat naiz agertzen ongi aphaindua;
Arrai dut arpegia, hitz onak mihian.
Nork ezagut nagola ikhazkin mendian?

Osagarria banu zenbait urthez hola.
Zahartzean utz niro mendiko etchola;
Ene moltsa luzea bethe dudanian,
Zertako naiz egonen ikhazkin mendian?

Pierre DIBALART

Baigorrikoa.

chambre et d'imp. 7012/2012

Amerika, Espainia eta Frantzia

Donapaleüko Trinketean — Uztailaren 28^{an} 1895^{an}

Airea : **Ai, ai, ai, Muthillak**

Pilotari handiak zembat ikhusgarri
Trinket eder batean direnean ari,
Munduko hoberenak ikhusiko sarri.
Ai, ai, ai, muthillak, ikhusiko sarri (*bis*)

Ameriketarikan baditugu yinak,
Gure anayak dire. *Frantses Eskualdunak*.
Españatikan ere hirur azkarrenak.
Ai, ai, ai, muthillak, hirur azkarrenak (*bis*)

Biba *Mendilaharxu* Ameriketarra,
Pilotari guzien errege zaharra,
Zure kontseilu onen badute beharra.
Ai, ai, ai, muthillak, badute beharra (*bis*)

Zer erranen derakot *vasquito* gaitzari ?
Haranederrek berak aihortua niri :
« Gizona baino zerbait gehiago da hori ! »
Ai, ai, ai, muthillak, gehiago da hori (*bis*)

Vazkitoren ondolik horra nun den *Nene* ;
Trinketean badaki harrapatzen gune ;
Ardurenetan dio : « kintzetto hau ene » .
Ai, ai, ai, muthillak, kintzetto hau ene (*bis*)

Utziko nau ertera *señor Larrañagak* .
Orai arte etzuen parerik Jauntto hak,
Bainan agertzen dire bethi Jaunen Jaunak.
Ai, ai, ai, muthillak, bethi Jaunen Jaunak (*bis*)

Berekin ekarrifu *Aizarn-Aldacharren* ;
Aizarna egile da ukhaldi ederren ;
Beldurtiago izan bertze lagun baren.
Ai, ai, ai, muthillak, bertze lagun haren (*bis*)

Ez haut ez gutienik ahantzia *Ciki* ;
Nork du pilota yoiten hik baino hobeki ?
Adineko nausi haiz... Ez othe zauk aski ?
Ai, ai, ai, muthillak, ez othe zauk aski (*bis*)

Gaztena-re delakotz, azken *Etchehoury* ;
Zer besoa derankan nahiz gazte, guri,
Numbait lehen yan duke aphez salda gori !
Ai, ai, ai, muthillak, aphez salda gori (*bis*)

Donapaleütarrer atchik amodio.
Gutarik urruntzean ez erran « adio »,
Bainan eskuak hartuz : « *Best' urthe artio !* »
Ai, ai, ai, muthillak, best' urthe artio (*bis*)

PIARRES, Artzaina. (*Culb. d'ast*)

M. Laurent JUNTE se recommande par l'excellence de ses gâteaux

VINS FINS & LIQUEURS

GATEAUX DE NOCE, DE DESSERT ET DE TOUTES COMMANDES

✠

MIŠIO SANTUETACO CANTA ETA BARCAMENAC.

MIŠIOCO DEYA.

*Atoz, peccataria,
Atoz Eleizara,
Jaungoicoaren itza
Gogoz aditzera.*

Pecatuen neurria
Bete ez dezazun,
Aditu Jaungoicoac
Zer esaten dizun.

Ez egon peccatuan
Ez egon luzaro,
Damu izan ez dezazun
Alferrican guero.

Pecatuan oera
Etziten bacera,
Benturaz infernuan
Esnatuco zera.
Urteric asco Jaunac
Zuri eman dizu,
Eta danac peccatuz
Zuc bete dituzu.

Mišioco demboraz
Baliatu gabez,
Daude, bai, infernuan
Gaur asco negarrez.

ANDRE MARIARI ESCARIAC.

1 Pecatarioe Ama,
Virgiña, zaitugu:
Zugan gure biotza
Guc ipintzen degu.
*Eguizu zuc, Maria
Gugatic erregu,
Eriotzaco orduan
Ez gaitezen galdu.*
2 Zure icen santua
Balia bekigu,
Zure biotz onean
Ustea guc degu. *Eguizu.*

3 Seculan inor ezta,
Ta bai, Maria, zu,
Ama izan ezkeru
Doncella guelditu. *Eguizu.*
4 Jaungoicoaren Ama
Eguinic zacusgu:
Arren zure semetzat
Ezagun gaitzatzu. *Eguizu.*
5 Zure semeac gaitu
Zerutic billatu:
¿Nola zuc naico dezu
Gu gaitecen galdu? *Eguizu.*

JESUS GURUTZEAN JOSIARI.

Jesus gure Jaun maite
Amoriotsua,
Damu degu gucioc
Zu ofenditua.
1 Josiric icustean
Gurutzet orretan Zu,
Urricarriz biotza
Nore urratuco ez du?
Baita baleuca ere
Arri biurtua. *Damu.*
2 Burutic onetara

Gorputz eder ori
Zauri bat eguinican
Dezu guci ori.
¡Ay! zori gaiztocola
Gure peccatual *Damu.*
3 Onac esen ta alboa
Burniz zulaturic,
Bizcar-aldea azotetz
Dana zatituric:
Aranza gogorraquin
Josiric burua. *Damu.*

4 Aimbeste min gogorrez.
 Eriric zerala,
 Artzai bat ardiaren
 Ondoren bezala,
 Gure billa zabilta
 Erruquiz urtuá. *Damu.*

5 Jesus zu gure billa
 Ta ¿guc igues zuri?
 Gure bear zerala
 Zu, Jauna, dirudi.
 ¡O guizon esquer-gabe
 Gaizto zoratua! *Damu.*

JESUS-EN BIOTZARI.

¡Oh Biotz santu
 Maitatiya!

Zu gure Erregue
 Jaun aundiya.

1 Guacen, cristauac,
 Ain da munduan
 Nola zeruan
 Agurgarri.
 Guacen, guc ere
 Adora zagun
 Ta alaba zagun
 Biotz ori.

2 Zu zera, Jesus,
 Maite maitea,
 Nere Jabea
 Ta Jaincoa.
 Natorkizu ni
 Naigabeturic,
 Ta oso umilduric
 Zere aurrera.
 3 Sutturic zaude
 Beti guizonen,
 Naiz gaiztoenen
 Amorean.

¿Zergatic, Jauna,
 Su-gar biziac
 Dauscatzu ichiac
 Biotzean?
 4 Zabal itzatzu
 Gar eder oyec.
 Lurreco loyec
 Kiscaltzeco.
 Beguira, Jauna.
 Gaistoen lana;
 Ai dira aldana
 Gaitzeraco.

SALVEA EDO AGUR-ONA.

Jaungoicoac salba zaitzala Erreguina
 Misericordiaren Ama.
 A. Bicitza, gozotasun eta gure
 esperanza,
 Jaungoicoac salba zaitzala
 Zure deyez gaude
 A. Evaren ume desterratuoc
 Zu-gana gaude suspirioz
 Sentimentuz eta negarrez
 A. Negarrezco balle onetan
 Ea bada, Señora
 Gure Abogada
 A. Itzulizatzu gugana
 Zure begui misericordioso oriee.

A. Eta destierro au igarota
 B. Eracutsi eguiguzu Jesus.
 B. Zure sabeleco frutu,
 B. Bedeincatua.
 AA. ¡O clementisima!
 AA. ¡O piadosa!
 B. ¡O dulce Virgíña Maria!
 B. Erregutu ezazu gugatic
 B. Jaungoicoaren Ama santa.
 AA. Mereci dezagun,
 B. Alcantzatzea,
 A. Jesu-Cristoren promesac.
 B. Amen Jesus.

Jaungoico Santua,
 Jaungoico Indartsua,
 Jaungoico Illezcorra,
 Gaitz guztietatic
 Libra gaitzatzu, Jauna.

AZKEN-AGURRA

AMA VIRJIÑARI.

1. Agur Jesus-en Ama,
 Virgíña maitea!
 Agur ichasoco-izar
 Diztiatzallia:
 Agur, Zeruco Eguzki
 Pozkidaz betia,
 Agur, pekatarien
 Kaya ta estalpia.
 2. Agur, guizonen Ama,
 Zeruco Erreguina,
 Ama gozo chit maite
 Amorezco piña!
 Zugandic juatea
 Gauza da samiña...
 Agur, nere biotzeco
 Poz eta atseguina...

3. Agur, gure poza ta
 Atseguin guztiya,
 Atsecabe danetan
 Gozakai eztiya!
 Agur, Virgíña eder
 Chit zoragarriya!
 Ar-zazu biotza ta
 Torizu biciya!...
 4. Baña zugandic alde
 Biotzac ecin du;
 Zeregana dijoa,
 Zugan bici nai du:
 Virjin paregabea,
 Bedeinca nazazu:
 Agur, Ama nerea,
 Agur, agur, agur...

Aita santuac, Jesusen Compañiacoac eguiten dituzten
 Misioai, emandaco barcamen edo indulgenciac.

OSOAC. 1.º Entzunic bost sermoi edo icasiquizun, confe-
 satu eta comulgatuaz erregutzeagatic Aita santuaren in-
 tencioraco. Au bera irabaci lezaquete gaisoac, errezatzea-
 gatic misiora joatearen ordezes confesoriac aguintzen diye-
 na. Egiteagatic comulgatzen ez diran gaztechoac confesori-
 ac aguintzen diotena. 2.º Confesatu eta comulgatzeagatic
 eriotzaco orduan, eta ecin bada, Jesusen icen gozoa esa-
 teagatic gogoz ta biotzez. 3.º Aita santu Pio VII.º ac emanda-
 coa. 4.º Comulgatzeagatic misiotic urrengo berrogei egun
 barruan. 5.º Berrero comulgatzeagatic sei illabete barruan.
 OSOAC EZ DIRANAC. 1.º Eun egunecoac eta gañera Erro-
 maco estaciocoac, estacio eguna bada, entzuten dan
 icasiquizun bacoitzagatic. 2.º Berreun egunecoac, sayatze-

agatic besteac ere joan ditecen entzutera. 3.º Amabost urtecoac, entzuten dan sermoi bacoitzagatic. 4.º Zazpi urtecoac ibiltzeagatic joaten icasiquizunetara. 5.º Eun egunecoac, iracorri edo azaltzeagatic echean, icasiquizunetan entzun dana. 6.º Berreun egunecoac, errezatzeagatic birtutean irauteco dagoan erregua, misiotic berrogei egun barruan errezatzen dan bacoitzian. 7.º Eun egunecoac, erregutzeagatic misioco Cristo gurutzuaren irudiyaren aurrean. Etc.

Misiolari Aita santuaren escubidea dauqueenac bedecatutaco errosario, gurutze eta medallac dauqueen barcamen edo indulgenciac.

OSOAC. Comulgatzeagatic emen urrengo dijoacen egunetan; Jesu-Cristo gure Jaunaren jayotzean, Erreguenez, Ascencioz, Pazco Espiritu santucoz, Trinidadez, Gorputzes, Conceciyoz, Maria Virgiñaren Jayotzean, Candelarioz. Andre Maria marchocoz, Asunzioz, San Juanez, San Joses, Apostolu santu guztien egunetan, eta Santu guztien jayan. Eta oec irabazteco, biar da errezatu guchienaz astein bein errosario santuaren irugarren parte bat edo meza entzun, edo gaisoac edo presoac bisitatu, edo dotriña eracutsi, erregutzen dala bacoitzean Aita Santuaren intencioraco. Beste indulgencia oso bat eriotzaco orduraco, Sacramentuac artu ecin badira, Jesusen icen gozoa esateagatic.

Barcamen oec irabazteco bear dira aldean euqui errosario edo beste gauzac, edo herarequin errezatzea. Bein artu ezquero norc berezat gauza bedecatatu oec, ecin leiquiozque eman oen graciac besteri. Galtzen badira errosarioen gurutzea edo granoen batzuec, berritu leizque, indulgenciac galdu bague.

CANCIÓN DE COSTURERAS

CORO

Conforme voy cosiendo
Contemplo ¡Oh buen Jesús!
Los crueles instrumentos
De tu Pasión y Cruz.

Estrofa 1.^a (Duo)

El *hilo* me recuerda
Las *sogas* con que atado
Fué mi Jesús llevado
De Poncio al tribunal.

2.^a

El ruido de la *máquina*
Me dice que *azotaron*
Y cruelmente llagaron
A nuestro Salvador.

3.^a

En el *dedal* contemplo
La *corona* de espinas,
Que las sienas divinas
Punzó con gran crueldad.

4.^a

Semeja la *tijera*
La *Santa Cruz*, que es llave
Y abrir las puertas sabe
Del reino celestial.

5.^a

Veo en los *alfileres*
Los *clavos* inhumanos,
Que los pies y las manos
Clavaron al Señor.

6.^a

La *aguja* representa
La *lanza*, que el camino
Abrió al pecho divino
De nuestro Redentor.



JOSTUNEN KANTUA

CANCIÓN DE COSTURERAS

(Eun, 2,50 p.)

Durango'n Elosu'ren Et'sean

1915



Emen nau ka zu Jan na kan ta ri ta jos ten

Ze ro rren Pa si ñu a go ra tu ti a rren.

Emen nau ka zu Jan na kan ta ri ta jos ten

Ze ro rren Pa si ñu a go ra tu ti a rren.

Bikar A ri ya gaz jos ti an ya tori go ma ta

ra, ya rri zin du e za la ka ti az lo tu

ta. A ri ya gaz jos ti an ya tori go ma ta

ra, ya rri zin du e za la ka ti az lo tu ta.

JOSTUNEN KANTUA

JOSTUNKIDIAK

Emen naukazu Jauna
Kantari ta josten
Zerorren Pasiñua
Goratutiarren.

1. Bikar.

Ariyagaz jostian
Yatort gomutara,
Yarri zinduezala
Katiaz lotuta.

2.^a

* *Chirriñorratzen* otsak
Dakaste burura,
Bost milla *zigorkadak*
Artu zenduzala.

3.^a

Atz lodiko *titaran*
Dacust *koroi* antza,
Zeure burua arantzez
Zauritu ebana.

4.^a

Kurtze Santua dakust,
Artasi idigiyan,
Bertan pekatuakaz
Josi zinduezan.

5.^a

Orratzak dirudie
Untze zorroztuak,
Josi eutzuezanak
Esku eta oñak.

6.^a

Yostorratzian dakust
Lantza eskergia,
Zabal ichi eustana
Biyotz ain maitia.

(Jaubea dau)

+ Or igne
i quisi



Emen gatoz danok pozez
Azkoitiko erriya,
Kardaberazi ematera
Ongi etorriya.

1

Ementse bizitu zan
Urte bat osua,
Ezagutzen zuten bai
Gure gurasuak;
Kali auetan beretan
Ondo ikusitakua,
Aingeru bat bezelase
Danak maitatua.

2

Maitia baldin bazan
Azkoitiarrentzat,
Askoz maitiago zan
Jesukristorentzat;
Agustin autatu zuben
Jesukristoren biotzak,
Españiyan zabaltzeko
Bere erregetza.

3

Azkoitiko erriyak
Agustin sinistu,
Len bezel bezelase
Orain maite zaitu;
Argatik zure etorrerak
Danok gaur poztutzen gaitu,
Guraso ayen umiak
Ementse gauzkatzu.

Cantique composé en l'honneur Imp. de M.
de l'Ascension des âmes saintes à Lourdes et
envoyé à l'empereur d'Espagne en ce moment.
là (4 mai 08) en résidence à St. Valer.

JAUN APHEZPIKUARI

Kanta hunen airea :

Ez dut ikusi, ez dut ikusi zu bezalakorik.

Lehenik kantari batek :

Ongi ethorri, ongi ethorri,
Jaun Aphezpikua.
Zu gure artzain nausi
hambat maitatua.

Guziek :

Ongi ethorri, ongi ethorri, etc.
(*Errefau hori bera*).

Batek :

Elizako Printzea,
gure artzain ona,
Egiazki zu zare
Jainkoaren gizona.

Guziek :

Ongi ethorri.....

Batek :

Zure haur fededunak
gaitutzu guziak
Aita Sainduarekin
zurekin josiak.

Guziek :
Ongi ethorri.....

Batek :
Izpiritu Saindua
zerutik lurrera
Zuk duzu jautsarazten
arimen gainera.

Guziek :
Ongi ethorri.....

Batek :
Zuk dituzu ordenaz
aphezak sakratzen :
Konfirmazioneaz
Kristauak azkartzen.

Guziek :
Ongi ethorri.....

Batek :
Zuk dituzu ordenaz
aphezak sakratzen :
Konfirmazioneaz
Kristauak azkartzen.
Bayonne. — Imp. Lasserr

Jainkoaren Ama !

Jainkoaren Ama, ama guziz ona,
Zaitzagun maitha bethi, bethi,
Zaitzagun maitha bethi, bethi.

1. Guganik omaiak onhets ditzatzu
Guganik lanyerak urrun ditzatzu
Jesusek bethizu entzuten baitzaitu
Bethi, bethi.
2. Zure bethuteak errepikatzen
Ez zeru lurrakez dira baratzen,
Gu ganik eskerrak ditutzu segurak
Bethi, bethi.
3. Gure flakeriek zure bihotza
Dute erdiratzen, samurra baita,
Gutaz izan zazu oi ! urrikalmenu
Bethi, bethi.

Othoi Ama Maitea.

1. Uholde baten pare
Orai bekhatu ak
Gaindiz bazter guziak
Ditu hondatuak
Nun dire fededunak
Nun dire justuak
Azken eguna hurbil
Othe du munduak.

Refrain

Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu ;
Jaunaren hasarrea
Othoi eztizazu. (bis)

2. Nor da gure artean
Erran dezakenik :
« Ez naiz ni deusen beldur,
Nik ez duk hobenik. »
Zuk dirozu, Maria,
Hain garbi izanik.
Gure grazia ardiets
Jaincoaren ganik.

Nous voulons Dieu !

1. Nous voulons Dieu ; Vierge Marie,
Prête l'oreille à nos accents ;
Nous t'implorons, Mère chérie,
Viens au secours de tes enfants.

Refrain

Bénis, ô tendre Mère, ce cri de notre foi,
Nous voulons Dieu, c'est notre Père, *bis*
Nous voulons Dieu, c'est notre Roi. *bis*

2. Nous voulons Dieu car les impies
Contre son nom se sont ligués
Et dans l'excès de leurs furies
Ils l'ont proscrit, les insensés !
3. Nous voulons Dieu dans nos écoles,
Afin qu'on enseigne à nos fils
Sa foi, ses divines paroles,
Sous le regard du crucifix.
4. Nous voulons Dieu pour que l'Eglise
Puisse enseigner la vérité,
Bannir l'erreur qui nous divise,
Prêcher à tous la vérité.
5. Nous voulons Dieu ! De sa loi sainte
Jurons d'être les défenseurs,
De le servir libres, sans crainte,
Jusqu'à la mort, à lui nos cœurs.
6. Nous voulons Dieu ! Le ciel se voile,
L'ouragan monte sur les flots ;
Brille sur nous, ô blanche étoile,
Conduis au port tes matelots.
7. Nous voulons Dieu ! Que sa clémence
Exauce nos ardents désirs ;
S'il faut du sang pour sa défense,
Seigneur, nous serons tes martyrs.
8. Chrétiens, notre antique alliance
Renouons-la dans ce saint lieu,
Et crions au nom de la France :
Oui, Dieu le veut ! Nous voulons Dieu.

br



VERSO BARRIAC

San Vicentearen Vicitziari Jarriac

Ay neure cristinauac
gure neunque esan
San Vicente patroya
nungo semia san:
Patroy au sortu eban
Cristoc Zaragozan
Mundu au igarota
dago ceruetan.

Esplicau gure neunque
naturalezea
bay eta bide batos
bere bicitzia:
baquit esin neyena
esplicau gustia
San Vicente isensan
martiri maitia.

Ay eguin beleitiques
cerutic etorri
Añgueruec emoten
ejempluec gueuri:
zeñen arguifasunec
egon siren garbi
esquerrac emoteco
Jesus maiteari.

Santu miragarrisco
onen bicitzia
esda bada posible
nic espliquetia:
gastechuric euquen
berac siñistia
celan amau biardan
Jaungoico matia.

Zaragozaco eche
principalenian
jayo san San Vicente
mundu sabalian:
guraso aberatz da
nobliaren artian
ondasunic onena
euquen viotzian.

Jayo san San Vicente
sorionecoa
Cristoren servitziari
pare bagacua:
ondo ametiarren
Jaun amorosua
San Vicente icen san
martirisaucua.

Jaungoicoaren bildurta
crianza onian
gurasoac umia
asi eudenian.
Obispoari entregau
gastechu sanian
Jesusen dotriñia
icasi deyan

Ango Obispo Jaunec
dirautzo Vicente
diaconau ein saites
ordu onetanche:
fedia sabalduten
laster asi saite
neure ordes iminten
saitudes Vicente.

Neure ordes suc ondo
predicaucos dosu
neuc edade andie
dodana baquisu:
Jaungoicoari graciec
eñegas escatu
bere aguindu santue
eguingosu betatu.

Eutzi bendeciñoa
Jaungoicoaren partes
fedia iracasten
laster asi saites:
eutzis escubidiac
neure borondates
fedia predicaisu
valerioen partes.

Seinbat jentil ereje
ditus convertidu
lenago diabru
eguiñec serbidu:
bere aurrera datos
negar dasispuru
penitenci santue
eguiten cumplidu.

Biotzeco damute
contrisiñoagas
Jesus adoretaco
proposituegas:
fedia yagoteco
gogo firmiegas
convertidu situsen
bere sermoyecas.

Santu onen famia
sabaldu sanian
gente asco parausen
Jesusen leguian:
urte atan eguan
bera Valencian
oraiñ aurquitutenda
Jesusen echian.

Zaragozatic ara
burdinas cargauric
eroan eben Vicente
baña joyan posic:

echacon tristetuten
batbere biotzic
bere irabastiac
eseuquela utzic.

Bicitzia emoten
Cristeren amores
ascoc esangodegu
esdagola erres:
Vicentec emon eben
cantetan da barres
Dasiano falsoaren
esan ic eguiñ es.

Icusi ebenian
aurrian Vicente
Dasianoc dirautzo
jea! postu saite:
parauco salacuan
fedia galdute
berba falsoac esan
ondo conpondute.

Emperadore jaunen
esana eguisu
gustis estimadue
isengo sara su:
ser jan eta ser edan
faltauco echatzu
seure oponiñoa
larguetan badosu.

Sara odol oneco
eta ilustria
prudente jaquitune
galant da gastia:
gueure bisimodue
gustis da tristia
lastima derechatzu
olan icustia.

Onec prenda gustioc
ceuc euqui esquero
orrrenbeste tormentu
eseisu igaro:
gastia sariana
baquisu ondiño
gestosu oba bici
tormentus ill baño?

Dasiano alperric
cansetan sara su
onian es gachian
birauco es nosu:
infernuco pestie
asmo asco ditu
Jesus baño obaric
nin onei billatu.

Diabruenac dire
seure consejuec
engañau gure seunques
arima santuec:
inder andiec deuques
seure pecatuec
contus tragau esaisan
bertan infernuec.

Amurrutue legues
bitze dariola
berdeguec dirautzo
tormentau deitela:
isen gure espadeu
beretzat leala
amarrau daquiola
oñetan cordela.

Oñac eta escuec
tornuec loturic
atara eyosues
asurrec lecuric.
iñoc amau esdeyen
Jaungoicotasunic
penaric cruelenac
emongo deutzedas nic.

Bere asurtristiac
eguiñic locatu
alan da bere dago
Vicente contentu:
asurren gracadacas
gentia bildurtu
lurrera jausten siren
eguiñic larritu.

Animoso Vicente
eguan bacarric
diabruen asmuec
gustiec alperric.

beretzat estagola
bide erraturic
diao se esteuquela
beste tormenturic.

Galsaidusco erpia
ondo sorrosturic.
burutic biatzerá
dana arrascauric:
bere saietz tristiac
deucas aguerturic
¿nor da Vicente legues
martiriyaucoric?

Bere gorputz santue
llaga bat eguinic
galsaidusco erpiacas
dana suloturic.
euqui espasenduen
Jaungoicotasunic
esin euqui seunquian
iños contenturic.

Besigue parrillan
erreten dan legues
catzagas erre deude
penas da dolores:
icusi albadeye
Vicente negarres
euren asmugustiec
sirian alreves.

Aunque emon deutzian
aimbeste tormentu
siñistera falsoric
esteu gure artu.
Dasiano falsoac
bai laster aguindu
carcela illun baten
ein deitela sartu.

Laster erruquituric
Jaungoico maitia
nun biralduten deutzan
añgueru tropia:
esala convenidu
alan egotia
orra argui te eder
carcela gustia.

Orduen Dasiano
doa aguinduten
basora eroateco
pistiec jan deyen:
bela eder bat dago
Vicente yagoten
pistiec jan esteyen
guardie eguiten.

Dasianoc barriro
aguinduten deutze
ichasora botateco
Vicenten gorputze:
baña bere asmue
gustie san utze
Jesusec atera deu
errire Vicente.

Arrañec jan deyan
enterrau orduco
bestela cristiñauac
deude adorauc:
infernuc diabrucc
asmo asco dauco
munduco cristiñauac
beragan duteco.

Erri ataco jentia
eguiñ sen preparau
Valenciaco partian
eiteco enterrau:
Jesus amorosuac
gentia enterau
eleisa santu atan
eiteco adarau.

Jesucristo guecbere
albau guro degu
Vicente bitarteco
iminiten dogu
Jesus maitia dala
gustiaren buru
ceruen dagoana
ya dago seguru.

Millata sortzireunde
irurogueta amasapi
San Vicente
ecarri san Abandoti:
gentiac eguiñ deyen
adorrau gogoti
bere legue santue
gordetia gaiñ

Ceruco Jaungoicoaren
misericordie
bere debotoa rentzat
gustis de andie:
biotz umildiagas
eguiñ escarie
alcansau gure bada
ceruco glorie.

Baguillaren ogueta
amargarrenian
San Vicente sartu sen
lauquinisgo lurrian.
orain eleisan dago
Jesusen aurrian
gure deuen gustie
adorau dejan.

Santa Luci egune
señaladamente
lau acheruguesdator
bay gure Vicente:
bere Santu ederra
erdien artute
escuec eta oñec
ondo odoldute.

Santu au ecarrie
Vicente Gorriño
lauquinisgo echabaten
bicide ondiño:
servidu naideuenac
Jaungoicoa ondo
ser eguin biardeuen
San Vicentec diño.

BERTZU

BERRIAC

Airea : *Lau Pondutan*

1^{er} Couplet

Bertzu berri batsuec baitugu arrantzen
Ustecabian suyeta nola den aguertzen
Holacoric basela etzuten pentzatzen
Ur estico anguirari ni ez naiz fidatzen.

2^o Couplet

Herrico gasteria baitzat asaldatu
Errechqui esbaititut gaichoa contzolatatu
Humil humila ditut denac obeditu
Bertzelas tincaldibat behar nuen hartu.

3^o Couplet

Andanabat banuen hascarqui edanac
Cabessa tzarrian ere nintuen emanac
Batzu makiléquilan bertse batsuec canac
Heyen erdian nintin beras ene lanac.

4^o Couplet

Bi presuna gastetto saiscu esposatu
Afruntu horren isaitea ontza sen becatu
Suéta urrun eta manac esditu aitu
Bertzela behar cosen escontza guibelatu.

5^o Couplet

Uso bat auzatzen suen Doniouané Garazin
Harren idera ere bihotzian bazin
Cabesatuta utzi balu eta lan hoi es in
Bertze graciarekin familian isanen tzin.

6^o Couplet

Bi urteren hintzua suen atchikitzen
Herritic quartiererat maisco sen ibiltzen
Ihistari habil hori hamarrus betia sen
Lau uso situenian betan enganatzen.

7^o Couplet

Sare hascar batzuec baititu hedatu
Bi uso hatzeman tu bertziac especatu
Bat segurican baitu ederki colpatu
Bere conkestarekin etchean saio isatu.

8^o Couplet

Bichitas ustaritzen baitusu isatu
Guison gueyaren berriac bentitu galdetu
Nola esposatuden ongui du aditu
Harren bihotza es da beraz gaiski transitu

9^o Couplet

Guison geyaren etcherat baitusu guidatu
Amari semia nun duen baitio galdetu
Harrec semeric es duela o.mendio ukatu
Ederrago eguinen suen balio auhatu.

10^o Couplet

Ororen buruan da hau gauze ederra
Ene ustez su sinen ene ama beharra
Huna nu dela suré semiaren alaba
Sembet aldis pasatu du enekin egun eta gaba.

11^o Couplet

Huna nun duan harrec igorri potreta
Beguien bustitzeco huni behatu eta
Haisé enganatu nu gaicho inocenta
Ni enin dasqué tranquil lan hori eguin eta.

12^o Couplet

Lehen saharretaric bainuen aditzen
Heyen contseiluones oraino naiz orhoitzen
Liburu saindua dut guerostic iracurtzen
Fede ukaturican es dela salbatsen.

13^o Couplet

Othoitz eguiten diot ama birjinari
Graciac ichur deitzan Ustaristar gastieri
Batto guichacoua dute arrontzerat igorri
Bere obretarikan orai da agueri.

14^o Couplet

Gasteria sartu dut alegrantzietan
Hobe dela ontza eguitea gausa gusietan
Tranquilki ibitzeco nescatcha gastietan
Bainan es eguiteco holaco lanican.

15^o Couplet

Bertsu hauc emaiten tut in ahala oneski
Suyetaren arabera es dut aipatzen gaioki
Bertze sombaiten sanya ere etor ditake labuski
Es badira gobernatzan hoi bainon hobeki.

16^o Couplet

Bertzu hauen emailea es dut declaratzen
Selhay baten erdian maiz da promenatzen
Mendirican es baitu secular ikusten
Es badu segurican larga bista hartzen.

VANITAS VANITATUM

LURREKO GAUZEN FUNTS GABETASUNA

1. Arkitzen nintzan kampo santuan
Ichiltasunen erdian,
Eta bakárrik, bai ! ain bakarrik
Aimbeste jenden artian !
Dena estalija gurutz-autsi bat
Nekusan alde batian.
Eta apainduba urrezko letraz
Beste bat zeukan aurrian.
2. Arrek zekarran uda-berriak
Zabalzen duben belarra
Eta onek berriz ostu eroridun
Arbol aundien adarra ;
Laguntzik gabe bakardadean
Etor zitzaidan negarra.
An zegolako gurutzetchua.
Choko batian bakarra ;
3. Eta chorijak egun sentian
Ipintzeko kantatchoak
Bildutzen ziran jatera bere
Gañean zeuden kardoak
Bestera numbait etziran juaten
Ikusirikan gaichoak,
Zinta orridunak, argijak eta
Gañera berriz koroak.
4. Zer da lurreko bizi au, nijon,
Jasorik gora begijak ?
Eta begijak itchi zizkidan,
Ordubanchen eguzkijak.
Illuntasunan gelditu nintzan
Itchuturikan argijak, ...
Orduan jakin nuen zer diran,
Lurreko gauza guzijak !

FRANCISCO LOPEZ ALEN,

Donostiarra.

VANITÉ DES CHOSES DE CE MONDE

Me trouvant au milieu du silence du
Champ-Saint (Nécropole);
Et seul oui ! bien seul, parmi cette
Multi'tude !
J'aperçus d'un côté une croix cassée
Et, en face, se trouvait une autre croix
Ornée de lettres d'or.

Celle-là ombragée par l'herbe
Que le printemps propage ;
Celle-ci par la branche de l'arbre
Aux feuilles tombantes ;
Tout naturellement, dans la solitude,
Je me mis à pleurer
Parce que la petite croix était seule
Là-bas dans un coin.

Et les oiseaux, à l'aurore,
Pour moduler leurs chants
Se réunissaient et allaient becqueter
Les seneçons qui y avaient monté en graine ;
— A l'autre croix ils n'allaient point
Parceque, ils y voyaient (les pauvres bêtes !)
Des rayons feuillus, lumineux,
Et, de plus, des couronnes.

Qu'est la vie sur cette terre ;
Disais-je, en élevant les yeux ?
Aussitôt le soleil me ferma les yeux ;
Je demeurai ainsi dans l'obscurité,
La lumière m'ayant aveuglé (ébloui)
J'appris alors ce que sont toutes
Les choses de la terre !

FRANÇOIS LOPEZ ALEN,

de Saint-Sébastien.

CHORICHUAK

AKREA: Aita Meagerrek Arduari jarritako moldaerarena.

1. Chori chikijak kantari
Gustora oi dira ari,
Uda berrijan pozak,
Nombait oijen bijotzak
Alaiturik dira jarri,
Naiz neguan izan larri.
2. Ona danian etortzen
Charra zaijote azutzen ;
Gaichuak beren penak
Gisa orretan denak
Dituzte laister lajatzten
Pipirripika kantatzen.
3. Oijen pipirripik uak,
Oso dira estitsuak ;
Goizian goiz kampuan,
Chara edo basuan,
Biligarro ta chochuak
Dituzte kanta gozuak.
4. Batzubek kabi prestatzen
Bestiak jankai billatzen
Sajatzen dira orla,
Bañan ezdakit no'a,
Gaichuak diran moldatzen
Beren umiak azitzen.
5. Azirik, aman atzetik
Egutzen dute kabitik,
Jankai billa laguntzen
Dira amak ibiltzen,
Ume maitian ondotik
Erakustiaren gatik.
6. Amak beren ondotikan
Ibiltzen dira pozikan,
Naiz gero eskerrikan,
Umiaren gandikan,
Askorik ez izanikan
Gaichuak pena baizikan.
7. Alda min aundijagorik
Ama batentzako danik
Umiak azitzia
Ta gabe gelditzia
Denak galdurik, bakarrik,
Bere maitiak izanik ?
8. Umiak billatu naijan,
Zoratu zeko zorijan,
Ibiltzen dira amak
Igarorikan lanak
Sentirik bijotz erdijan
Inola ezin etrijan.

PELIPE CASAL OTEGUI,
Donostiarra.

LES PETITS OISEAUX

Les petits oiseaux chantent allègrement,
Malgré les soucis de l'hiver,
Lorsque le printemps, comble leur
Cœur de joie.

Le bonheur de l'heure présente,
Leur fait oublier les mauvais temps de naguère :
Les pauvres ! mettent vite un terme à leurs
Peines et ils envoient aux échos leur
Pi-pirripi répété.

Leurs Pi-pirripi sont agréables à l'oreille ;
Dès le matin, aux champs, dans les taillis et
Dans les bois, les grives et les merles entonnent
Des chants qui nous charment.

Tandis que les uns bâtissent leurs nids,
D'autres vont chercher la pâture ;
C'est ainsi qu'ils s'évertuent,
Et je ne sais comment ils s'y prennent
Pour nourrir leur progéniture.

Dès qu'ils sont suffisamment forts, ils quittent leurs
Nids, ils s'envolent et ils suivent leur mère ;
Celle-ci aide ses chers petits
Et leur apprend à chercher
Leur nourriture.

A ce travail la mère y va allègrement,
Bien que, de la part de ses petits,
Elle ait à attendre plutôt des chagrins
Que de la reconnaissance (des satisfactions).

Est-il douleur plus grande
Pour une mère que celle d'élever des petits
Qu'elle chérit, et de rester seule, après
Les avoir perdus ?

Dans le but de les retrouver, elle part
Affolée, et, poussée par l'instinct
Maternel, elle parcourt l'espace
Sans paix ni trêve.

PH. CASAL OTEGUI,
de Saint-Sébastien.

MUTHIL ZAHAR BAT BERE MAHASTIAN

AIREA: Adio izar ederra, Adio izarra!

1. Aitak eman zerautan zerurat juaitean
Enetzat mahastia hartzeko lanean;
Artha nezala,
Aitak bezala
Haïntzur eta jorra,
Laguntzat hor nuela.... *sotoko ophorra.*
2. Etche churi ttipi bat badut mahastian,
Sagar, udare, phiko, mertchiken artian,
Etch'aïtzinean.
Loren erdian,
Baratze alhorra,
Dutchuluaren pean.... *sotoko ophorra.*
3. Mahastian choriek goiz dute kantatzen,
Orduan bozkarioz lanari naiz lotzen;
Gero zait hasten
Bihotza hozten
Agortzen zintzurra,
Laster dut eskuratzen.... *sotoko ophorra.*
4. Ezdut hiritar gisan gosari ttikia:
Bichkotchatto batekin edari bichia;
Nik dut ogia
Achal gorria,
Bai gasna gogorra,
Eta arno churitik... *sotoko ophorra.*
5. Neguan ez da deusik eder mahastian,
Aldachketan molkoak agertu artian;
Ikusiz h tan,
Osto artetan,
Larritzen pikorra,
Nola ahantz de.aket.... *sotoko ophorra.*
6. Igandetan debotki meza dut entzu'en;
Gero lagun onekin p'azetan jostatzen
Han dut aditzen
Nitaz erraiten:
« Zez muthil gothorra!
» Ez ahal dik hastio.... » *sotoko ophorra.*

LE CÉLIBATAIRE DANS SA VIGNE

En quittant cette terre, mon père me légua
Sa vigne, en me recommandant de la travailler
Soigneusement,
Comme il le faisait lui-même:
A la bêche et au sarcloir,
Tout en ayant là pour compagnon.... *l'écuelle du cellier.*

Dans la vigne, il existe une maisonnette blanche,
Et devant la maisonnette,
Entourée de fleurs,
La terre labourée du jardin....
Et, au pied du fossé,.... *l'écuelle du cellier.*

A la vigne les oiseaux chantent à la première
Heure, c'est alors que j'attaque le travail,
Et dès que mon ardeur se refroidit
Et que ma gorge s'altère,
Je saisis prestement.... *l'écuelle du cellier.*

Je ne fais pas comme le citadin qui, avant de
Déjeuner, absorbe un biscuit trempé dans la
Boisson vive (eau de-vie);
J'ai du pain à la croûte dorée,
Du fromage dur,
Et du vin blanc (plein),... *l'écuelle du cellier.*

L'hiver durant, la vigne n'est belle
Que lorsque les grappes apparaissent aux branches;
En voyant, entre les feuilles,
Grossir les grains,
Comment puis je oublier.... *l'écuelle du cellier.*

Le dimanche, à la place, ayant ouï la messe,
Je m'amuse avec de bons compagnons;
Là j'entends que l'on dit de moi:
« Quel solide gars! »
Il ne doit pas haïr.... *l'écuelle du cellier.*

7. Gorphutza baitut sano, arpegia gorri
Hortako dute nitaz zerbait erran nahi,
Bainan ez naiz ni
Nihoz ibili
Oraino mochkorra,
Izanagatik maithe.... *sotoko ophorra.*
8. Badut moltsa luzebat urhez hampatua,
Hal'ere ezkontzeko lotsaz gelditua,
Beldur bainintzen
Gertha zadien
Andrea mokhorra,
Eta hauts ostikoka,... *sotoko ophorra.*
9. Ene gazte lagunak ezkondu direnak,
Haurrez betheak dire orai gehienak ;
Balute ere
Bertze hainbertze,
Eznaiz jeloskorra :
Haur hainitz bezain ondut.... *sotoko ophorra.*
10. Herriko zahar batzuk sotorat ethorritz
Han idukitzen naute lehertua irriz,
Konkorrek kanta,
Mainguek dantza,
Oihuka elkhorra...
Biba! zaharrak eta.... *sotoko ophorra.*
11. Burlaka hasten baita artzaina menditik,
Zaharrek errepostu mahasti gainetik :
To edantzak hik
Chirripakotik,
Gibel alde z gora
Guk husteko demboran.... *sotoko ophorra,*
12. Ophor hori ez baitzen andrentzat egina,
Hekier dut eskaintzen gathelutto bana ;
Hastio naute
Erraiten dute :
Donado zingorra !
Chehaturen ahal zaik..... *sotoko ophorra.*
13. Bertsu hauk egitean iphar-gochoa zen,
Sotoan hari nintzen arnoen aldatzen ;
Donado hemen
Zein ongi naizen,
Egin dut aithorra,
Tente chutik aldean.... *sotoko ophorra.*

PIERRE DIBARRART,

Baigorrikoa.

On a l'air de jaser de ce que j'ai le corps
Bien en chair, et le visage enluminé :
Pourtant jamais
On ne m'a vu marcher
Alourdi par l'ivresse,
Bien que j'aime.... *l'écuelle du cellier.*

Possesseur d'une bourse bien garnie d'or
J'ai reculé devant le mariage :
J'avais peur
Que ma femme
D'humeur acariâtre...
Ne rompit à coups de pied.... *l'écuelle du cellier.*

Mes camarades du jeune âge qui sont mariés
Sont presque tous chargés d'enfants ;
Quand ils en auraient
Le double
Je n'en serais point jaloux :
Plutôt que de nombreux enfants ma santé s'accommode de.... *l'écuelle du cellier.*

Lorsque quelques vieux du village viennent au cellier,
Ils me font éclater de rire :
Les bossus chantent,
Les boîteurs dansent,
Et le sourd crie à tue-tête :
Vivent les vieux ! et.... *l'écuelle du cellier,*

Aux brocards que de la montagne, leur adresse le berger,
Les vieux répondent du haut de la vigne :
Tiens ! bois si tu veux
A même le ruisseau,
L'arrière train en l'air....
Tandis que nous viderons ... *l'écuelle du cellier.*

Comme l'écuelle n'a pas été faite pour les dames,
A chacune d'elles j'offre le contenu d'un bol....
Elles me détestent
Et elles disent :
Vieux garçon, avare !
Puisse bientôt se briser.... *l'écuelle du cellier.*

Le zéphyr soufflait doucement tandis que je
Faisais ces vers et que je transvasais mes vins :
Célibataire ici
Je vis à mon aise,
Je l'avoue,
Ayant à côté, fièrement campé debout.... *l'écuelle du cellier.*

PIERRE DIBARRART,

de Baïgorry.

Michel Garicoïts Dohatsuari

23

Airea : Uholde baten pare

— Errepika —

Oi ! Michel dohatsua
Zuri oihuz gaude
Eman zaite zeruan
Eskualdunen alde

— 1 —

Heskual herria egun da bozkariatu
Mundu guzian ere berria hedatu
Oztibarre chokotik haur bat da agertu
Aphaldanik Jainkoak, gora du altchatu

— 2 —

Michel Garicoïts aita, Ibarren sorturik
Haurzelarik oraino pena pairaturik
Amikuzerat joan zen, Donaisti utzirik
Artzangoan jartzeko, bederen urririk

— 3 —

Anguelu etchaldean, Unaso gainean
Chuchen zabilan beti ber'eginbidean
Ardier beha bainan gogua zeruan
Gaineko deiak jo du haren bihotzean

— 4 —

Burhasoer erraiten « nahi dut apheztu
Aitak aldiz pobre nuk-ta nola nauk heldu »
Amachok hori entzun laster abiatu
Donapaulen ertora alde emaiten du

— 5 —

Lehenik hiri hortan, bai gero Bayonan
Nola kaskoin herrian, apezgai etchetan
Buru onekoa da gauzen ikastean
Eta bertutez aldiz, guzieren gainean

— 6 —

Egin duen ongia nork erran lezake
Larresoron eskolan apeztu-re gabe
Cambon bikarigoan, mirets ginezake
Geihenik Betharramen, Jainkoak lakike

— 7 —

Zombat maite zintuen hor Ama Birginak
Ikusiz zure kharra, moldatzean haurrak
Itzultzean arima errebelatiak
Ameriketan bertzez, Eskualdun galdiak

— 8 —

San Frantses balimbazen, Eskualdun sandua
Basterretan ibiliz fama handikoa
Zuk ichilik beiratu hemengo chokoa
Berdin ederki bildu, sari gainekoa

— 9 —

Zinion « ni deus ez niz, Jainkoa guzia
Harek bere tokia nik aldiz neuria »
Lañotasuna baita ororen nausia
Bide hortaz dukegu betiko bakia

— 10 —

Dembora hitsak ziren, zu jin zarenean
Fedea eman behar bide chuchenean
Orai ere baduzu gure eskualdean
Antolatzeke frango gure sinhestean

— 11 —

Zeru eder hortarik jar zaite begira
Eskualdunen artean ephelak baitira
Jauts ez dadin sobera fedea behera
Bihotzetan pitzazu arimen khar hura

— 12 —

Othoi ! Ama Birgina Betharramekoa
Onhets dezazu gure lehia saindua
Ager dadin hemendik Michel dohatsua
Beti gure laguna ta arartekoa.

Pèlerinage à Notre-Dame de Lourdes 27-28 mai 1923

Aller :

Départ de Saint-Palais	13 h. 12	
Arrêt à Bétharram	Arrivée à	17 h. 28
	Départ à	19 h. 30
Arrivée à Lourdes à	20 h. 30	

Retour :

Départ de Lourdes à	15 h.	
Arrêt à Pau	Arrivée à Pau à	15 h. 44
	Départ de Pau à	17 h. 20
Arrivée à Saint-Palais à	19 h. 59	

Prière de tenir compte que l'heure sera avancée d'une heure dimanche matin

CANTU BERRIA



1.

Milla çortci ehun eta hiruoit hamarrian,
Pertsu berri batçuec suyeten gainian ;
Errepublika naute hainitzek Frantcian
Trompatuco ahal dire oraico aldian
Ez alda holacoric içanen aguian.
Biba Emperadoria ! çau de'gure artian.

2.

✦ Louis-Napoleon Emperadoria,
Frantciako languillen contsolagarria,
Gure Aita çare çu, hunat ethorria.
Hainitzi eman gaitutzu yaterat oguia
Donibane-Ciburun ; cer diferentcia !
Laster hiñen baitugu portubat handia.

3.

Emperatriz Andria ! Amodios betheric
Bethi kurri çabilça pobrien ondotic ;
Ekaritate ithurria helduda çu ganic
Exemplu ederric beicre estuçü haurretic
Beharren sokorritcen eçautças guerostic ;
Millaka eskerrac çuri, gue Donibanetic !

4.

Jan-Luis printçia iduskien parda ;
Harren claritacia yadan agueri da :
Hamalau urthe ditu ; oraiño gastia da,
Guero eta guehiago arguitcen haico da,
Franteien guidatzeco kapable içaen da ;
Errepublika guretçat deus onikan ez da.

5.

Yende honec deçagun othoitz tun gogotic ;
Gure Emperadoria conserbatecia gatic ;
Denac ez gaiten nahaz amore-gatic ;
Hirrisku handitan gare hau galdus guerostic
Yaincoac beira gaitçala errepublikatic
Semia behar dugu aitaren ondotic.

6.

Yan-Josep Bonaparte, hartçau curaye
Guehienac çu ikustiaz loriatcen gare ;
Eugène-Louis Napoléon orai deitçen çare,
Denboraz içaen çare çoure Emperadore

Orai arte hiru, eta çugarren çu çare
Çure cerbitçatcerat leyal içaen gare.

7.

Ez ditut mendratu nai errepublikanoac,
Badire hoitan hainitz guizon guisacoac ;
Izpirituz ere bai ungui arguituac
Kalitate guciez manera onecoac.
Batçu dire maluruski fede thikicoac,
Eta nausi sartu naiz dabilta halacoac.

8.

Federic ez dutenac nausi dienian sartcen,
Legueic itsusienac dituste asmatcen
Burasso çarren erraçac caizkit gogoratcen
Errepubliken icenac cituen ikharatcen
Laur hogoi-eta-hamairuekues cirela orhoitze
Yendeic inocentenac zituztela hiltcen.

9.

Bainan gaiztaguiñen çat bethi beldur bear da
Insultatçaile aski mement untan bada
Emperadoria ere mespresatua da ;
Hori kasatu naizic cembeit mintçatçen da
Yaun horren beharra, hargatic, Frantzian
izan da.

10.

Parisen sartu içaen çen berroita zortziyan
Desorde handiac ziren orduan Frantzian
Philippe iyessi gana kessac uzturrikan
Guizon batzuec oiñuca ; gorris yautzirikan
Aberalza izitua, hee ikussirikan
Yende chehia gosiac nihon ez lanikan.

11.

President sarthu izan cen hurusky jaun hori
Eskerrac zordioseagu hortas Jaincoari
Huko iñhasizion errepublikari
Oihuka haizirenac, laster ichilazi
Bere nausitasuna, humilki irakutsi
Frantcian bakiekin naizuela bizi.

21.

Oita bi urthe ditu President sarturic,

Emperadore dela berroita hamabitic
Yaun horrec inha zidu obra hainitz guerostic
Armada guztere du erreberrituric
Zitadel eta fortac ungui garnituric
Nai duena datorla, eztugu beldurric

13.

Hiour guerla ere intu dembora laburrez
Atekatcen badute, esta egoïn beldurrez
Russiac nai zuen nausitu Turkuez
Autrichiac ere bai, altzuen guciez
Metxicon izatu da gueiyenentçat onez ;
Afrontu izan badu ere hinduen onguiez.

14.

Jaun batzuec mehatchu Emperadoriari ;
Guerla hoitan campotic deus ez duela ekarri ;
Beldur emanastia ez othe du hin aski ;
Zuzen contra zabilzan nazionieri
Lehenic thiki eta guero handiyari

15.

Solas ederra franco nauzi nahi dut enec
Paperetan egortcen ikusteco denec
Ni ez naute contentatcen cembaiten erranec
Haguintça handieguic ematen tuztenec
Ez eta berzec hiñac mendratçen tuztenec
Gauzonie ez dute hiten balaco guizonec.

16.

Errepublika hori utzi behar dugu
Baldin bake onian bici nai badugu ;
Aita Emperadoriac lagunduco gaitu
Patant, contribuzioniac thikituco ditu
Arnoco dretchoac ere aphaldu behar tu
Pobriac flaco garella orai ikusten du.

17.

Horra hamazaspi pertsu Donibanetic,
Ateratcen baitire maingu baten ganic.
Guciec behartugu cantatu gogotic
Biba Emperadoria ! hiten dugularic ;
Familia horrec eztu munduan pareric ;
Hiru presuna dire Jaincoac emanic.

ETCHENIQUE

25

AMERIKA, ESPAINIA eta FRANTZIA

Donapaleüko TRINKETEAN

Uztailaren 28^{an} 1895^{an}. — Airea : Aï, aï, aï, muthillak.

— 1 —

Pilotari handiak zembat ikhusgarri
Trinket eder batean direnean ari,
Munduko hoberenak ikhusiko sarri.
Aï, aï, aï, muthillak, ikhusiko sarri (*bis*).

— 2 —

Ameriketarikan baditugu yinak
Gure anayak dire, *Frantses Eskualdunak*,
Españatikan ere hirur azkarrenak.
Aï, aï, aï, muthillak, hirur azkarrenak (*bis*).

— 3 —

Biba *Menditaharxu* Ameriketarra
Pilotari guzien errege zaharra,
Zure kontseilu onen badute beharra.
Aï, aï, aï, muthillak, badute beharra (*bis*).

— 4 —

Zer erranen derakot *Vaskito*⁽¹⁾ gaitzari ?
Haranderrek berak aihortua niri :
« Gizona baino zerbaït gehiago da hori » !
Aï, aï, aï, muthillak, gehiago da hori (*bis*).

— 5 —

Vaskitoren ondotik horra nun den « Nene », ⁽²⁾
Trinketea badaki harrapatzen gune,
Arduretan dio : « kintzetto haü ene » .
Aï, aï, aï, muthillak, kintzetto haü ene (*bis*).

(1) **Soudre-ren** izen-goitia.

(2) **Saroberry-ren** izen-goitia.

— 6 —

Utziko naü ertera *señor Larrañagak* :
Orai arte etzuen parerik Jaüntto hak,
Bainan agertzen dire bethi Jaünen Jaünak.
Aï, aï, aï, muthillak, bethi Jaünen Jaünak (*bis*).

— 7 —

Berekin ekarri-tu *Aizarn-Aldacharren* ;
Aizarna egile da ukaldi ederren,
Belurtiago izan bertze lagun haren.
Aï, aï, aï, muthillak, bertze lagun haren (*bis*).

— 8 —

Ez haüt ez gutienik ahantzia Ciki,
Nork du pilota yoiten hik baino hobeki ?
Adineko naüsi haiz... Ez othe zaük aski ?
Aï, aï, aï, muthillak, ez othe zaük aski (*bis*).

— 9 —

Gaztena-re delakotz, azken *Etchechoury* ;
Zer besoa deraukan nahiz gazte, guri,
Numbaït lehen yan duke aphez salda gori !
Aï, aï, aï, muthillak, aphez salda gori (*bis*).

— 10 —

Donapaleülarrer atchik amodio,
Gutarik urruntzean ez errán « adio »,
Bainan eskuak hartuz : « *Best' urthe artio* » !
Aï, aï, aï, muthillak, best' urthe artio (*bis*).

PIARRÉS, Artzaïna.

TRINQUET

DE SAINT-PALAIS

PARTIE DU 1^{er} SEPTEMBRE 1895

SODRE
et
SAROBERRY

Argentins

ETCHÉCHOURY, Basco-Américain
GOROSTIAGUE
AMESPIL } Haspandars

Une prime de 60 fr. sera répartie entre les vainqueurs ; une prime de 40 fr. sera décernée au meilleur joueur, à quelque camp qu'il appartienne (vainqueur ou vaincu).

Toute personne nantie d'une carte d'entrée au Trinquet pourra déposer, après la partie, dans une boîte placée dans la cour du Trinquet, le nom (inscrit au dos de la susdite carte) du joueur ayant, selon elle, mérité cette prime de 40 fr. Les bulletins contenant la mention *ex-æquo* seront annulés.

Les dames sont instamment priées de voter.

Le scrutin sera fermé à 7 h. du soir et le résultat publié deux heures après dans les cafés de la ville.

La majorité relative suffira pour la proclamation du candidat élu.

Hil batey ohoretay

Airea : *Lo, lo, nere maitea.*

Mugazaina lo zagon othaska chokhoan,
Bere bi haur ttikiak menturaz gogoan.
Iguzkia zeruan agertzerat zoan.
Ordukotz heriotzea han zuen ondoan !

Kolpez iratzarten da solas bat entzunik :
Asmatzen du horren goiz ez dela deus onik.
Bideraino badoa othoitz bat erranik.
Oi, damurik uzten du laguna etzanik !

Lau itzal heldu dire zerbeit bizkarrean ;
Salto batez han dute, tente, aintzinean.
Beldurraren itzalik ez du bihotzean :
Bertzerik ikusi du Champaña beltzean !

Bati lothu deneko zer den ikusteko,
Hau joka hasten zaio debruek hausteko.
X Mugazaina halere ez da lotsatuko,
Eskuetan duena ez du libratuko...

Ondikotz, huna zer den orduan gertatzen !
Lau gizonetarik bat urrhats bat urruntzen
Eta bere zarpatik harma bat agertzen :
Mugazaina hil gogor hantche du botatzen !

Zer gauza itsusia gizon bat hiltzea,
Aitarik gabe bi haur etchean uztea !
Holakoari ez da errech barkatzea :
Merezi luke laster lephoa moztea !

Kontrabandichtak ez du nahi komprenitu,
Bainan mugazain batek legeak baditu :
Kontrabanda behar du non-nahi gelditu.
Egiazko gizonak bi solas ez ditu !

Bakhotchak eman beza nahi duenari,
Kontrabandari edo muga zaintzeari :
Denek itzul bihotzak gure Jainkoari ;
Jaunak ez du barkhatzen hiltzale denari !

SABELEKO MIÑA

à l'roy, l'acorde
 Copia
 Buntze.

AIRIA : Ai ! Ai ! mutilla
 Chapela gorria.

Légasse eta Légassen adichkide ziñak (bis)
 Kurubilkatzen ditu sabeleko miñak.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla
 Chapela gorria (bis).

Nundik sartu zaiote urrichen gaitz hori (bis)
 Goiz arrats izateko mamiak hoin hori.

Ai ! Ai ! mutilla.

Beren ainzindariak choilki orai arte (bis)
 Zitroñ samiñez ziren asetzen nik uste.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Dozena bat gizonek, noizpeit bermatuta (bis)
 Iretsâzi diete laka bat ayuta.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Legaztarrak geroztik, miñak ezin barkha (bis)
 Hirur plegu egiñak hai dire indarka.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Emainik ez badathor erditze huntako (bis)
 Egon beharko dugu konkor sekulako.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Horra nun hetât diren hurbildu bi atso (bis)
 Ille, hortz, letagiñak berak beziñ falso.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Edan Ramuntchokotik zaharrenak dio (bis)
 Hertze tapatuenzat hauk erremedio.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Denak jarraiki zaizko ithurri alderat (bis)
 Salbu igel arnoa sori etzaion bat.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Hurrupatu dituzte alchahala trago (bis)
 Eta hertziak atchiki kasik tinkiago.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Ramuntchok ez izanez bothererik aski (bis)
 Bertze purgaketarar gan zaizkigu naski.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Lehenbichi Puerat, gero Baionarat (bis)
 Bi desertur deiturik kutchuen zainzerat.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Bañan sabelak bethi hantzen eta hantzen (bis)
 Eta hertze gaichoak ez nihoiz libratzen.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Gazen Pariseraño ! baitut sendagiñak (bis)
 Makallauen aferan pichtu gaituztenak.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Gure kurrizalliak zaizkigu ethorri (bis)
 Bizkar hezurak teñte, beharriak gorri.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Eta kantatzen dute, bertze kokoriko (bis)
 Zalu beren sabelak direla hustuko.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla.

Hemengo yende onek ikhas dezateñla (bis)
 Uda iragan gabe kakiñen dutela.

Ai ! Ai ! Ai ! mutilla } (bis).
 Chapela gorria.

BIDARTARRA.

GURE AMACHO

Airea : Chinhaurria eta Choria

1

Oilarra kukuruka ethean da ari,
Jadanikan Amacho othoitzez Jaunari ;
Bi eskuak ikaran, so kurutzeari,
« Jaunak beha diezon egun berriari ! »

2

Atcho zinez pollita da gure Amatto,
Chahar izana gatik ez oraino ttontto.
Diruz balimbad'ere pochi bat pobretto,
Omor'onez bederen dago aberastto.

3

Igandetan ederrik, iduri pampina,
Zinez erran liteke : « Horra Erregina ! »
Begia irriz dago, halaber ezpaina :
Oi, zer atcho pollita Jainkoak egina !

4

Buru sahetsetikan motho-buztanduna,
Lepho-gibel aldean mokañes urdina,
Balenarik gabeko soineko fin fina,
Zaiaño bat pollita eskuez egina.

5

Meza-deia burrumban, eliza-dorretik,
Eta amacho joan landa bazterretik ;
Buruaren zaintzeko iguzki gaichtotik,
Kaputchina pleguan eman du burutik.

6

Artho-bizardun pherde, sorhopil gizenak,
Sagar hori'ta gorri, mahañi-aihenak,
Amacho gaichoari irriz daude denak :
Segurki bide dira adichkide minak !

7

« Intzaur, piko, gaztenak, zirezte handitu,
Zuen landatzailea da aldiz chahartu ;
Ainitz neguetako elhurra gelditu,
Eta ile urdinak zeraizko churitu.

8

Huna ur-chirripa bat intzirez doana,
Gain hartako zerua bezambat urdina :
Lehenago jauzian igaiten zuena...
Orai, doi-doi, emanez, harri chabalduna !

9

« Agur, Amatto, agur ! — Agur ene haurra ! »
Bidean orok hari bihotzez agurra.
Amacho erreposki, ez dadien lerra,
Lorietan badoa chendrari behera.

10

Herrirat heldu eta, zaia du zafratzen,
Zapeteri errhautsa eskuaz chahatzen,
Kaputchina burutik laster behehitzen,
Eta ichil ichila elizan da sartzen.

11

Zer othoitzak orduan Aita Jainkoari !
Aingeruak begira chahar maiteari !
Bertze guziak aldiz kantuetan ari ,.....
Atcho ona mezuka Ama-Birjinari.

12

Hilen herri chokoan, mezatik lekora,
Amatto nigarretan othoitzez hobira ;
Loretto bat harturik lurretik eskura,
Ichil eta trichte da itzultzen herrira.

13

.....
.....
Ihun zeinuetako, etcherat heltzean,
Gozo handi bat zuen amak, bihotzean;
Gaztena adar beltchek, hura aditzean,
Gau on! zioten orok, betan aphaltzean,

14

.....
.....
Oi Amacho maitea, agian luzachko
Jainko jaun onak zaitu gurekin utziko !
Ainitz urthez, agian, zaitu ahantziko !
Luzaz agian luzaz gaituzu zainduko !

J. BARBIER.

(Poésie couronnée à Buenos-Ayres, novembre 1906.

Concours basque de l'Enskaria

Garaziko Libertimendua

AIREA : *Gure Amacho*

1

Marchoaren bia, oi hi zer eguna,
Garazi libroaren egun ederrena !
Gizon zuzen guziak bildu dituen !
Bi persu entzuteko, har zazue pena.

2

Besta hau eman da gazten ohoretan ;
Choragarriak ziren Ihaut egunetan,
Ikhustekoak zinez, beren jantzieta,
Letsunak iduriak, oro lerroetan.

3

Soinekoak eburi, bonetak gorriak,
Chingolak hiru mota, Kuchkulez bethiak,
Zoin arinago jantzan, guziak gaztiak !
Harrituak han zauden Garaztar guziak.

4

Huna zaldidunak, bosnazka emanak,
Azpian dituztela behor ederrenak.
Hurrats berean oro, charmegarrienak...
Jelos-irrian zauden gure jandarmenak.

5

Donianeko merak jo zuen Pauera,
Zalhurik eta chuchen usatu lekhura.
Ikharan erten dio : « Hauche da manera !
« Ehunka hor bolantak heldu omen dira ! »

6

Prefetak orduan : « Zaude ba gostuan !
« Jandarmak izain dira, muga guzietan.
« Soldadoak ere han, prest presta harmetan,
« Nausiak ezartzeko burdin-kadinetan ».

7

Yribarnegaray, kuraie handitan,
Badoa fier, azkar bere dretchoetan :
« Zertako jandarma hok, zubi ttipi huntan ?
« Pasatzea haizu da errege-bidetan ! »

8

Liberté, Egalité eta Fraternité !
Hiru gezur horiek, egiak balire !
Urosik herrietan bizi ginaitezke !
Arbasoen hurratsak horiek litazke !

9

Garaztar gazteak, persu hau zueri :
« Beha zazue bethi hor diren Jauneri !
« *Horiek buruzagi, Jainkoa gidari !*
« Hori desiratzen dut egun Garaziri ».

LÉON BARBIER.

Larrosoroko kantu berriak

AIRE HUNTAN :

Chorinua nora zohaz bi hegalez airian.
 re mi ut ut re si ut ut re mi fa mi re mi ut (bis).
 ut ut fa fa fa sol fa mi re sol fa mi re ut si
 re mi ut ut re si ut ut re mi fa mi re mi ut

1

Urriaren hamaseian,
 Igande egunean,
 Baionan aphez chahar bat
 egoiten den ethean,
 Muthiko tzar bat sarthu zen
 zakhu bat bizkarrean :
 Muthikoak zer othe du
 zakhu horren barnean ?

2

Huna zer zuen ichilka
 zakhuan ekharria,
 Birjina dolorosaren
 antzo hunkigarria :
 Amak semea daduka
 altzoan hil berria :
 Bi besoz Jesus atchikiz,
 triste dago jarria.

3

Muthikoak aphezari.
 hauche zion erasi :
 « Zuri ekhartzeko dut hau
 « Habren nihaurk erosi.
 — « Zer derasak muthikoa ?
 « ez ahal duk ebatsi ?
 — « Ez, Jauna, ez naiz ohoina ;
 « behar nauzu sinhetsi.

4

— « Amerikano zen baten
 « puskak ziren han saltzen.
 « Hazpandar bat ondokotzat
 « utzirikan hila zen.
 « Saindu hau aditu nuen
 « inkantean kridatzen :
 « Bortz liberaren oihura
 « niri zauntan gelditzen. »

5

Aphezak muthikoari
 Birjina hartzen dio :
 Haren eskuetan utziz
 gaizki egin bailio.
 Ebatsia balin bada
 jabea kausi diro.
 Bilha dabilalarikan.
 ai ! ager balakio.

6

Zembeit egunen buruan
 muthiko hura bera,
 Bi jandarmek zeramatzen
 preso tribunalera,
 Etche bat arrogaturik,
 gabaz sarthuz barnera :
 Bertze hobenik baduen
 ageriko othe da ?

7

Orduan aphez chaharrak
 entzuten du jendetan,
 Larrosoron han daudela
 jendeak nigarretan,
 Birjina dolorezko bat
 galdurik egun hetan :
 Norbeitak ebatsi deie
 elizako heipetan.

8

Aphezak mezutzen dio
 hango Jaunortorari :
 Birjina hark dioela
 hartu ebasleari :
 Hek galdu dutena dela
 jokha liro zer nahi :
 Berehala igor dezon
 norbeit haren bilhari.

9

Jaunortorak igortzen du
 Etchemendi harotza :....
 Aphez etchetan jaun hori
 ez da gizon arrotza :
 Beren ama dolorosa
 ezagutzen du ontsa ;
 Hemen ikusteak berak
 hausten dio bihotza.

10

Justiziak hunen berri
 ordean ja badaki :
 Eta jujek ikusteko :
 nahi du hau atchiki :
 Ohoinak ez diro ukha ;
 hau bera badu aski :
 Larrosoron behar dute
 aphur bat iguriki.

11

Nork erran Larrosoarrek
 duketen atsegina ?
 Itzultzen zaiotenean
 beren Ama Birjina.
 Hura galduz handi baitzen
 hekien bihotz mina,
 Atchemanik badukete
 bozkario berdina.

12

Larrosoarrak zaudezte
 chuchen zuen fedean.
 Ama Dolorosa bethi
 bedi zuen artean,
 Handizki ohoratua
 antzo hortan berean.
 Zeruan ekhar zaitzazten
 bere bihotz barnean.

13

Othoitzazue berezki
 zuen nahigabetan ;
 Etchetik norbeit maiterik
 galdu duzenetan ;
 Partalier har zaitzazten
 bere bihotz minetan :
 Kotsolaturen zarezte
 Amaren besoetan.

BIBA ETCHEVERRY ! KOUKOU BERDOLY !

(Pette Maouleren khantoriari arrapostu)

Aire hountan : *Gazte niz et'alagera*
Edo : *Erresiñoula khantari*
Chori ororen buruzagi.

1
Nahi ziren trufaz ari } *berritan.*
Goure deputatu geiari.
 Khantiak dutu ezarri
 Astouak zamariari.
Biba, biba Etcheverry !
Koukou dadila Berdoly.

2
Khantatzen zian goizegi } *berritan.*
Pette Moulek biba Berdoly.
 Erho et'asto iruski
 Etzaio aski jarraiki.
Biba, etc.

3
Baziren franko esklabo } *berritan.*
Beste zounbait burutik choro.
 Hoien botzak bilduz oro
 Ezta Berdoly gorago.
Biba, etc.

4
Orok gunin ezagutzen } *berritan.*
Berdoly nour eta nounko den.
 Suprefet zenian Maoulen,
 Ororek zien trufatzen.
Biba, etc.

5
Baganakin bakadaren } *berritan.*
Nouiz hasi ginen phakatzen.
 Berdoly gaskoua Maoulen,
 Ordian bai, Suprefet zen.
Biba, etc.

6
Berdolyen elh'ederrak } *berritan.*
Gezurak bezain dir'okherrak.
 Bardin dutie eskerrak
 Gour'astouaren uzkerak.
Biba, etc.

7
Egon dadila Uhartan } *berritan.*
Nahi dianaren egiten.
 Hobeki gira izanen
 Ukhuru bagutu uzten.
Biba, etc.

8
Gogotik dugu ezarri } *berritan.*
Deputatu Louis Etcheverry.
 Artzañ eta laborari
 Kountent gira izigarri.
Biba, etc.

9
Etcheverry Uskalduna } *berritan.*
Izan zite goure laguna !
 Eta Berdoly gascoua,
 Gorda hadi lurran barna !
Biba, etc.

JOUHANE ATHARRATZE.

Setemeren edo Buruilarren 23^{an}, 1889.

CANTU BERRIAC

HASPARNECO ELIÇAREN GAINÉAN

AIREA : Lau phundutan.

1.

Hasparnen eguin dute Eliça berria,
Bihots ones guciec Jesusen etchia;
Ez du ez Bethelēmen orai establia
Ordainez emanen du ceruco loria.

2.

Goraki eguina da obra eder hori,
Bi mundutan direnec, emanic cer nahi.
Caritate çaharrac, hor dira agueri,
Oro yuntatu dira bici Eliçari.

3.

Aberatseri dute lehenic galdetu
Ontasuna duēnac eman behar baitu.
Obretan agueri da dire baliatu,
Guciec nahi çuten Eliça alchatu.

4.

Phartia eman dute yende chehiec ere
Ecin eguina baitcen hec mintçatu gabe.
Hec ere eman dute cilhar edo urhe,
Guciac içaiteco Eliçaren yabe.

5.

Cer agradamenduya duguna herrian
Contentic sarthu guira Eliça berrian
Eguin behar bai cen yuanden aspaldian
Goça deçagun orai guciec bakian.

6.

Biba gure Eliça eta curutcea
Gora danic hor dago herriari beha.
Ez gaitu utsi nahi bistatic galtcera
Cherkha yin behar baita askenian bera.

7.

Desertuan egonic etchola batekin
Orai etchian guira gure aitarekin.
Ceruleo erreguina ama onarekin
Arthalde guehiena artçain berarekin.

8.

Monsieur Doyera çuten architecta
Errecibitu baitu lana eguin eta
Gauça gucietaco içan da prudenta
Manera guciez da Eliza perfeta.

9.

Guizon hiriscatua Chemartin Camboarra
Haspandarrec baitçuten yuā haren beharra
Ederki segitu du hartu çuen plana
Arranguraric gabe finitu du lana.

10.

Charpanterren guida Cadet Esperantça
Ongui baliatu da haren ordenantça.
Lagunekin eguin du obra lanyerosa
Oro bici baitira, cer gauça urusa.

11.

Lehenic champartera behar cen phartitu
Harguinari bidia eguin behar baitu.
Beha curutceari nun diren çuelditu
Seculan esperantça ez da behar galdu.


12.

Laudorioac dira alde orotatic
Guciac content dira Eliça eguinic.
Alegrantciac ere ez baitu pareric
Huna khantu berriac emanac urritic.


Gerla Handiko Kantuak

Airea : 7^oeko Gerlako Kantuen airean. (Garazin : Lasan badira kantu berriak)

Marziale



Hi-ru hogoi e ta hamar-re-ko soldado zahar maiteak, Ba i nan zuhaurek erranik dakit,
Ez zaituztet nik mendratu nahi, sobera zaitze handiak ;



badirela jaunen jau-nak, Gerla huntan ditugu ikusi soldadotan handi-e-nak.

— 2 —

Gerla handiko soldado gaitzak, zuen ongi goresteko,
Otxalde eta Elizamburu Koplari ziren beharko.
Heien eta Zaldubiren orde othe nuzue nahiko ?
Bozez mila banitu gaur nere, oro nuzke zuendako.

— 3 —

Aboztuaren bian, ezkila, gure Eskual-mendietan,
Bambaka hasi zitzaukularik, herri choko guzietan,
Oro nigarrez, ichil ichila, gure etche churietan !
Bazen, orduan. jauzi ederrik, Eskualdunen bihotzetan.

— 4 —

« Adios aita, adios ama, adios ene laguna,
« Adios ene herri maitea, herrietan maiteena ! »
Bihotzean ezarri ondoan gure Nausi Jesus ona,
Lerro lerro, joan ginen oro, etsai higuinaren gana!

— 5 —

Eta gero, handik berehala, oi egun izigarriak !
Belgikatik herrestaka heldu, gose eta egarriak ;
Launazka elgarreri lotuak, lotuak ta lokartuak.....
Beharbada, jaten duelakotz, lokartzen den gosetuak.

— 6 —

Bainan huna Buruilako goiz bat, goiz orotan ederrena,
 Huna gure zeruko Amaren munduratzeko eguna ;
 Huna *Joffre*, huna *Marne* ibaia, huna bitoria, huna :
 Gure baioneten aintzinean, ihes zoan Alemana ! !

— 7 —

Bainan zorigaitzez, gero laster, gure soldado maiteak
 Erreka zilotan sartu ziren, sator eginak guziak.
 Eta nolako sator eginak ! Zer izigarrikeriak !
Verdunex aiphatzean, chut chuta, emaiten zaizkit ileak.

— 8 —

Errabietan, hilen gainetik, igaranez, Alemana
 Burrustan heldu zaukun orroaz, Parise handia gana.
 Ziloa tapatu behar baitzen, ahalik'ta lasterrena,
 Hats-hanturik harat hupatu zen soldadotan hoberena.

— 9 —

Gain hartara hurbiltzearekin, oi gèrlarien antsia !
 Zer burrumba, zer ihurzuria, burdinezko erauntsia !
 Harat igan soldado gaichoa ez othe zen ehortzia ?.....
 Chuti hadi, eta harriturik, behazak, beha, Frantzia !

— 10 —

Jeneral nausiak erran zuen : « *On ne passe pas ! Halte-là !* »
 Eta manu izigarri hori atchiki zen hala hala.
 Etsai higuinak han higatzen du, orroaz, bere ahala.....
 Trebes emanak hantchet zinezten Frantseses mila'ta mila.

— 11 —

Verdungo berri ez dakienak deus handirikan ez daki ;
 Ematzu nahigabe guziak, ez duzu erraiten aski :
 Gose eta egarriarekin, indarrak orori gaki.....
 Eta halere, chichpa eskuan, soldadoak han egoki !

Gaya emanik egin lezakek
(Baderitzaiyo) guzliya ;
Bañan ez baitik orrek sortuko
Chingurri baten biziya !
Negurri gabe igua zegok
Gizonaren iritzia.

Orrela ere ausarteriyan
Maiz aurreratcho dijua,
Eman nairikan ; ez dakit zeri !
Bertute guzirakua,
Iritchitzen da ukatzeraño
Ori bere Jaungoikua.

Ezaguera ta gaya emanik,
Gizonak egin oi ditu,
Gauza ederrak, arrigarriyak ;
Au ez diteke ukatu.
Zeni zor diyon ori guziya,
Au bear luke aitortu.

Orreterako emana degu
Guk degun izpirituba ;
Eta onen bidez egiña bada
Gizonarentzat munduba,
Ez litzake asko eskatuzia
Onra dezala zeruba.

Gizona balitz menderen mende
Bizitzekoa munduban,
Jauna berari igo lekiyo
Bere ustetan buruban
Eriyo otzak gelditutzen du
Bidi chit laburragoan.

Eriyotz orrek irukiko du
Gizona beti chikiya,
Jaunak guzlia andiyo du-ta
Onetan erebakiya ;
Askok litzake aitortutzeko
Beraren jakinduriya.

AIPHAMEN OHOREZKOAK

José M. de Yparaguirre, Santa-Luziako Ibarrekoari.

Agintza egin izan duen Iputzari.

Lamiaren kantua egin izan duen Iputzari.

M. Maguregui, Bilbaokoari.

Valentin Ecenarro, Bizkaitarrari.

Joanes Oxalde, Bidarratarrari.

Haroztegy, Ciburutarrari.

L. L. I., Nafarrari.

J. G. O. y A., Iputzari.

Manuel de Imaz, Alzokoari.

Betiri Dibarrart, Baigorriarari.

Agustin Etcheberri, Saratarrari.

Joanes Berjes, Saratarrari.

Bayonne, imp. Lamaignère.

NEURTIZLARIEN GUDUA

Elizondoko Bestetan

GARHAIT SARIA ERAMAN DUEN KANTUA

RAMON ARTOLA, DONESTIAKOAK EGINA

ALTABIZKARKO KANTUA

NOR BERE ETCHEAN IZAN BEDI NAGUSI

Oijuska bat erantzun da Euskaldunen mendiyetan !
 Etcheke-jauna zut-zutik zeguen bere atietan ;
 Aditu du ta esan du : ¿ Zer da gure lur onetan ?
 Eta altcharik chakurra, lotan zeguen oñetan,
 Nastu du Altabizkarko inguru dena zaunketan.

Ibañetako mendizkan arbast-otz bat da sentitzen ;
 Arkaitzak ezker-eskuin joaz dator ugaritzen ;
 Armada batek dakarren burundara da urbiltzen.
 Gureak mendi puntetan orain ari dira biltzen,
 Eta etcheke-jauna ez da dardaz zorroztez gelditzen.

Emen dira ! emen dira ! oh ! zer lantzazko sasiya !
 Banderaz ezarriya da lur urrutiko guziya.
 Ayen armaren distirak milla chimisten argiya
 Botatzen dute ta bista begira galdu zait iya.
 « Ikusi bitza ikusi ! ikusi bitza, nausiya. »

— Zembat dira, aurra ; kontaitzik ongi.

— Dira bat, bi, iru, lau, bost,
 Sei, zazpi, zortzi, bederatzi,
 Amar, amaika, amabi,
 Amairu, amalau, amabost, amasei,
 Amazazpi, emezortzi,
 Emeretzi, ogei.

Ogei ta millak ta millak dira bidean onera ;
 Dembora galduko degu kontatzen jartzen bagera.
 Batdu ditzagun indarrak, arkaitz aundiyak atera,
 Eta sartzen diranean gure mendiyen oñera,
 Amil zaizkagun lertzeko beren buruben gañera.

Iparreko gizon oyeke ¿ zertan ziran gerran asi ?
 ¿ Zertan zuten España pakean zegueta nasi ?
 Arkaitzak amildu dira ; ezurak zaizkate autsi ;
 Aragiak daude dardar puskatuak, zapaltuak ;
 Orrelaco sarraskirik ez du ikusi munduac.

Korri, korri, oinezko ta Karlomanoren zaldunak,
 Euk ere bai dantzatubaz kapa gorriya ta lumak.
 Illoba Roldan illa dek, orra zangar aren famak.
 Orain, Eskaldunak, hea ! laja-ta arkaitzen lanak,
 Dardaz akaba ditzagun igesi dijozenak.

Badijoaz ! badijoaz, illak utzi-ta biziya.
 Orra ayen edertasuna eta beren pantesiyak.
 ¿ Non dira lengo banderak eta lantzazko sasiya ?
 Armetan ez da chimistik, odolez dira bustiyak.
 Badijoaz ! badijoaz ! iya, joan dira gustiak.

— ¿ Zembat dira, aurra ? kontaitzik ongi.

— Dira ogei, emeretzi,
 Emezortzi, amazazpi,
 Amasei, amabost,
 Amalau, amairu,
 Amabi, amaika,
 Amar, bederatzi,
 Zortzi, zazpi, sei, bost,
 Lau, iru, bi, bat.

Bat ere ez da ageri, bakarrik gelditu gera.
 Etcheke-jauna joan leike chakurrarekin etchera
 Emaztea eta aurak zorionez laztantzera ;
 Dardak garbitu-ta adar zorroetan altchatzera,
 Eta beren gañean lo egiñaz deskantzazera.

OBIZDEA

Gabaz arrano sallah dirade bilduko
 Eta gorputzak jaten dira ibilduko ;
 Mami puskak bistatik dirade galduco
 Bañan ezurak beti dira azalduko.

1892

DONI-BANEKO BESTAN, NEURTITZ GUDUA

LEHEN GARHAIT SARIA VICTORIANO YRAOLA, DONOSTIAR, NEURTITZ HAU PARATU DITUENARI

¡ GAISUAK !

Aize izoztu beldurgarriya
Gallendutzen zan indarrez ;
Mendi altuak, kanpo zabalak
Jantziyak zeuden elurrez ;
Eguzkiyaren begiratuba
Etzan arpegi ederrez,
Chori alegre kantari ayek
Etziran ikusten errez,
Nonbait gaisuak gordeta zeuden
Elurtiaren beldurrez.

Zugazti baten adar ertzian
Gutzizko kontuz gordiak,
Choricho batek zeukan kabiya
Eta kabiyan umiak ;
Amak beraren egal azpiyan
Estali arren tristiak,
Ume erbalak arkitzen ziran
Gaisuak otzak pasiak,
Eta chioka dardar ikaraz
Iya illian goziak.

Egaa zabalez eta koajez
Aldendutzen da kabitik,
Kanpo elurrez estali artan
Zerbait billatzia gatik ;
Baña ¡ ai ! baratz polit ayetan
Etzan arkitzen lorarik,
Ala choricho koajetsua
Zayatutzen zan alperrik,
Zeren janari guziyak zeuden
Elur azpiyan gorderik.

Ogi apur bat arkitu eta
Tristia guztiz kontentu,
Egaa biziyan umietara
Beriala zan jiratu ;
¡ Zer poza senti ote zuben ark
Zitzayonian eratu !
Ala choriyak mokuen punthan
Ura zubenian artu,
Zugaztiraño irichi nayan
Etzan gaisua geratu.

Ama leyala allegaturik
Arbolen aldamenera,
Tunpadako bat ordubanchen zan
Bazter batetik atera ;
Egalak oso purrukatu ta
Eroritzen zan gain-bera,
Bere kabiya zeukan arbolcho
Zugaztiyaren oñera,
Nagiyak jua balitz bezela
Illa elurren gañera.

Eiztari bat ¡ ai ! bere eizari
Kontentu aundiz begira,
Egite eder arren pozian
Kantari dua errira ;
Chori chikiyak beti chioka
Artian bizi badira,
Isildu gabe penagarriyak
Aizera ariko dira,
Amari deika, noiz biurtuko
Ote zayoten kabira...

Egun sentiyan argi berriyak
Kantuz agurtzen diranak,
Etziran entzun goiz triste artan
Lenaz entzuten ziranak ;
Kabiyan epel beren amakin
Gutziz kontentu zeudenak,
¡ Ai ! chori chiki ezin egonak
Lenago arren gizenak ;
Gau luze artan goziak eta
Otzak ill zituen denak.

Eguzkiyaren indarrak gero
Bultzarik, aize chistuak,
Etziran asko pozkiratutzen
Zugaztiko umechuak ;
Ume zurtzaren gisa lajia
Ziran, eiztari gaistuak,
Nola etzuten zeñek emanik
Lengo atsegin gozuak,
¡ Amarik gabe nola biziko
Ziran umiak ?... ¡ Gaisuak !

ITSUA ETA SASTREA

AIREA : *Adio Euskal herria.*

1

Euskaldun bat zen Itsu eta bertsulari ;
Athez-athe zabilan iloba gidari,
Soineko eta diru, yanhari edari,
Nasaiki biltzen zuten bertsu em n sari.

2

Zuhur gisa baitzuten sos guti gastatzen,
Piko-pean eltze bat gordea zaokaten,
Hiru ebun libera harat bildu zuten,
Bainan gaichtagin batek ebatsi zioten.

3

Bere gorde lekhotik galdurik eltzea,
Bat zagon hasperenka, nigarrez bertzea ;
Oi hau da bihotz mina, oseba maitea,
Horra zer den kampoan gauzen gordetzea.

4

Azkeneko aldian hemen ginelarik,
Ikusi gaituztela ez diat dudarik ;
Bai, sastrea heldu zen pegarra betherik,
Behatu zuen guri bainan urrunetik.

5

To ! harnezak eskutik sastrearen gana,
Adi dezan bertsu bat Itsuak emana ;
Gure eltzea badu harek eremana,
Bazakiat nik, hura zer gisaz engana.

6

Ilobak Itsuari apha beharrira ;
Sastrearen etcherat orai heltzen gira ;
Irri faltsuan dago leihotik begira,
Ez erran hitz gaichtorik zuhurra bazira.

7

Iloba gida nezak arthoski bidean,
Zerbait daiat utziko azken egunean ;

Ehun luis baitiat piko baten pean
Bertze ehun emanen bihar han berean.

8

Sastreak bere baithan : Itsuak etzakik
Hartuak ditudala horren sosak handik ;
Eltze hau diruekin berriz han emanik
Bertze hiru ehunak bilduko tiat nik.

9

Itsuaeren agintza balios izan zen ;
Biharamun goizeko eltzea han zuten
Ilobak erran zion : hemen dugu hemen ;
Oi zein ongi sastrea enganatua den.

10

Ene moltsan beharduk dirua ezarri ;
Lurpean hola-hola utzak eltze hori ;
Eta emok barnean bortz edo sei harri,
Sastreak aski pisu altxa dezan sarri.

11

Itsuak sastreari : To ! errak egia
Atzo bezala dukan arrai arpegia ?
Ala trichterik hagon doluan yarria,
Dirua erain eta bildurik harria.

12

Itsu harpagon zikoitz laido emailea ;
Habil eta ez kolpa ene ohorea.
Dirudun bahaiz ere, eta ni gabea
Baduk aski zorigaitz hire ilhumbea.

13

Ni Itsu ilhumbean, hi sastre erromes,
Dezagun elgar lagun biek ditugunez,
Nik egiten haut yabe ene onthasunez,
Nahi banauk okhertu hire begi batez.

PIERRE DIBARRART,
Baigorryko Eliza-kantariak egina.

1893

AZPEITIAKO BESTAN, NEURTITZ GUDUA

LEHEN GARHAIT SARIA F. LOPEZ ALEN, DONASTIAR, NEURTITZ OK PARATU DITUENARI

AMA BATEN OTSA SEASKAREN ONDOAN

I

Zer darabiltzu nere maitia ?
 Nork du maitecho eznatu ?
 Ametzetatik ain ondo zeuden
 Nork othe zaitu ernetu ?
 Norentzat dira far-irrik oyek ?
 Nori bigaltzen dizkatzu ?
 Zu eznatutzen zeran guztiyan
 Ama jartzen da kontentu.

Zeñenak dira musu gorriyak
 Maindiriaren orrian
 Diruditenak lorak daudenak
 Sarjiñen osto tartian ?
 Nork zabaldutzen ditu algarak
 Orren alaicho echian ?
 Nork jarri zaitu usai gozozko
 Seaska churi-churian ?

Aitacho aurki datorrenean
 Lanetik zure ondora,
 O! zer pozakin laztan-musuka
 Zaitun artuko besora ;
 Ta bitartian gure aurchoa
 Titia artuta gerora
 Lo egingo du, amak echeko
 Lanak egiñik gustora.

A! nik ikuzten zaitutanian
 Lotan zaudela geldirik
 Ille kiskurrak darizutela
 Kopetetikan jechirik,

Orduban nere barrenak ez du
 Pentzaten beste gauzarik
 Jaunak zuretzat etorkizunan
 Zer ote dauka gorderik !

Ez !... etzazula negarrik egin
 Amacho dago ondoan
 Eta negarrak amachori gaitz
 Egiten diyo kolkoan ;
 Ez !... Ez !... maitia, atoz nigana
 Artuko zaitut besoan
 Ikuz' itzazun mutill chikiak
 Jostatzen gure ausoan.

.....

.....

II

Illunabarra badator
 Gauza guziyak estaltzen,
 Eguzkiak zitubena
 Ain ederki apaitzen.

Nere ondoko leyotik
 Zentitzen det ; ¡ zer gozo !
 Aurrari nola ari dan
 Ama kantari erazo :

« Nere maitia lo ta lo
 Egingo degu gozoro... !
 Zuk orain eta nik gero
 Biyak egingo degu lo... lo... lo.. ! »

GAUDEN ESKUALDUN

Lehenbizirik eta kopla arte guzietan jende ostearen errepika :

Eskualherri guziek bat egin dezagun;
Guziak bethi bethi, gauden Eskualdun.

Haritz eder bat bada
gure mendietan,
Zazpi adar nausiz da
hedatzen airetan,
Frantzian, Espainian,
bi alderdietan :
Han hiru' ta hemen lau,
bat da zazpian.

Ekhialdeko zolan
lehenik sorthua
Lau mila urthe huntan
hor da landatua,
Haritz horren adar bat *
hostoz gabetua
Ez ahal da oraino
arras ihartua.

Zer duk haritz ederra
idor kara hori?
Ortzi sua gainerat
othe zaik erori?
Ala harrek azalpez
haute jaten ari?
Ai! gure amodioz
senda bahindadi?

Hi haiz hi, Eskualduna
haritz zahar hura.
Sobera haute moztu;
mehatu zaik lurra :
Lehengo libertate
galduen itchura
Hire zorigaitzetan
heldu zaik burura.

Zuhaitz sanho dena da
hostotik agertzen;...
Gure haritz hostoa
Eskuara da deitzen.
Bizi garenetz dugu
hortan ezagutzen
Eskuarak diraukuno
ez gare gu hiltzen.

Jakintsunek diote
ez dela mintzorik
Gure Eskuara baino
ederragokorik
Balin bada gu baithan
ohore phorrorik
Eskuara dugun iduk
garbirik, osorik.

Agur eta ohore
Eskualherriari
Biskai, Nabar, Gipuzko,
eta Alabari,
Laphurdi Bachenabar
eta Chuberori;
Zazpiak bat loth beitez
besarka elgarri.

Gureak ziren lehen
toki hauk guziak,
Arbasoek utziak,
hek irabaziak
Heier esker Frantziak
eta Espainiak,
Dagozkate dituzten
eremu handiak.

Moro beltza zelarik
Espainian nausi
Eskualdunak Nabasen
egin zion jauzi
Lau ehun mila Moro
ziren han ehortzi
Bertzeak sekulakotz
gan ziren ihesi.

Moroak guk hezirik
oihuz zauden oro,
« Eskualduna utz bedi
« bera nausi libro
« Frantziak Espainiak
« bai orai bai gero
« Deus kendu gabe dute
« gerizatu gogo. »

Patu hoiez geroztik
gan dire demborak
Hartzeduner ukhatu
diozkate zorrak.
Oi indarraren lege
latz eta gogorak!
Zuzenak alfer ditu
Nigar heia gorak.

Zuri gaude othoitzez,
yaungoiko maitea,
Lagun zazu zerutik
eskualdun jendea;
Bethi begira dezan
lehengo fedea,
Eta libertatean
besarka bakea.

* Alaba.

AMA EUSKARA ETA BERE UMIAK

1

UMIAK

¿ Ama, gaitzen bat aldu
Barrunen sentitzen ?
Triste daguela gaur
Zaigu iruditzen ;

AMAK

Ez, umiak, oraindik
Ain gaizki arkitzen,
Ez naiz, bañan laguntza
Dizutet ezkatzen

2

UMIAK

Umiak emen gaude
Beti laguntzeko,
Eta gure biyotzak
Zuri emateko ;

AMAK

Ni ere emen nago
Zubek maitatzeko,
Eta beso artian
Danak lastantzeko.

3

UMIAK

Zuri gaitz egin nayan
Dabilta etzayak,
Bañan ernai gaude gu
Zaitutzen guztiyak ;

AMAK

Elkartasun onean
Zazpi Probintziyak,
Urta bear ditugu
Oyen charkeriyak.

4

UMIAK

Gure aurreko ayek,
Denak baturikan,
Esagutu etzuten
Yñoiz bildurrikan ;

AMAK

Ala da, eta zegi
Ayen bidetikan,
Ez dediyen astutzat
Geldi legerikan.

5

UMIAK

Ama, egingo degu
Alegin guztiyak
Galtzeratu bañan len
Naiz utzi biziya ;

AMAK

Umiak, arrazoiyak
Du indar aundiya,
Ta Jainkoak egingo
Digu ekadoiya.

6

UMIAK

Orain erregutzeko
Gure Jainkeari,
Bear degu guztiyak
Belauniko jarri ;
Bai ere kontu egin
! Ama ; euskarari
Gure lege on eta
Oitura zarrari.

FELIPE CASAL OTEGUI,
Donostiara.

HAZPARRENEKO HERRIAN ESKAL-BATZARRAK

Eskaraz izkiribatzailleen indar-neurtzetako eman lehen Garait-Sarija, Kantore hunen egilleari :

MARI

AIREA : *Inchauzpeko alhaba dendaria*

1

Mari, Mari errotako alaba,
Pegartcho bat duela buruan,
Eguintza bezin pozez betea
Zaitzen dauka galaja basuan.

2

Noizikan beñ jiratzen du burua,..
Begi larriz eta beldurrean
Baña laister galdutzen du ikara
Bijotzeko puchkaz orroitzean.

3

Marichu da gorputz liraiñekoa,
Grazi aundiz estalija dena ;
Aipatzen da : ume begi zabala,
Errijan dan lora ederrena.

4

Eztu intzak lora usai-gozozko
Mina-gorik bustitzen goizean ;
Ezkutuan maitagarrija gana
Or dijua baso illunean.

5

Iturrijak adierazten dijo,
Bere murmur chamur gozoetan :
Zai daukazu zure zoragarrija
Lastantzeko aren besoetan.

6

Mari, Mari bideak galdu eta
Sartu zera baso ozpelean
Orra ! orra ! Badizkijo musuak
Kopetaren erdi zabalean.

7

« Zergatikan zatoz onen berandu, »
Dijo, guztiz izketa gozuan....
« Maitatuko zaitut zeran ere....
Baña Mari.... gejago basuan. »

8

Errotako lora guztiz garbija
Galajakiñ bakarrean bijak !
An aurrera nor ote dijuakizu ?
Esten ditut emen nik begijak.

VICTORIANO IRAOLA.
Donostiarra.

CONCOURS DE POÉSIE BASQUE A HASPARREN

Premier Prix décerné par l'Association Basque à l'auteur du chant intitulé :

MARIE

Marie, Marie la fille du moulin,
Portant une cruche sur la tête,
Gaie comme l'aurore,
Attend son bien-aimé au bois.

De temps en temps, elle tourne la tête...
L'œil troublé, elle est craintive ;
Bientôt elle ne tremble plus,
Lorsqu'elle se souvient de celui qui est la moitié de son cœur

Marie la petite, est svelte de corps,
Les grâces la décorent ;
On le dit bien haut : elle est l'enfant
A l'œil grand ouvert, la fleur la plus belle du village.

De toutes les fleurs embaumées, la rosée
Matinale n'en arrose pas de plus délicate ;
On l'a voit aller à la dérobee dans
Le bois sombre vers son bien-aimé.

La fontaine, dans son tendre murmure,
Semble lui dire ;
Vous attendez celui qui trouble votre âme
Et vous enlace dans ses bras.

Marie, Marie vous abandonnez les
Chemins et vous pénétrez dans les bois mystérieux...
Voilà ! Voilà ! qu'il lui prodigue les baisers
Au milieu de son front découvert.

« Pourquoi venez-vous si tard »
Dit-elle, en bien doux langage,
« Je vous aimerai Marie, au ciel...
Mais aussi dans le bois. »

La chaste fleur du moulin
(Elle au bois) seule avec son bien-aimé !
Là, plus loin, qui peut vous suivre...
(Je m'arrête) ici, je ferme les yeux.

VICTORIANO IRAOLA.
De St-Sébastien.

UME BURASO GABEA

AIREA :

1

Nor othe dut aita, nor othe dut ama ?
Hori jakin nahiak mundutik narama ;
Zoin higuingarrija
Hain lotsagarrija
Baita nere fama ;
Hits-aldi huntarik
Nola sendatzerik
Ez dezaket asma.

2

Aditu nuenean seigarren urthean
Kausitu nindutela ur-hegi batean ;
Sekulan geroztik
Ezda sosegurik
Ene bihotzean ;
Ez zen hain khaltea
Lurpean sartzea
Sortzean berean.

3

Aitaz ere bai bainan amaz gehiago,
Haren bihotz gogorraz harriturik nago ;
Harembat abere
Gaistoenak ere
Dire hobeago,
Munduan bertzerik
Ez dute umerik
Baino maiteago.

4

Aita zurea othe edo amarena,
Zoinek izan zinduten hobèn gehiena ?
Ha ! aita tristeia !
Ni beldur zurea
Zela hastapena ;
Beraz zure gatik
Pairatu behar nik
Hunembertze pena.

5

Menturaz sorthu gabe ninduzun ukhatu
Ene ama ez nahiz emastetzat hartu ;
Orduan berean
Haren bihotzean
Etsaija zer sarthu ;
Harek lagundurik
Burua galdurik
Ninduen botatu.

L'ABANDONNÉ

Qui est mon père ? qui est ma mère ?
Le désir de l'apprendre m'emporte de ce monde.
Autant abominable
Que honteux
Est son renom... ;
De cette tristesse
Comment guérir ?
Je ne le puis découvrir.

Lorsque j'ai appris, à l'âge de six ans,
Que l'on m'avait recueilli, au bord de l'eau,
Jamais depuis lors,
La douce quiétude
N'habite mon cœur ;
Moindre eut été le dommage
Si l'on m'avait enseveli
Dès ma naissance.

De la part de mon père aussi, mais bien plus de la
Part de ma mère, cette dureté de cœur me terrifie ;
(Il existe) tant d'animaux
Même les plus cruels
Qui sont meilleurs ;
Car, au monde,
Ils n'aiment rien
Autant que leurs petits.

Est-ce vous mon père, ou vous ma mère
Qui avez eu la plus grande faute ?
Ah ! père dénaturé !
J'ai bien peur
Qu'elle vous soit imputable ;
C'est donc à cause de vous
Que j'ai à souffrir
Tant de peines.

Peut-être m'aviez-vous renié avant ma naissance,
Afin de ne pas épouser ma mère ;
Au même instant
Dans son cœur
L'ennemi était entré ;
Poussé par lui,
Perdant la tête,
Elle m'abandonna.

6

Biziaren goibela bethi gogoetan !
 Dakidalarik segur enetzat khaltetan :
 Egun bakhotchean
 Nahi ber-berean
 Ganaz ametsetan
 Jauna ! ni-baitharat
 Paira-bide on bat
 Zure izenean !

7

Zareten bezalako ene burhasoak
 Horra zuen gaizkiek zer ondorioak !
 Bat eta bertzea
 Hola gerthatzea
 Hoin herbal zoroak ;
 Ama zure gatik
 Ditut gehienik
 Oñhaze oihuak.

8

Ahantzia nauzula nik ez dut sinhesten,
 Baiñan agertze horrek zaitu ahalkatzen ;
 Bai etsajen lantzek
 Sistatu bihotzek
 Lan dute sendatzen ;
 Ene arabera,
 Zuri zauri bera
 Baiuzaitzu gerthatzen.

9

Eritasan handia zer da handiago,
 Ezin ukhanaren den gogo-mina baino ?
 Gaitz-horrek hartua
 Ezin sendatua
 Nola ni bainago ;
 Burutik utziak
 Banitu guziak
 Nuke hobeago.

10

Adios aita ama bihotzik gabeak !
 Etsajaren azpiko zareten tristeak ;
 Azken orenetan
 Nigar marrasketan
 Gure oñhazeak !
 Nola harrapatu
 Behar othe gaitu
 Eternitateak ?

11

Oraino, baldin-ere bizi bazarete,
 Aithor berandu baten ordu zindukete ;
 Munduko ospeek,
 Atsegin guziek,
 Ahitze bat dute ;
 Zuen huts handiek,
 Oren lazgarriek
 Hunki bezaitzate !

M. DARROUPE,

Urruñarra. — Amerikan dona.

Quelle triste existence que cette pensée toujours présente !
 Bien que je la sache à mon préjudice ;
 Chaque jour (pour moi s'écoule)
 Dans le même désir ;
 Toute la nuit
 Dans les rêves.
 Dieu ! (faites que) chez moi pénètre la bonne patience,
 Par votre grâce !

Mon père et ma mère, tels que vous êtes,
 Voilà les suites de vos méfaits ?
 L'un et l'autre
 Vous vous êtes trouvés
 Si faibles, si perdus de sens ;
 Ma mère par votre faute,
 Je pousse des cris
 De souffrance.

Que vous m'ayiez oublié, je ne puis le croire,
 Mais vous avez honte de paraître ;
 Les cœurs blessés,
 Par la lance de l'ennemi,
 Guérissent difficilement ;
 Il me semble,
 Qu'une même blessure
 Vous a atteinte.

Parmi les maladies quelle est la plus cruelle
 Si ce n'est la tristesse que donne ce qu'on ne peut avoir ?
 Frappé de ce mal
 Je reste inguérissable ;
 Il me serait plus profitable
 Si je pouvais
 Tout oublier.

Adieu, père et mère sans entrailles !
 Tristes suppôts de l'ennemi (Satan) ;
 Aux derniers moments
 Dans les pleurs, poussant des cris de douleur,
 Quelles seront nos souffrances !
 Dans quel état pourra bien
 Nous surprendre l'éternité ?

Encore, si vous vivez, il serait temps, pour
 Vous, de faire un aveu tardif ;
 Les gloires de ce monde,
 Tous les plaisirs,
 Ont une fin ;
 Que vos fautes,
 Vos heures terribles
 Touchent (enfin) votre cœur !

M. DARROUPE,

D'Urrugne. — Actuellement en Amérique.

AUR GAICHOA !

Orra zer Jainkoak
Eraman didan :
Nere maite nerea
Nere gandikan !
Nork daki len bezela
Nere ondoan
Jostatzen ba'din bada
Orain zeruan !

1

Guraso batek seaska bati begiratuaz
Bere bijotza autzi-tartean dardaratuaz,
Aditzen nizkan itz ojek — oso kupiturikan —
Bere aurchoen far-irri ura topa nairikan.

2

Ala zeguen seaska utsa gela batean
Agerturikan gona chiki bat tapa tartean ;
Eta mañ baten gañian berriz jostalluchoak
Aurrak berekin atzo jostatzen izandakuak !

3

Chori bat zeguen kajol batian goitik zintzilik
Seaska utsa toki berean pare-paretik
Eta aren kantak edo negarrak ez dakit ziran
Aurraren gana joan nai bezela kajoletikan.

4

Ontan gabaren illuntasuna dator gañera,
Etche artako negarra banatu nai bezela
A ! mundu ontan ote da arkitzen gauz oberikan
Aur gaicho baten eriotz goiza bezin onikan !

5

Zerda bizitza ! zerda izatea urte askoan !
Gaitza ! Samiña ! gaizki izatea alkar-ondoan !
Guraso onak zertako dira negar-malkoak ?
Ez alditugu bear zeruan ingeruchoak ?

6

Au esan nuben aijen barrenak poztu naijan,
Bañan alperrik ! ichiltasunaren erdijan,
Aijen gandikan beste otsarik etzan aditzen
Beren bijotzak zekarren ill-min arena baizen.

PAUVRE ENFANT !

Voilà ce que Dieu m'a emporté :
Mon enfant bien aimé,
De chez moi !
Qui sait si encore, au Ciel,
Il ne me suit pas,
En s'amusant, ainsi qu'il le faisait naguère !

Une mère, regardant un berceau,
Avait le cœur agité prêt à rompre son enveloppe.
Je l'entendais disant ces paroles — tout émue de compassion —
Elle cherchait à rencontrer encore les sourires de son enfant.

Là, on voyait, dans une chambre, un berceau
Vide, et des langes couvrant mal un maillot ;
Et sur une table les jouets
Avec lesquels l'enfant s'amusait la veille !

Dans une cage appendue là-même
En face du berceau — chantant et se lamentant
Peut-être, se trouvait un oiseau qui semblait
Vouloir aller vers l'enfant.

Bientôt la nuit les couvrit de son ombre —
Comme pour dissiper le chagrin qui régnait dans la maison —
Ah ! dans ce monde, quelle chose est meilleure,
N'est-ce pas le matin de la mort d'un enfant chéri ?

Qu'est-ce que la vie ? Qu'est-ce qu'une longue existence ?
Le mal ! La désolation ! La vie misérable qui alternent et se suivent !
Bons parents pourquoi ces torrents de larmes ?
Ne faut-il donc plus d'anges au Ciel ?

Ce langage, je l'avais tenu afin de les consoler,
Mais en vain ! au milieu du silence,
On n'entendait autour d'eux d'autre bruit
Que celui du deuil qui oppressait leur cœur.

Hirurgarren Aiphamen-ona Kantore hunen
egilleari :

3^e Mention honorable à l'auteur du chant intitulé :

CARNOT PRESIDENTAREN HERIOTZEA

LA MORT DU PRÉSIDENT CARNOT

1894^{an} Ekainaren 24^{an}.

24 Juin 1894.

AIREA : Atharratze jauregian bi zitroin loratu....

1. Presidenta joan zauku aurthen Lyonera,
Hango populuari agur egitera ;
Jende hainitz ethorri entzunik bidera
Hari bihotzetikan esker bihurtzera.
2. Hirian zen ibili guzien artean,
Bere adichkidekin karrosan airean ;
« Biba Carnot » oihuka guziak batean
Etzen atsegin teharra haren bihotzean.
3. Bozhario handitan, bihotza zabaldu,
Aita on bat bezala hura da mintzatu :
« Populuak behar du ni ganat hurbildu »
« Guzieri nahi dut eskua tinkatu ! »
4. Alde orotarik jin jendea ospeka
Karrosaren inguru oro ezin koka
Gaichtagin batek dio kolpe tzarra bota.
Eta ments gabe utzi puñalaz jo eta.
5. Ohartu bezain sarri Prefeta alchatu,
Gaichtagina jobatez-lurrerat etchatu ;
Han zuten berehala gathez estekatu
Bertzenaz nahi baitzen ichil espakatu.
6. Zauri hura ikhusi zuen medikua
Ilhun jarri zen arrunt gogoetatua
Zeren puñala baitzen barnegi sarthua,
Hain zen izigarria ! ezin sendatua !
7. Mundu guzia eman nigar marrasketan
Deus onik ez ikhusiz Presidenta baithan.
Mediku aiphatuak ziren ikharetan
Beldurrez zakioten hil beren eskutan.

Notre Président est allé à Lyon,
Saluer la population ;
L'ayant appris la foule s'est portée à sa
Rencontre, afin de lui témoigner sa vive reconnaissance..

Le Président, entouré de ses amis, s'est promené,
En carrosse, au milieu de la ville ;
Tous d'une voix unanime ont crié : Vive Carnot !
Son cœur tressaillait alors d'allégresse.

Débordant de joie, il a épanché son cœur ;
Il a parlé comme un bon père :
« Que le peuple approche, a-t-il dit,
Je veux serrer la main à tous ! »

De tous les côtés, les gens se pressaient autour de
Sa voiture ; alors un malfaiteur l'a
Frappé d'un coup de poignard qui l'a
Laisse sans connaissance.

Aussitôt qu'il s'en est aperçu le Préfet s'est
Levé et il a jeté à terre le malfaiteur ; tout
De suite on l'a chargé de chaînes, sans quoi il
N'aurait pas tardé à fuir.

Le médecin qui examina la blessure
S'attrista et devint tout pensif ;
Le poignard avait pénétré trop avant :
Elle était terrible, inguérissable !

A ce spectacle tout le monde pleura et se répandit
En clameurs : le Président était dans un état lamentable,
Les médecins les plus renommés tremblaient
De le voir expirer dans leurs bras.

8. Zauria lothu eta aphurbat eztitu,
Aphetz baten hitz onak gero entzun ditu ;
Girichtino zelakotz haurretik izatu
Jaunaren aintzinean bakean agertu.

9. Gizon prestu, zuzena zen guziendako
Harek egin ongia ezda ahantziko ;
Haren heriotzeaz gare orhoituko...
Kampotarra behar zen puñalaz jotzeko.

10. Italiako seme Lyonerat jina.
Frantzian hik eman duk dolu hanitz mina
Bihotz gabeko gizon, itsu gaichtagina.
Ezduk hiretzat aski urkabeko fina.

11. Azken hitz bat zuretzat Gobernamentua,
Gaichtaginez hari da bethetzen mundua ;
Har zazu indar eta azkar animua
Nausitzen ez utz etsai madarikatua.

JOANNES OXALDE.

Bidarratarra.

La blessure pensée, un calme relatif s'étant produit,
Le Président a entendu les bonnes paroles d'un prêtre ;
Chrétien dès son enfance, c'est en paix qu'il
A paru devant le Seigneur.

Il était homme sage, juste pour tous ;
Le bien qu'il a fait ne sera pas oublié ;
Nous nous rappellerons sa mort....
Il a fallu un étranger pour le frapper.

Toi Fils de l'Italie, venu à Lyon,
Tu as plongé la France dans un deuil cruel ;
Homme sans cœur, aveugle malfaiteur
Les affres de la mort ne punissent pas assez ton crime.

Un dernier mot à vous, Notre Gouvernement :
Le nombre des malfaiteurs va augmentant :
Soyez fort et restez ferme,
Ne laissez pas grandir l'audace de
L'ennemi maudit : « L'anarchiste ».

JEAN OXALDE,

de Bidarray.

4^{ren} Aiphamen ona Kantore hunen egilleari :

MAÑU

JUAN IGNACIO URANGA

Donostiarra.

4^e Mention honorable à l'auteur du chant intitulé :

MAÑU

JEAN IGNACE URANGA,

Saint-Sébastien.

5^{ren} Aiphamen ona Kantore hunen egilleari :

MAITE NAIZIAN

FRANCISCO LOPEZ ALEN,

Donostiarra.

5^e Mention honorable à l'auteur du chant intitulé :

VOULANT AIMER

FRANÇOIS LOPEZ ALEN,

Saint-Sébastien.

1898

ESKAL-BESTAK 9681

ESKAL-BESTAK

KHAMBON

FÊTES BASQUES

A CAMBO

ESKAL-BESTAK

KHAMBOKO HERRIAN, ESKAL-BATZARRAK,

*Heuskaraz izkiribatzaileen indar-
neurtzetako eman bigarren garait-sarija,
Kantu hunen egileari :*

AITASO BATEN SOLHASAK

BERE ILOBASO CHUMEARI

1.

Ikhesten dugu gizon bat aitasotu denean,
Etch' aintzinean jarririk alkhi baten gainean :
Bere haurrak ezarririk bizi-molde onean,
Ilobaso chume bati dagona solhasean.

2.

Ez-da mendi-muthurrean elhurra churiago,
Aitasok buru gainean bilhua duen baino ;
Bainan bozki eta chuchen mintzo baita oraino,
Atseginez entzutera ilobasoa dago !

3.

Aitasok erraiten dio : Zuk, ene haur maithea,
Ikhasia duzu ongi Jainkoaren legea ;
Nahi dauzut erakhutsi lurreko bizitzea :
Nola izan dezakezun zorionez bethea.

4.

Egun guziz artharekin othoitz' azu Jainkua,
Eta atchik ait' amentzat aphaltasun osua ;
Orhoit zaite badutela manatzeko eskua ;
Hura khenduz urrun dago bizitze bakezkua !

5.

Arthizarra agertzean, jaiki zaite ohetik,
Zeren ez baitu egunak oren ederragorik ;
Bas' oilharrak orduan du kantatzen oihanetik,
Baita burua choriak azaltzen hegal-petik.

FÊTES BASQUES

CONCOURS DE POÉSIE BASQUE

A

CAMBO

*Deuxième prix décerné, par l'Association
Basque, à l'auteur du chant intitulé :*

LES ALLOCUTIONS

D'UN

GRAND-PÈRE A SON PETIT-FILS

1.

Nous voyons un homme devenu grand-père,
Assis sur un escabeau, devant la maison ;
Il a déjà établi ses enfants,
Et c'est à son petit-fils qu'il parle.

2.

La neige n'est pas plus blanche au sommet de la
montagne,
Que les cheveux qui couronnent sa tête ;
Il est gai, néanmoins, et son langage est droit,
Quel plaisir pour son petit-fils que de l'écouter !

3.

Le grand-père lui dit : Vous, mon enfant,
Vous avez bien appris la loi de Dieu ;
C'est seulement au sujet de la vie terrestre que
je veux vous montrer :
Comment vous la pourriez rendre heureuse.

4.

Tous les jours ayez soin de prier Dieu,
Soyez obéissant envers vos parents ;
Ils ont le pouvoir de commander,
Si l'on méconnaît cette autorité, adieu la vie
paisible !

5.

Levez-vous lorsque paraît l'étoile matinière ;
C'est la plus belle heure de la journée ;
C'est alors que dans le bois s'élève le chant du
faisan,
Et que de dessous l'aile émerge la tête de l'oiseau.

6.

Ihizi hek ernatzean eman zaite lanean,
Lana baita errechago goizik hasten denean ;
Bozkariatuko zare iguzki' agertzean,
Phentze-lilien usaina zureganat heltzean.

7.

Mahainean lagunekin zaudenean jarria,
Izan zaite alegera eta maithagarria ;
Lotsaz dagon beharrari eginaraz irria,
Sor dakijon bihotzean bozkario berria !

8.

Eskuarazko mintzatzea atchik' azu mihian,
Ez baita ederragorik zeruaren azpian ;
Nola arrano-zabarra pimpiriñen artian,
Halaber dago eskuara hauzokoen erdian.

9.

Eskualdun andretan dira baliosenak bethi ;
Erlea bezain langile, bildotsa bezain ezti,
Iragaiten zarenean hogoi urthetan goiti,
Beha zozu hurbildanik halakoa den bati.

10.

Azken urthea ez badu aurthen ene biziak,
Erakhutsiko dauzkitzut Heuskal dantza jauziak
Nik aitasotua gatik, ez ditut ahantziak,
Ikhasi behar ditutzu, ahal badut, guziak.

11.

Aitaso hasi zen kantuz muchikoen airean,
Piko guziak izartuz bi zangoez lurean,
Eta ez dute etsitu ongi ikhasi artean :
Halako aitasoa da maithagarri etchean !

Pierre DIBARRART,
Baigorrikoa.

Lehembiziko aiphamen-ona kantu hunen
egileari : *Ait' onak illobari solas-cho bat* : Ar-
tola, Rosario, Donostiarra.

Bigarren aiphamen-ona kantu hunen egi-
leari : *Aitaso baten solhasak bere illobasoeri* :
Duhaldebehère, Pierre.

6.

Mettez-vous au travail dès que se réveillent ces
volatiles ;
La main d'œuvre matinale est la plus facile,
Quelle joie sera la vôtre au lever du soleil,
Lorsque le parfum des fleurs de la prairie
frappera vos narines.

7.

Quand vous serez à table avec vos camarades,
Soyez avenant et aimable ;
Faites que le pauvre honteux connaisse le rire,
Et que la joie renaisse dans son cœur !

8.

Gardez l'usage de la langue basque,
Il n'y en a point de plus belle sous le ciel ;
Tel que l'aigle chargé d'années au-dessus des
papillons
La langue Heuskara plane au milieu des langues
voisines.

9.

Les meilleures des femmes sont celles du pays
Heuskara :
Laborieuses comme l'abeille, aussi douces que
l'agneau,
Lorsque vous aurez dépassé les vingt ans,
Regardez de près à l'une de celles qui aura ces
qualités.

10.

Si cette année ne termine pas ma carrière,
Je vous montrerai les sauts basques ;
Bien que devenu grand-père, je ne les ai pas
oubliés,
Il vous faut les apprendre tous, si cela est en
mon pouvoir.

11.

Le grand-père commença, en chantant sur l'air
des *Muchiko*.
A cadencer sur la terre tous les pas de cette
danse,
Et il n'y eut de trêve que lorsqu'elle fut bien
apprise ;
Que la maison est radieuse avec un pareil
grand-père !

Pierre DIBARRART,
de Baïgorry.

Première mention honorable à l'auteur du
chant intitulé : *Une parole du grand-père à son
petit-fils*, Artola, Rosario, de Saint-Sébastien.

Deuxième mention honorable à l'auteur du
chant intitulé : *Allocutions d'un grand-père à
ses petits-fils*, Duhaldebehère, Pierre.

LEHEN GARHAIT SARIA

IRRINTZINA BAT MENDIAN

AIREA : « Sor lekhua utzis geroz ondikotz..... »

1

Gau eder batek ninduen hatzeman mendi gainetan ;
Iguzkia aintzinean emeki etzan zitzautan ;
Azken abereak etchera zoazin ene oinetan,
Bazterrak inharrosiz beren joare-soinu ederretan.

2

Lehen izarrak doidoia ziren orduan agertzen,
Harrabots guziak ere hasiak ziren ezitzen,
Gaua,hura ere, ari zen kapa beltzaren hedatzen,
Bitartean etche batzu oraino ikhus zitezken.

3

Hor, sumatzen dut artzain bat mendi artetarik kantuz
Zakizkan eskualdun aire zaharrak charamelatuz,
Botz hura bakharrik orduan mendi gain hetan adituz
Beha nindagon lorietan eta burua zutituz.

4

Bat-batean, kantu orde, oihu latz bat dut aditzen
Bere samintasunean ^{ninduelarik} harritzen ;

Mendiko harroka zaharrak zituen borthurki yotze,

Eta lekhu basa hetako oiharzunak iratzartzen.

5

Oihu gora, garratza zen nola emaztearena,
Azkarra eta borthitza nola gizonkiarena,
Artetarik iduri zuen basa ihizi batena,
Zertan edo hartan hargatik oraino yendearena.

6

Luzaz zuen inharrosi mendi hetako bortua,
Iduri zuen hastean norbait zela minhartua,
Irri lotsagarri batean zen aldiz akabatua,
Bide-chendran nindagolarik oraino ni baratua.

7

Ibañetan ere, lehen, *irrintzina* aditu zen
Arrolani zitziola odol guzia gatzatzen,
Alferretan ditu mendiak deihadarraz dardaratzen
Eskualdunen irrintzineak du ichiltzera bortchatzen.

8

Gogoetan nintzalarik, osoki zen ilhundua,
Zerua zuten izarrek mila itzez itzatua,
Bortuan aldiz irrintzina aspaldi zen ichildua,
Haranean lanhoek zuten hasia beren gudua.

9

Azken aldikotz behatu nituen bortu ilhunak :
Iduriz, orduan zautan ihardesten oiharzunak :
« Mendian entzunen direno hoin ederki irrintzinak
« Ez beldurrik izan galtzera doazila Eskualdunak ! »

BARBIER, de Saint-Jean-Pied-de-Port.

Bayonne. — Imp. Lasserre.

BIGARREN GARHAI SARIA

LILLURATUA

Arrats gochoric iragan dut joan den neguan. Ene hauzoan bada aphez misionest bat, Chinatic zembeif demborarentzat herrirat ethorria, bere osasun ahularen ahalaz hazcartzeco. Zembat gauza icusi duen aphez misionest horrec! Zembat icasi! Eta icusi eta icasi dituen gauzac zoin pulliki dituen erraten! Haren aho chiloari beha han egoten ginene, su-pazterrean, gaztainac erretzen hari zirelaric; eta haurrec berec, lecuco naiz, haurrec berec ahurtara bat gaztaina baino nahiago zuten misionestaren ichtorio bat.

Arrats batez, berri tchar bat ekharri zuten misionestaren etcherat : Herrico muthil gazte bat, etcheco-seme ona, bainan arina eta alferra, preso hartu zuten, macur handi bat egin zuelacotz. Guziac harrituac ginauden. Aita misionestac, begiac zerurat althaturic, othoitz khartsu bat egin zuten. Goibeldu zen haren begitarte arraia; bi aldiz, hats-beherapen samin batekin, adiarazi zituen hitz hauc : « Gazte gaichoac! Gazte maiteac! » Eta gero, haurrac, sei haur. bere ondorat bilduric, erran zioten : « Gaur zueri, haurrac, nahi dautzuet ichtorio bat condatu; zuentzat da bereziki ene gaurco ichtorioa! Atzarriric beraz, haurrac! Eta zuec ere, burhasoac, atzarriric! haurrentzat baino are berezikiago zuentzat baita ene ichtorioa :

« Beraz, duela biz-pa-hiru urthe, Chinan nintzen, oihan handi eder batzuen erdian bizi. Goiz batez, argi urratzean, bideari lotu nintzen eri baten icusterat joateco. Hainitz urrun baitzen bada eri hura : hamar bat orenen bidean. Urthusic, makhila bat escuan, abiatu nintzen bozic; dembora hauta zen : zeru-zola garbi, airea gocho, bidea legun. Argiari, iguzki sortzeari agur egiteco bezala, choriac arbola guzietaric cantu errepicaz hari ziren. — Zembat chori mota! Churi, gorri, urdin, hori, handi, ttiki. — Zembat cantu mota! Aphal, gora, lodi, mehe, airos, ilhun. Eta jo hunat, jo harat, arbola bate tic bertzerat elgarren ondotic hegaldaca, oro garrasia, oro zilzica, chori hec iduri zuten haurerne multzu bat atchermanca hari.

« Iguzkiac berotzearekin bizkitartean, emeki-emeki geldituche ziren, geldituche eta ichilduche. Hamar orenetaco irian et-zen gehiago ez choriric.ezcanturic ageri. Iguzkiac bazter guziac erre nahi zituen : haize ephel ephel batec doi-doia dardaratzen zituen arboletaco hosto zimailduac. « Eta ni banindoan aintzinat, beti bakharric, izerdia zurrutan, egarriac ithoa. Hameketaco heinean heltzen naiz itzalpe loriagarri baterat : oihanaren ezkin-ekinean, bertzetaric berech hogoi arbola eder, haiziti pullit bat iduri ; ur chirripa bat garbi bat aldean, harrocatic heldu ; lurra belhar gizen luze batez estalia eta belharpean, husu husua, lore gorri zabal batzu. Nor et-zen han

« geldituco, zazpi-zortzi oren bideren ondotic, « asiki baten jateco, ur garbi hartaric zembeit hurruparen edateco?... Jartzen naiz beraz harroca « mutur batean. Erran bezala, bazter guziac ichilzauden.

« Bet-betan, ezkerretaric, arbola loratu baten « gainetic hasten da chori cantu bat; bainan nolaco cantua! Egundaino ez aditu, ez asmatu ez « nuen bezalacoa : erdi irri, erdi nigar, ezti bezen « samina. Halaco bat egiten daut bihotzac, goibeldura batec, lazadura batec barnea hartzen. « Jekitzen naiz, eta emeki emeki, zango puntten « gainean, cantua heldu zen arbolatic hurbiltzen. « Chori ttiki bat zen, osoki pullita, elhurra bezen « churi, cucuruzta horiño batekin. Eta beti cantu « berean hari zen. Bozcariozco, auhenezco cantua! « — Norat zoazi bada, chori ttiki maitea? Ala « eztaietarat, ala hobirat?... Adarrez adar, aldachcaz aldachca, beti jausten hari da choriñoa, « eta haren begiac lurrari, lurrean daiteken zerbeiti itzatuac dagotzi. Behatzen dut nic ere choria beha dagon tokirat, eta zer dut icusten?.....

« Suge bat izigarria, belharpean eta lorepean « biribilcatua, buruaz landa osoki gordea. Han « dago geldi geldia, maltzur maltzurra, ahoa idekia, odola bezen gorri, ingurunaco lore zabalac « iduri; begiac, sua dariotela, choriaren begietan « landatuac. Eta chori gaichoa, begi heien dirdirac bozcariatua, izitua, choratua, hitz batez « *lilluratua*, chori ttikia beti jausten hari da, eta « adarretic adarrerat, aldachcatic aldachcarat, « sarcorrago eta lazgarriago da haren cantua.

« Azkenean, hagoniaco intzina bat egiten due-laric, erortzen da sugearen ahorat. Laster iretzia, laster hila bailitake! Bainan ordu berean « makhila casca batez calitzen dut sugea, eta chori « ttikia ttiuttaca ateratzen da bere hobi bizitic, « eta chimizta bezala arbola cascoac goiti zerualde hegaldatzen. »

Oi, zer ichtorio pullita! ginuen guziac batean erran, misionesta ichiltzearekin. « Bai, pullita da, « zaucun ihardetsi, pullita eta iracaspén handia « dakharkena. Choriaren ichtorioa, sobra gazten « ichtorioa! Menturaz egun preso hartu duten « muthil gaztearen ichtorioa! Zembat gazte ez du « ifernuco suge zaharrac lilluratzen! Orhoit, haurrac, etsaia maizenic lorepean gordetzen dela, « gordetzen munduco gochokerien, arinkerien, « ergelkerien erdian. — Haurrac, gazteac, othoitzaz, lanaz, burhasoen itzalpean biziz, ihes suge « madaricatuari; eta zuec ere egun batez, ene chori « ttikia bezala, zorionezco errepiketán hegaldatuco zarete zeru alde. »

L. DIHARASSARRY,
Orzaizeco erroitora.

NEKAZARI DOATSUA

Nere pipa chit bete, ta suaz pizturik,
Keia goruntz, chistua lurrera botarik;
Banetorren echeruntz bertsoak kantatzen.
Buruan berez berez ziranak sortutzen;
Zeiñtzuek diran letraz gaur jarritakoak,
Izan arren balio oso gichikoak,
Ala ere nai nuke emenchen lenbizi,
Orain irakurtzera jendeari asi.

Fumatzen duela ere Erregek badakit nik,
Eizean aspertutzean asnas artzen jarririk;
Ordea, artu ez arren onen belar merkerik,
Aposte egingo nuke ez diola gustorik,
Abanoari ark artzen, nik pipari lakorik.
Gañera ez dala bizi lasai nerau bezala,
Basotik ez daramala nere poz au echera,
Koroia da chit pisua, izan arren ederra,
Itzalgarri ariñ bat da, berriz nire kapela,
¿ Aiiñ, ardura gichirekin, non bizi ni onela?
Badakit Errege dela ondasunez chit aundi,
Baita askoz dituala gehiago eskalari,
Nola eziñ dion eman premiadundari,
Atzetik gero dabiltzaz gerra giñan berari,
Baña ¿ al da nere kontra bear bada bat ari?
Merkataria sarritan dijoa fumatuaz,
Feriatic echeruntza burua urratuaz;
Atsegiñik artu gabe pipako ke gozuaz,
Gogoratu oi dalako bakarrikan diruaz,
¿ Noiz dijoa ni bezela bertsoak moldatuaz?
Tratu ona egiñ arren ark ezin du kantatu,
Gehiago irabaztea zuelako pentsatu;
Aberastutzen ari da, baña, ezin da poztu,
Zulo bat du biotzean ezin dana zerratu,
¿ Ta urteko laboreaz ni enaiz bai, kontentu?

Nere umeai begira atsegiñez nago ni,
Ematen didatelako denak poza neroni,
Enuen nai izaterik semerik merkatari,
Baizik arrantzale, artzai, ta geyen nekazari,
Zergatik ori diodan beti eska Jaunari.

Nekazaria lurrean dalako zimendua,
Artzaia da bigarren, edo ondorengua,
Arrantzale irugarren, dudarik gabekua,
Oñean egongo bada zutik, lerden mundua,
Bestela elizateke gizartea galdua?

Bizibide oyek dira nere ustez onenak,
Iruetan nik dakuskit kristaurik garbienak,
Iruetan leyalen ta Euskaldunik zallenak,
Gordetzen dituztelako oitura on zarrenak,
Antziñako guraso on gureak zituztenak.

Orrela bada maiz neri alaitzen zait barrua,
Oroitzean guregatik bizi dala bekua,
Oroitzean guregatik bizi dala goikua,
Nola Markes, zeñ Errege, berdiñ Aita Santua,
Kantaturik gure lana dala bedeinkatua.

Irurogeita bost urte euki arren gañean,
Oraindikan zama ona deramat bizkarrean,
Berrogeitak daramazkit igaroak lanean,
Idi, gurdi, laya, golda, orobat aitzurrean,
Ala ere miñez enaiz iñoiz etzan oyea.

Egia da zartu naiz ta, azkena zait urbiltzen,
Bañan, enau asko orrek beñik beñi ni beldurtzen,
Ator Eriotza ator, Zerura joan naiten,
An ez dalako negarrik iñoiz ere entzuten,
Eta kantua bakarrik zatalako gustatzen.

FELIPE ARESE Y BEITIA.

Otchandia noko.

1912

DONIANE GARAZIKO BESTAN, NEURTIZ GUDUA

Lehen garhait saria izatu [duen cantua

LARRAZKENA

AIREA : *Salbatore gora da, Garazi aldean.*

Zoin e — der Lar — raz — ke — na gu — re her — ri — e — tan, He — go — a fi — ru — ri — kan men —
di baz — ter — re — tan! O — do — la har — ro — tzen du o — ro — ri zai — ne — tan: Jan — tza pi — ko bat
ni — ro e — man lo — ri — e — tan!

1

Zoin eder Larrazkena, gure herrietan,
Hegoa firurikan mendi bazterretan!
Odola harrotzen du orori zainetan:
Jantza-piko bat niro eman lorietan!

2

Mendian, Jainkoari hurbil da artzaina,
Ihatze ederrenen erdian etzana;
Ardiak han badauka sorho gizenena,
Otseho zalurikan doa harat-huna.

3

Arthoak bildu eta, alhor bazterretan,
Su handi batzu dira phiztu astiritan;
Suaren aintzinean, zerbait eskuetan,
Mustro batzu huna nun agertzen zauzkitan!

4

Su eskuin eta ezker, su alde orotan,
Huna mendia ere nun eman den sutan!
Zer da bada gerthatzen gure tokietan?
Gerla bat othe zauku alchatu gau huntan?

5

Haimbertzenarekin dut dei-adar bat entzun...
Arrolan othe zauku agerturen nihun?
Bainan ez, *Altabizkar* gelditzen da ilhun....
Errakinen erretzen ari ziren urrun!....

6

Gau on, azkon-zaintzale, gau on, dei-adarra!
Gerlarikan ez bada, banoa ohera;
Bihar goizean gero goizik ihizira,
Chingarrez hampaturik nere difizira.

7

Argi-hasteko horra nun nizan heldua,
Gorri gorria huna nere apegoo!
Go'mak, zuhurra bahaiz, koloma gaichoa,
Zalurik, gora gora, hegaldaka hoa!

8

Gaztenak irriz daude, ezpainak ageri,
Pampaka hagak ditu lurrerat ichuri.
Ihatze gorri pean, kasu onjoari,
Brosta barnean aldiz, lo den erbiari!

9

Huna orai letsunak, karranka handitan,
Erregelatuak, han, zeru gorenetan....
« Letsuna, lerro-lerro, lerro-lerro betan ! »
Arbi-jorrazaleak heier so landetan....

10

Mahastien-artetik, oihu-irrintzinak
Mendi pareter gora dohazi ozenak.
Saskietan mukurru mahatsak emanak....
Oi, zer arnoak aurthen, ... zer karrosañoak! (*)

(*) Mot garaztar signifant... la douce ivresse qui fait
joyeusement tituber.


11

Chederetan choria, lephotik hartua,
Dilindan horra nun den horchet urkatua ;
Chori-berriketari hambat maitatua,
Kanta-zahuk, gaichoa, hire hil-kantua !

12

Ostoak ja erortzen dira abiatu,
Mendi gainean aldiz, artzaina da hoztu,
Bulumbaka ardiak jautsarazi ditu....
.....
Kampoan zen eria barnerat da sartu !

J. BARBIER,
Vicaire de la Cathédrale,
Bayonne.



BI-GARREN GARHAIT SARIA IZATU DUEN CANTUA

LARRAZKENA

1

Ekhiari unguru, lurra bethi doua.
Gai eta eguna, hotza eta beroua,
Ourtheke laur aroak, laurak tregoaz ber,
Lurra dereizkigu ekhiari esker.

2

Choriek lorian charamelaturik,
Ostoil berriz eta liliz aphaindurik,
Agertzen da eder, orok berant etsia,
Aroetan lehena : houra bedatsia.

3

Hartarik lekhora, suia dariola,
Lanphide gaitzetan, izerdiak isola,
Udak, sarthu eta, ezarten du gunez,
Lurra estalirik aberastartzunez.

4

Sail baten burian, langilia baratzen ;
Berriz saillialako, harek du hats hartzen ;
Uda ondarrari, larrazken hastian,
Laboraria dago aphur bat jargian.

5

Egunaz orano beroua eraisten,
Gai hochpilek haatik sasiak bilainsten ;
Larrazkena doua ; uztak zohi dira ;
Lehiaz hen biltzen hasi behar gira.

6

Eta artho gozoz, organ sabelak bete,
Bat besten ondotik, barnerat doazte ;
Chourizaliak sarri, saldouan, arratsetan,
Bilduko dirade, irri, papaitetan.

7

Gizenik, mahatsak, saskietan mukhurru ;
Zuhanari daude bildurik unguru ;
Ardoua, gorriturik, jelkhiren da garbi ;
Harek ezariren begia zoharbi.

8

Sagar berantiarrak, zuhain adarretan,
Horiturik zauden, usain hobenetan ;
Etehekanderiak, artha oso hartuz,
Baldian ezari tu, herrokak luzatuz.

9

Gaztañatze goran, erkhaiztaz mardotsa ;
Nouiz zabalturen den haiduru bildotsa ;
Bertan izanen da gaztañaz erauntsi ;
Beharko zarthana laster iharrausi.

10

Ainherak hasirik hitzarmen egiten,
Urzouak, ipharretik, beren bidez jiten ;
Hegachtu zuhurrak, negia senditurik,
Hotzari ihesi dira abiaturik.

11

Sabaiak betherik dutugu belharrez,
Behiak, orano, kanpouan esnarrez;
Jin bedi izotza, sar bedi negia,
Kabalek ez die ukhenen gosia.

12

Ogia hutchan da, arthoua eraikirik;
Borthako gizona hor dabil larririk.
Zertarik ez dugu etchian gaintika?
Laboraria ez dio *Phetirik* zimika.

Joanes GARAZTARRA.

Hirur-garren garhait saria izatu duen cantua

U D A Z K E N A

AIREA : *Lo, lo, ene maitea.*

1

Urtheko laur denborak Jainkoak eginak,
Guzier eman ditu aro desbardinak,
Batzu eztiak bezain bertzeak saminak,
Udazkenak derauzka maithagarrienak.

2

Neguko aroak du kanpoa bilhuzten,
Primadera gochoak beztituz aphaizten,
Uda bero-suharrak hazkurriak ontzen
Eta udazkenari mozkinak igortzen.

3

Mendi gaintetan eta zelhai zabalean,
Lanarekin gudukan hari garenean,
Erauntsi gaichtoaren gaude beldurrean,
Udazken baliosa ethorri artean.

4

Erran-zahar bat ere dugu aiphatuko,
Udan behar garela bermatu neguko.
Alfer nagi zoroer zer da gerthatuko,
Udazkenean deusik ez dute bilduko.

5

Ethorri zaukunean beraz udazkena,
Lurreko onthasunak berekin dauzkana,
Hazkurrien arthatzen bermatu zarena
Horra nun duzun orai biltzeko orena.

6

Udazken onaz gare baliatu behar,
Bilduz egun gauza bat, bertze batzu bihar,
Artho, mahats, gaztena, sagar eta ilhar,
Oi! gero hek saltzean zembat urhe-zilhar!

7

Lur langilea baita geroaz orhoitzen
Udazkenean ditu ogiak eraiten.
Ondoko uztailean da bozkariatzen,
Ahurka erain eta orgaka du biltzen.

8

Arratsetako lanak ditu udazkenak
Ilhuntean dituzte erretzen gaztenak,
Mailuaz jo eta jan ari dire denak,
Gero artho churitzen bertze bi orenak.

9

Udazkenak eria alegeratzen du
Orduan du aurkhitzen asko sendagailu
Mendietako aire, ur on, eta mainhu,
Eskual herrirat dire sendatzerat heldu.

10

Udazkenak derauku hegoa igortzen
Orduan hegastinak neguaz orhoitzen.
Ipharretik usoak dira hegaldatzen,
Eta ihiztariek sareak hedatzen.

11

Goizean goiz entzunik Meza igandetan
Argiko daude tente mendi gorenetan,
Gero zer atseginak diren heien baithan
Hatzemanez usoak ehunka saretan.

12

Udazken azkenean neguari agur!
Erranez : to, egintzak horma eta elhur
Badiagu hazkurri, zuhain eta egur
Hire indar guzien ez gaituk ez beldur.

PIERRE DIBARRART

Baigorry-koa

BIDARTEKO LAMIÑA



ustallan

Gau batez, azken ~~harria~~,
Lehor bidez nindabillan
Maiz ezti zaitan bezala,
Noiz, lamiñ zelakotz ezen,
Itsasotik alchatu zen
Emazte baten itzala.

Iduri, hain zen ariña,
Ur arrapotik egiña,
Trabako zituen oñak,
Nahiz, agertu orduko,
Nitarat helarazteko
Apaldu ziren tiroñak.

Etzen zahar, etzen gazte :
Bi aditsuak nahaste
Zauzkien begitartian...
Hortaz nuen asmatu, nik,
Etzela chori gizenik
Sartuko hunen hartian.

Gaitzitu zitzaion aski
Nik gogoratua naski
Zeren, bertze hitzik gabe,
Gora ihardetsi zautan
Aspaldiko demboretan
Zela Bidarteren jabe.

« Ni ninzen zuen lamiña,
« Egiazko erregiña...
« Eta denen ontasanak,
« Batzuetan bat banazka,
« Bañan maizago ahurka,
« Eman dauzkitzuet denak.

« Zuen airia ezta hotz
« Hastetik duzelakotz
« Nere hatsaz epheldua,
« Eta bi begiez behiñ
« Ukhitu baitut, hain urdiñ
« Dagoke zuen zerua.

« Ez baitziñezten, gaichuak,
« Bildotcha bezin malchuak,
« Zor dautzuet nigar asko...
« Hatik nigarrek, halere,
« Bazuten aski bothere
« Zuen aberatsazteko.

« Busti zituzten lurretan,
« Ideki ziren, halatan,
« Hamabortz bat ithurbegi...
« Orai, itsaso bazterrak
« Derabillzkan ur bakharrak
« Zuentzat daudez zillegi.

« Eta delarik hoin eder,
« Sor ohatziari aiher
« Bazaitezketen oraño ?
« Non, arrotzek beitiote
« *Sosari* behatu ote
« Dukezuen egundaño !...

« Lotzaizte beraz lanari,
« Ikhusiz zer diren hari
« Sahetseko bi herriak.
« Nahiz, atzo, entzun dutan
« Dituela, bero hautan,
« Idorrazi egarriak ».

ETIENNE DECREPT.

1911^{ko} Agorrillaren 20an.

KHANTU BERRIAC 1906

SUYETA LEBRADA

(Airia) Igande Goizño Batez Deliberaturic

1^{en} BERSUYA

Lekhu famatua da laphurdin Azparne
Ihiztariac ere sartçen ditut barne
Egoiten ez badire han erbiac erne
Gathuyac yartçen çaizte biçiaren berme.

2^{en} B.

Lehengo coçinerec erbikiz lebrada
Gathua ere on da bertçeric ez bada
Gomitatu ninduten afari hartara
Gogotic yan nituen lauaçitatara.

3^{en} B.

Garhatoi colorio çen eta guiçena
Minou deitçen guinuen guc harençiçena
Hori adituz gueroz bera heldu çena
Haren harrapatçian ez çitaken pena.

4^{en} B.

Chakhurric gabe diren ihiztarietan
Ez da behar fidatu soberaric hetan
Urrun curritu gabe akhituz larretan
Malsuaguac dira etche cabaletan.

5^{en} BERSUYA

Ez dugu ez yan gogo bethi gathukia
Ardura sanya baitu gormantac yakia
Badugu aski saltsa goraçin errakia
Hartaric orai ontsa satifatu guia.

6^{en} B.

Gathu hura biçi çen deusic gosta gabe
Dotçena bat saguren ez baitçen herabe
Berac cherkhatçen çuen umendaco ere
Ernari handia çen segurki halere.

7^{en} B.

Nic ez baitut nahico holaco gomitic
Sarthu lekhtutic yinçait gathuac tripatic
Bi buru ba çirela segura badakit
Ama semiac yuanac ene açitatic.

8^{en} B.

Esker mila lagunac çuen gomituyac
Nic ere plaçerekin bai acceptatuyac
Suyet horren gainian emantut khantuyac
Ez dira maiz salsatçen erbitçat gathuyac.

SUYETA LERRADA

(Aritz) Iyande Goizea Bales Deliberaturic

1^o BERSUA

Iakhu famales da lathurduin Arpanne
Historico ere sartor diler barne
Egotten ex barne dan erbiaz erne
Galtuzac tartan caiste higitan barne

2^o B.

Galtuzac ere ofi da bertorie ex barne
Gomitate indudutan abai barne
Gogoliz yan nileen jantuztuz

3^o B.

90
32
<hr/>
122
88
<hr/>
34

4^o B.

5^o BERSUA

Ex dugu ex yan gogo dilli gathuzia
Arduac sartuz dilli gathuzia sartuz
Iadugu azid sartuz gathuzia sartuz
Iaduzia ordi ordi sartuz gathuzia

6^o B.

Docena bat sartuz ex bertorie bertore
bertore bertore yan amanduz bertore
bertore bertore yan sartuz bertore

Noit

Briou

Avoir

2 Bode

44
44

Terrim

88

7^o B.

Iakhu famales da lathurduin Arpanne
Historico ere sartor diler barne
Egotten ex barne dan erbiaz erne
Galtuzac tartan caiste higitan barne

Iakhu famales da lathurduin Arpanne
Historico ere sartor diler barne
Egotten ex barne dan erbiaz erne
Galtuzac tartan caiste higitan barne



1902

URRUÑAKO BESTAK

LEHEN GARHAIT SARIA :

ESKUARAREN ALDE

ESKUARA

Erdaldunak izan ditezela, ezachol gure mintzaira ederraz goiti-beheiti, eluke horrek gauza handirik erran nahi. Zer dohakigu guri ere Erdaldun hek mintza ditezzen gisa batera edo bertzera?

Erdaldun batzuk begietan hartua izan dezatela gure mintzaira, eta dagoitela gerla, hori ere adi edo kompreni ditek hein batetarainokoan.

Bainan nihola ere adi ezititekena da ikustea Eskual herrian sortzeko zoriona izatu duten jende batzu amodiorik gabe beren amaren altzoan ikasi mintzairarentzat; ekarriak haren bazterrerat uzterat, diotelarik goraki : « Eskuara ez dugula galtzerat utzi behar! Eskuara behar dugula bizirik atchiki! Eskuaratik zer atherako dugu? Eskuarak zer emanen daroku? » Ondikotz, eztire bakharrak egungo egunean horrela mintzo direnak; eta bitartean errech da ikustea Eskuarak bertzelako errenkurarik igurikitzeko zuela gure ganik.

Zer dakigun Eskuarari esker

Eskuaraz mintzo garelakotz badakigu gure arbasoak nor eta zer ziren; badiote gerla zela hekien lanik maitena; gerlan harituak direla Erromako harmadekin eta bertzerik hainitzekin; eta egundaino eztiotela nihori amorrik eman; eztiuela egundaino nihork garraitu; Eskualdunek, bai, behin baino gehiagotan jo eta zafratu dituztela Erromanoak, Frantehimanan, Moroak eta bertzerik ere bai.

Eskuarari esker, oraino, badakigu gure arbasoak zirela gizon batzu itsasoan ez leihorrean nihoren beldur etzirenak.

Eta halako gizon batzuen semeak garela jakitea;

gure burasoak nolako gizonak ziren erraiteko ahala eta atsegina, ezteuskeria batzu othe dire?

Zer garen Eskuarari esker

Eskuara da oraino begiratu gaituena bertze jendekin nahastetik : Eskualdunek ez jakin beren aldean zituzten jenden hizkuntza; bertzek aldiz ezin adi ez ikas gureak, Eskualdunak egotu dire beren herrietan.

Bazuten-eta bizitzeko behar zutena, nihorat joan gabe : Zelhai eta par, ta mazela ederrak bihiarentzat, mendiak arthalden hazteko, eta itsas zabala arraintzako. Non zer hoberik igurik zezaketen?

Eta horrela Eskualduna egotu da bethi sendo gogoz, bihotzez eta indarrez; horrela baginituen herri guzietan hain etche eta etchalde onak, eta gure etchetan ordena ederra, egundainoko gure lege zaharren arabera zohazilakotz egiteko guziak.

Oraiko egunetan ere, nongo gizon gazteak dire gure herrietakoak baino hobeki ikusiak, dela harmadetan dela itsas untzietan? Eskuarak iduki baikaitu bertze jende mota guzietarik berech, eta lehenagoko Eskualdun aiphatuen odoletik baita oraino gure zainetan.

Eskuarak zertarik gaituen begiratu

Eskuara da oraino begiratu gaituena bertze hain bertze eskualdetako jendeak bezein lazo eta tzar bilhakatzetik. Zeren-eta gaichtaginek eta halaber erlisionearen etsaiek ez jakin eskuararik, Eskualdunek ere ez aski ongiardara, denek gure herrietarik kanpo egon behar izatu dute, harroarazi gabe nahi zuketzen bezenbat gure arbasoen buruak; kendu gabe hekien bihotzetarik lehen-lehen denboretarik hunat hartua zuten erlisione sainduarentzateko amodioa.

Ongi estena

Egia da oraiko egunetan bertzelako airerik edo haizerik dugula bazterretan. Denek erraiteko dugu edo bederen gutiz gehienek ez balin bagare oraino osoki eginak erdarari, hartaratzeko bide onean garela.

Eztut erraten gaizki dela; bainan ongi eztena, eta bai, gaizki dena hau da Eskuararen uztea Frantse-saren edo Españolaren hartzeko. Bertzelako ikhus-taterik zordiogu alabainan Eskuara gure ama onari.

Eskuararen ederra!

Aithortuko dugu ahalkerik gabe, ipharreko aldetik eta hegoakotik hartuak eta hestutuak gauzkaten bi mintzairak, biak Latinaren umeak, ederki orrazta-tuak direla, eta hizkuntza batzuei eta bertzei hartu puskez ederki aphainduak. Eta halarik ere gure mintzaira zenbat nahi histua balin bada ere, hastapenean zuen edertasunetik, bai gure mintzaira agert diteke haukien eta gainerakoen aldean kopeta gorarik. Ezen Latina eta Greka bezein ongi Jainkoak emana dugu eta bertze hizkuntzekilako nahastikarrik batere gabe egotua da. Damurik bada, hainbertze mende huntan, lurak hazi dituen gaimen handiko eskualdun bakhar bati ere ezpaitzaio gogoratu behar zituela agerian ezarri eskuarak bere baithan dauzkan aberastasunak!

Erran nahi baita eskuara egotu dela, hatcheman ondoan batere lanthua izan gabe utzia liteken harri baliosa bezala.

Eta halarik ere beha gaiten zer dioten, gure mintzairaz, zerbeiten errateko zuzena duten jakintsun batzuk.

Jakintsunek zer dioten Eskuaraz

Huna lehenik Atchular, hamazpigarren mendean Sarako erretor zena. Omen handiko liburu-egile hunek dio iduri lukela bertze hizkuntza guziak elkarrekin nahasiak direla, bainan eskuara bere lehenbiko garbitasun hartan dagoela.

Huna oraino zer zion, hemezortzi garren mendean hastean, bertze eskualdun jakintsun batek, Larramendy Jesuistak:

« Nahi baduzue jakin gure Eskuara zer den, beha zakizkote bertze hizkuntzarik ikasi eztuten jende batzuei, nola mintzo diren beren artean; eta zuek egonen zarete choratuak gure mintzaira zein den gozoa, argia, bizia, garbia eta chuchena. »

Halarik ere Aita Larramendy hori bera auhenez zagon: haren denborako predikariek etzakitela es-

kuara karrikako emakume batzuek bezein ongi. Bainan gutartean zenbatak ezkare, entzun ondoan bereziki kostaldekoko predikari batzui, ezagutu dugunak musika soinuak gozoena baino gozoago dela gure mintzaira.

Chaho Chuberotarra, hila orai duela berrogoi-ta hamar-bat urthe, etzen hura ere jakitaterik gabeko gizona; entzun dezagun Eskuararen edertasunaz erran duen solas hau:

« Eskuara gizonez goragodanikako minzaira da, eta mintzairetan den ederrena. »

Eta orai, ikusten dut, hari zarete zuen baithan: « Bai, horiek guziak ederki dire; bainan ezpalire Eskualdun batzuk erranak. »

Entzun-azue beraz liburu-egile arrotzek zer daasaten.

Hamasei-garren mendean, bazen Holandan, Leydeko ikastegi edo eskola nagusian, Skaliger zeritzan jakintsun aipatu bat. Gizon harrek bazuen hainitz hizkuntza ikasirik, eta asmatzeko da eskuara ere bazakiela. Dena dela, huna zer dion gure mintzairaz:

« Eskuarak ezte deusere basarik, ez latzik, ez borthitzik; guziz eztia da eta gozoa. Batere ezta dudarik, hainitz aspaldikoa da, eta oraino dirauen tokian zen Erromanoak harat agertu aitzinetik. »

De Humboldt deritzan Aleman jakintsun haundi baten liburuetan ere irakurtzen ditugu hitz hauk: « Eskuara bertze mintzaira guziez goragokoa da. »

Jakitate handiko Paristar baten liburuetan, Vinson Jaunaren liburuetan huna zer den errana: « Bertze mintzaira guzien ezartzea eskuararen aldean, hori liteke handitu gabe geldituak diren gizon batzuen ezartzea gizon eder-eder baten aldean. »

Mintzaira hainitz, eta eskuara ere bai, dakizkan Jaun Angles bat miretsia dago, hura ere, eskuararen edertasunaz, eta gero oraino eskuarak nola duen, bertze hizkuntza guziek baino hobeki, nahi eta beharden gauzaren errateko ahala; eta dio gobernamentuetako gizonek eskuaraz egiten balituzte beren adituak edo patuak elitekela nihoiz hekien artean eskatima biderik, gauzak ez aski chuchen iskribatuz.»

Horra Eskuara, eta Jainkoak zer dohain baliosa eman darokun mintzaira hori eman darokunean!

Orai errech da ikustea hainbertze mendez hazkar egotu den hizkuntza ederra eztela bazterrerat ematen ahal den gauza bat, deusetako on ezten puska zaharra bezala.

Gure onetan atchikiko dugu Eskuara bizirik; Es-

kuara galduz geroz, zer edo nor gintezke? Zer izen eman lezaukute?

Zer egin behar liteke Eskuararen galtzerat ez uzteko?

Hiri eta herri guzietan, badire sortzeak bertzen gainetik ezarri dituen jendeak. Bertze batzu ere hala dire beren ontasunen edo karguen ariaz, edo oraino jakitatearengatik. Eskuararen galtzetik begiratzeko bada, hainitz erran nahi luke halako jaunak eta andreak eskuaraz mintzo balire beren artean. Zeren eta orduan, hek baino ahalagokoek, ikusiz erdara dakiten jaunek eta andrek ere Eskuaraz hitz egiten dutela, ezpailukete erdaraz mintzatzeko tirria hain handi.

Eskuaraz bertzerik eztakien jende cheheak aldiz zer atsegina eztu orduan, ikusiz harrek haurrean ikasi mintzaira ez bide dela hain tcharra eta baliorik gabekoa, jaunak eta andreak ere hura bezala mintzo direnaz geroz.

Eskuaraz mintzatzeko hortaz bezenbatean, bada nere Kontuz Gipuzkoar jaunetan eta andretan bertze edozein aldetako Eskualdunetan bainon ekharrimendu gehiago, erran dudana bezala egiteko.

Eskualdun Jaunen eta andren eta herri guzietan bertzen gainetik direnen eskuaraz mintzatzeko horrek bai, hainitz balio du; bainan gure Eliza-Gizonak har dezatela amodio pichka-pichka bat gure hizkuntza ederrarentzat, eta horra zertarik duken on egiazkoa; horra zer aski duken nihoiz ez galtzeko.

Erran ditugunetarik beretarik ageri da Eskualduna fededun balin bada Eskuarari esker dela hala. Gure Eliza-Gizonak eskuarari esker dire beraz egungo egunean giristino herri batzuen aitzindari. Zer ezagutza eta amodioa eztiozkate beraz beaz zor Eskuarari? Bai, esker-gabe ez izatera, behar dute maitatu. Eta bada maite balin badute segur du bizitzea.

Ezen maite balin badute, irakurtuko dituzte liburu eskuarazkoak, eta ikhasiko dute ongi mintzatzeko. Eskuara ederrean eginez aldiz beren elizako mintzaldiak, bertzei ere maitaraziko diote hitzkuntza balios hori.

Ongi maite balin badute eskuara, eztiote katichimarik eginen erdaraz erdalduen haurrei baizik; ezagut eta maitaraziko dituzte liburu eta kaseta eskuarazkoak, eta bertzalde mintzatzeko dire berak eskuaraz, handi eta chume, beren herriko jende guzietan.

Aipatu ditut kaseta eskuarak. Oraiko egunean baditugu bia onak Eskual-Herrian. Bata *Ibaizabal*, Bizkaitarrentzat eta Gipuzkoarrentzat, bertzea *Eskualduna*, Bidasoaz alde huntakoentzat. Biak ezin hobeki eginak, eskuararen eta ordena onaren maitaratzeko. Eta eskuararen alde lan on-on baten egitea liteke kaseta horien hartzea eta har-araztea, geroago eta hazkarrago egon ahal ditezten.

Erranak ditut erran gogo nituenak. Huna nere azken hitzak.

Orai duela sarri ehun-bat urthe, Karmes Bizkaitar batek, Aita Bartolomek erraten zioten bere denborako Eliza-Gizoni, itsustu orde gure eskuara maitea ezarri hitz erdaraz eskuarazkoentzat, irakurt zetzatela liburu eskuara egile handien liburuak; eta orduan eskuara ederrean erranean zituztela errateko zituztenak.

Aita Bartolome mintzo zen eskuara itsusten zuten hitzez. Zer erran zuen ehun urthe berantago agertu balitz lurraren gainerat, ikusiz Eskualdunak, non-nahi Eskuara bazterrean utziak eta erdarari lotuak?

Harrek, Eskuararentzat zuen amodioarekin, eginen zuen oihu, etchean su duela ohartzen denak bezein goraki.

Haren oihu latzak ernaraziko othe ginituen? Nik uste bai; eta egin araziko ere zarozkigun, su hiltzen hari denari bezein ongi, egin ahalak. gure Eskuara zahar bezein ederraren galtzerat ez uzteko.

Zuek beraz, zuen herrietan bertzen gainetik ageri zareten Jaunak eta andreak, zuek bereziki Eskual-Herriko Eliza-Gizon jakintsunak, maite izanazue Eskuara, maite izanazue eskuaraz mintzatzeko eta bertzer mintzaraztea, eta izpiritu ifernutiar guzien gatik ere gure mintzaira ederrak iraunen du mundua mundu deino.

Aita B. JOANNATEGUY.

ESKUALDUN HIL-HERRIAK

AIREA : *Gitara chartto bat det...*

1

Elizaren ondoan, oi Eskualdun haurrak,
Gure hilen herriak zoin diren ederrak!
Han dagozi bakean aitaso zaharrak,
Han ditut etzan nahi nik ene hezurrak.

2

Kurutze, lore eta elhorri churiak
Elgarreri yosirik dira ezarriak;
Iguzkiak bezala ilhargi-zariak
Ongi aphaintzen ditu gure hil-herriak.

3

Primadera goizetan etchealdetikan
Choritto bat heldu da berriz hanturikan,
Berri hek salaturik hobira musikan,
Badoha loreño bat handik harturikan.

4

Udako arratsetan zeruko izarrak
Ihinztatuz doazi lur meta nabarrak :
Zinez erran liteke ahiden nigarrak
Bilduak daduzkala hil-herriko lurrak.

5

Lur pean lo dagozi gure arbasoak
Iguzkirat itzuliz zango'ta besoak,
Zeru zolarat aldiz daduzkate soak
Direlakotz gelditzen Eskualdun osoak.

6

Igande guziez han herria da biltzen;
Beren egitekoez ez dira ichiltzen :

Hobian berehala hila da higitzen
Zeren dituen haurrak ondoan aditzen.

7

Elizan direlarik aurhideak sartu,
Leheneko kantuak ditu ezagutu,
Haren hezur gaichoak dira ikharatu,
Airea lur pean du berak akhabatu.

8

Anyelus erran eta buru has emanak
Hil hobien ondoan dagozi gizonak,
Andrek aldiz dauzkate lurrean belhaunak,
Zerurat doazila othoitz karsuenak.

9

Hilak bakharrik dira orduan gelditzen,
Beso baten gainean oro dira yartzen :
Atseginekin dute herrian aditzen
Leheneko pareta pilotak zartatzen.

10

Ilhun beltzean dira entzun irrintzinak,
Kantabre arbasoek *sinkatsen* zuztenak :
Hilak lokhartu dira hil-herrian denak :
Ohikoak dagozi bethi Eskualdunak !

11

Elizaren ondoan, oi Eskualdun haurrak,
Gure hilen herriak zoin diren ederrak!
Han dagozi bakean aitaso zaharrak,
Han ditut etzan nahi nik ere hezurrak.

BARBIER Apheza.



BERTSOLARIYA

Imp. Macakaga

15 XENTIMO

1.º Urtea

Redacción
Viteri, 32—Rentería

1931'ko Agorrillaren 27'an

Administración
Viteri, 32—Rentería N.º 2

BERTSO BERRIYAK

TXIRRITA'K JARRIYAK

1

Milla zortzireun irurogeita
amaseigarren urtian
ekaitz gaisto bat sartu zitzaigun
Kantabriyako partian;
lenago etzan kintik tiratzen
gure sor leku maitian,
elementu au nondik sortu zan
ongi enteragaitian.

2

Kintak jarrita ondorenian
beste ogei bat urtian
zenbait amaren seme onradu
Kuban sartu zan lurpian
guraso askok negar egindu
ura saldu zan artian,
geyenak lutuz jantzi giñaden
Kantabriyako partian.

3

Aberats askok pagatzen zuen,
soldadu juan zenbait pobre,
legi ori jarri ez bazan ere
arlotiarentzat obe;
atzenerako extranjerua
egintzan islaren jabe,
len ere Kuba saldu ziteken
oinbeste gizon ill gabe.

4

Orañ Errege juan zaigulako
askok biyotzian mindu
ez antziña oin portamenak
ondo letuko bagendu;
aitak biyotza gogorra zuen
orri etzayo bigundu
orañ ederki bizi liteke
naiko dirua egindu.

5

Urte batzuek pasa zituen
erreino ontan nagusi,
Donostiyara bueltak egiñaz.
bere fameli ta guzi;
puska ederrak saldu zituen,
etzun ezer erosi,
naikua bildu duen garayan
Frantzira juan da igesi.

6

Zori gaistuan sartu ziraden
oyek korteko atian,
lege berriyak jarri zituzten
Euskaldunaren kaltian,
lenago libre bizi giñanak
lotu ginduzte katian.
oraingu ortan ere ezdakit
nola portatuak dian.

7

Milla zortzireun irurogeita
zortzigarrengo urtian,
Urriko illak ogei ta zortzi
zien egun batian,
garai orretan gure Fueruak
sartu zituzten lurpian
orrespetua guardatu zuten
amona zegoen artian.

8

Garai orretan aldegiñ eta
andikan zortzi urtera
doña Isabelak bialdu zuen
karta zorrotz bat kortera,
letu zazuten Bergaran dagon
konbeniyoko papera,
Euskaldunak zer deretxo duen
ortik kontuak atera.

9

Zure amona zenbat egiya
munduan esandakua
ogei ta bederatzi urtian
Erregiñ izandakua
orrek altuan zeukan konduta
jetxi nai zuten bajua
emen Fueruak ez galtziatik
aldegiña da gajua.

10

Lengo gizonak kortian eta
lege berriyak non nai
esanaz: Ara emen biria,
ortik barrena jon ari.
Amaika burla egiten diyo
jende gaistua onari,
jeniyu oyek ez dituzu zuk
ikaşiyak amonari.

11

Gure errege izandu ori
portatu da oso noble,
gerrick onena baño pakia
badakit degula obe,
orañ Alkala Zamora dago
Españiko jaun da jabe
nolabait ere konpondu dira
odolik ixuri gabe.

12

Semiak lana akabatu du
beraren aítak asiya,
gizon justua nola atera
oyen tartian aziya?
gure Fueruak kendu zituzten
Abana orla utziya,
len Kantabriya ondatu zuten
t'orañ Españi guziya.

Arrese'tar Emeterio jaunari Euzko-olerki egunean

ZABALETA'TAR JUAN'EK

1
Bertso berri bi jartzera nua
barkatu bada gaitzikan,
ez derizkiyot izango danik
ofenditzeko itzikan,
zeruko Aitak ematen badit
lan ontako graziriyen,
ez det pensatzen olerkari bat
goratutzia baizikan.

2
Emeterio Arrese jauna
gaur zure omen aldiya,
juandan zenbat urte oyetan
etzera egon geldiya,
makiñatxobat olerki eder
orain artian jarriya,
aurrera ere jarraitutzeko
da nere opamen guziya.

3
Euskera garbiz zenbait bezela
ez naiz itzlari leguna,
bañan zorion... laskol... gaur zuri
Arrese maixo on jauna,
azaldutzen det emen garbiro
ni dizudan naitasuna,
bedeinkatua izan dedilla
zu sortu ziñan eguna.

4
Seaskatikan artu zeniyon
naitasuna biyotzera,
ordu ezkeror sayatu zera
izkuntza oni kontzera,
iya gaztiak mugi gaitezen
gure maisuen antzera;
jakin dezaten oraindik bizi
dala munduan Euskera.

5
Omen aldiyan merezi dezun
iztun-lari neurritsua,
txit idazlari gain gañekua,
garbi eta mamitsua,
izkuntz eder au ziñez maite dun
seme leyal ta zintzua,
gora biotzez ama Euskeran
olerkari jakintsua.

6
Ama Euskera orlako semez
ezinda beñere ase,
zeren pozkiro ekusten ditun
sayatutzen orrelaxe,
bertso onekiñ agurtzen dizut
zergatik dijuan luze,
urte askuan osasunakiñ
Emeterio Arrese.

GAUZA SAMINGARRIYA

ZABALETA'TAR PELLO'K

1
Munduko bizi moduz
gogoratutzian,
negarra irtetzen zait
begiyen ertzian,
jayotzak eziyotza
daduda aldian,
egun triste batzuek
dauzkagu tartian,
alare ezin konpondu
gerade pakian.

2
Danak aberastuta
nai genduke bizi,
osasanari kontu,
diruari utzi,
orrek eztu esanai
mundu ontan gutxi,
txarra etortzen zaigu
naiz ona berexi,
ditxa guziyak eziñ
litezke iritxi.

3
Au da nik mundu ontan
ekusten detana,
guztiyak naitasuna
diruarengana,
orrek ematen digu
emen naiko lana,
alkar eziñ ekusi
au da okerrena,
pake gozuan bizi
bear gendukena.

4
Bista ona izanda
eziñ ekusiya,
ori arrapatzen det
gauza itsusiya,
batek esan lezake
ez dala egiya,
anaitasuna degu
bazterrera. utziya,
non bizi geran ere
aztu zaigu iya.

BERTSO ZARRAK FUERUEN GAÑIAN

TXIRRITA'K JARRIYAK

1

Orain bi milla urte igaru
bezela ziran asiyak
Erromatarrak berendunairik
gure zazpi probintziyak,
garai artako abarka dunak
ziran jeniyoa biziyak;
baziran penaz amildu eta
beren ezurak autsiyak,
lastimosuak izandu ziran
ayen orduko antsiyak.

2

Denbora artako gerrero zarrak
ziran gizon onraduak,
aziyuetan irabazita
jazten zituzten graduak,
irurogeita lau urtekuak
bazebiltzan soldaduak,
orain bezela etzuen inor
engañatutzen diruak,
Legobide ta Osabal ziran
Kantabriako buruak.

3

Aitona oyek zer pensatu zuten
azkeneko eriyotzian
ezgenduela jakin izandu
pena daukat biyotzian;
arrats guzian otsae guardiyan,
egunaz erdi gosian,
zenbait nai gabe sufritu zuten
Erniyoko gurutzian,
ayen orduko ereziyuak
ederrak izango ziran.

4

Gure izeben amen amonen
osaben aiten aitonak
emen Fueruak defenditutzen
ibillitako gizonak,
bertan batalla irabazi ta
gero Erromara juanak,
Otabiande galdu zituen
bere erriko lagunak,
aundi gaistuak diran tokiyan
pagatzendu txiki onak.

5

Arrosa baño zabalagoko
gure zazpi probintziyak
baratza eder bat bezela zeuden
guziyak lorez jantziyak,
lau Españiyan morroi gaudenak
iru an ditu Frantziyak,
gizon gaisto bat dala mediyo
ondatu giñan guziyak,
beste munduban ikusten badet
eman biazkat graziyak.

6

Persegituak izandu gera
juandan zenbait urtian,
asko zabiltzan agindu nairik
Kantabriako partian,
mantxa gabeko lore ederrak
eztalirikan lau pian
errespetua guardatzen zuten
Lartau ementzan artian,
oraindik ere denbora dago
berriro saya gaitian.

7

Geren sallari segi zayogun
ez bestetara mugitu,
motiborikan asko badaukat
ongi esanai banitu,
ni engañatzen ez baldin banaiz
Euskal-erriyak baditu
Kantabriaren izenik ere
nai ez dutenak aditu,
zazpi senede aita batenak
egin gerade unitu.

8

Zazpi senide aita batenak
danak euskaldun garbiyak,
Tubal zarraren artaldedikan
banatutako ardiyak,
diran aitona nungua zuten
ez dakitenak erdiyak,
utzi ditzagun bide illunak
billa ditzagun argiyak,
beti betiko bere izena
izan dezan Kantabriyak.

9

Beren idea beste gauzarik
ez daukatenak buruan,
gaurko egunian alako asko
baditugu inguruan,
esaten tzaye Kantakria onek
bere jabia nor duan
kontra egiten asten zaizkigu
setosuaren moduan,
geren anayak ez ditugula
esan genetzake orduan.

10

Baldin egiaz egiña bada
aurreko zorren papera,
zazpi probintzi euskerazkuak
Kantabrietarrak gera
nere biyotzak daukan asmua
beti dijuan pakera,
bide askotatik martxa zuzenik
ezin gentsauke atera,
onena zein dan ongi neurtuta
bildu gaitezen batera.

11

Zazpi senide aita batenak
egotia onen triste
fortunatu da desgrazi batez,
baño ez genduan ueste
maitatzen dute etorri dana
besteren gauzaren eske
egunen batez aserre samar
ikusi biar gaituzte,
jakin dezaten bagerala gu
izena degun ainbeste.

12

Mundu onetan ezin bizi ta
ez degu juan nai bestera,
gezurra esanda ez dago andik
etorritzerik ostera,
arrazoi gabe eman ziguten
lege kontrako jazkera,
gañera berriz kontrari daude
galduko dala ez eskera,
gogor egiten ezpazayote
oyentzat aña ez gera.

13

Kolka txarraren azpiyan dauden
txito urri kalgariyak,
amarretatik bost iltzen dira ta
beste bostak elbarriyak,
pisti gaistuen bildurrez beti
gora begira jarriyak,
indar gutxiko gorputzak eta
suspiriyuak berriyak
kastigu onen mendian bizi
gera gaur Euskal-erriyak.

MAISUBARI

PEDRO MARIA OTAÑO ZANAK JARRIYAK

1

Esatera zarra da,
 inoiz jakintsubak,
 egiñ oi dituztela
 txit gauza txatxubak;
 zalla dira bildutzen
 onra ta protxubak
 inola eztu pentsatu
 au gure maisubak!

2

Guk nai diyogulako
 Euskerari fidel,
 ipintzen diguzu
 bekoskua goibel?
 Asko dakizularik
 gaizki zaude, Migel,
 ezin biurtu leike
 amorrayik igel.

3

Gerentzako degula
 naitasun urriya
 ta bestienganako
 guztizko tirriya.
 ¿Beraz orren zitala
 da Euskal-erriya?
 ¿Ain txartzat aldaukazu
 zere jatorriya?

4

Ezagun da erritik
 urruti zaudena...
 Ez da gaitza euskaldunak
 eskatzen dutena,
 baizik izan dedilla
 ougi mundu dena
 ta utzi deigutela.
 ostu zigutena.

5

Gutxi letzen dubela
 Euskeraz ta argatik
 izkribatutzen dezu
 erderaz gogotik.
 Guk ez ta zu badezun
 maitasunagatik
 edo kalte geiayo
 egitiagatik.

6

Jakiñik orkuak zer
 tirri dabilkiten,
 beñere ez dutelako
 egirik jakiten,
 etziñan nekatuko
 lan oyek egiten,
 ez baziña gaurdaño
 Bilbaotik irten.

7

¡Bilbaotik irten ta
 Salamanka'raño!...
 ¿Noraño jua zerade
 zu, Migel, noraño?
 gu etorriyagatik
 beste munduraño,
 uste det alderago
 gaudela zu baño.

8

Labur gelditu arren
 euskerazko lanak,
 badira erderazkuak
 zureganuntz joanak;
 irakurri itzatzu
 albadezu danak,
 utzi gabe egiña
 basaldua jaunak.

GURE EUSKERA

JUAN KRUZ ZAPIAIN'EK JARRIAK

1

Nere barrengo estuasun bat
kantuz beardet zabaldu,
Euskal-erriko anai maitiak
nai banazute lagundu.
Oinbeste urtian dagon izkuntza
orain ari digute galdu.....
Gure Jainkuak orrelakorik
arren, utziko ez al-dul

2

Naiz aberetsa, naiz beartsuak
zar, gazte, aundi, txikiyak,
jakitun egin nai nituzke gaur
euskalerritar guziyak;
danon biyotza ikui ditzala
Jaungoikuaren graziyak
ikas dezagun zer lege diran
guraso zarrak utziyak.

3

Lurzabal onen asiyerako
emakume ta gizonak
Euskeran eta Nekazaritzan
ill arte jardun ziranak.....
gure guraso Aitor ta Amalen
ogibide au izanak.....
Biyok dira gaur geyen-geyena
zokoratutzen diranak.

4

Jakiña dago izketa-era au
eztala sortu berriya;
irurogei ta amar etxalde
ziran garayan jarriya;
Babiloniyan izandu zuten
naspilla izugarriya;
ordukua da guk orain degun
Euskera maitagarriya.

5

Euskerak zenbait urte dituen
oso jakintsu ez nagu
biñipin Jesus baño berrogei
ta amar gizaldiz lenago.....
Aitor izena zuen aitona
aztua ez da egongo.....
galdu baño len gozo pixka bat
ez al-diyogu emango?

6

Sei milla urte inguratuak
entzun izan det dirala
irurogei ta amar izkintza
munduan jarri zirala
—ordukua da gure Euskera—
ta artian iñor etzala,
Aitor etxalde guztiyarekin
onera etorri zala.

7

Euskaldunaren iturburua
Tubal'en seme Aitor zan:
aren ezpañetan gure Euskera
orain ez bezain jator zan;
gure aitonen txiki denboran
ere alaxe omen-zan,
baita gaur ere erbestetikan
jendia nastu ezpazan.

8

Iturri ontan len ur ona zan,
orain nastua ta otza;
gure artian hein egin zuen
lurmentzen ez dan izotza;
birau zikiñik nai eta ere
ezin esan dan izkuntza.....
au galdutziak erdibitzen du
euskaldunaren biyotza.

9

Erdalkeriyen berotu gera
sinismenian ozturik,
gabiltzalako erbestetikan
jendiarekin nasturik;
ba-dirudigu bizi gerala
nor ta zer geran azturik.....
lotsagabe ta izkuntza txarra
ortik ez dator besterik.

10

Ai euskaldunak! Ez ote-gera
noizpait zintzatzen asiko?
Bide ortatik zer datorkigun
laister degu ikusiko;
Euskerarekin Euskal-erriyan
ez gaitu iñork autsiko:
Euskera gabe berealaxe
etsaya zaigu nausiko.

11

Eztago urrerik, ezta zillarrik
mundu onetan dagonik,
nor bere etxian jaun eta nausi
izatia aña danik.
Gu galdu naye dabiltz etsayak
uts egin gabe egunik.....
bañan gutarrrik izango ote-da
morroi bizi nai duenik?

12

Bedeinkatua izan dedilla
Euskera zure itzalal
Zuk erakutsi ziñidan neri
munduan iñor nitzala.
Zeruko Jaunak milla urtian
gurekin gorde zaitzalal
Zu iltzekotan, erri ta mendi,
urak iruntsi gaitzala.

BERTSO ZARRAK

Euskaltzale batek jarriyak, eskeintzen dizkala Errenderiko gogaide maite, Retegi Inazio, Somorrostro'ko arazoan iztarra galdu zuan jaun gurgarria'ri, onen gudari lagun itxu baten oroipenean

1

Gezurra dek bai arkitutzia
ez bada Elizapean
itxu gaxorik mutill bat dula
barraren aldamenean;
ia galde orrei gogoz irtentzan
lengo guda gogorrean
Beltzkeri gaitza erein etzediñ
Euskal-erriko lurrean...
limosnatxo bat gaur dula eskatzen
Jaungoikoaren izenean.

2

Esan da egin galdetu nion
ibilli altzan gerratean
bai eta laister bere aotik
entzuntzan bizi berean...
Txakurtxulo'kin Gipuzkoa'ko
Irugarren batalloyan.
Fuero maiteak oso galtzera
zetozen ayen kaltean...
gaur, limosna bat eskatu arren
Jainkoaren izenean.

3

Aitonatxo onek gerrate artako
arazo guzik batean
daduzka ondo arturik benaz
buru argi ta betean...
nola ekin zuten Abarzuza ta
Somorrostro'ko gañean
karlistak zintzo Elizan alde
beren eskeintza ederrean...
limosna eskatuz, gaur, aitako bat
Jainkoaren izenean

4

Naiz gelditua izan itxuba
zauritua azkenean,
ez dezaiozu esan berari
dagon damutasunean;
jartzen dalako miña artuaz
orlako enbat aditzean,
bidezko Erroge'n gudari gizon
trebetsu Auzi onean...
limosnatxo eske, gaur naiz arkitu
Jainkoaren izenean.

5

Etsai maltzurra kalte egitera
errira datorrenean,
beti da irtengo seme zintzoa
ainbat laister laisterrean;
saiatutzero goi-iritsiyak
geldi ez ditezen oiñpean...
asmo ori izan zan itxu zar onen
ibillitako nekean...
keskik gabe gaur, limosna eskatuz
Jainkoaren izenean.

6

Poz artzekoa alda ikustea
iruditako pakean,
lerden itxura gañetik eta
arra-joa biotzean...
obeagoa da neretzako
elbarri izan gorputzean,
dagon bezela aita itxuba
ibilliya gerratean...
fedetsu beti, limosnatxo eske
Jainkoaren izenean

7

Zarronzalea dala esateko
aitona dago pozean,
abestutzeko noiz-nai ta ederki
"INAZIO" indarrean...
zuten bezela txapelzuritar
guda mutil zegonean,
sarrera enhat egiñ bañan len
bilduaz denak batean...
ura gogoraz, limosna eske gaur
Jainkoaren izenean.

8

Oraindiokan aitona itxubak
bular sendoen gañean,
dabilki bere Jesus'en Biotz
amak emana etxean
lazardurikan malkoz buztiaz
mendira irten zanean,
matxiñadari aurka egitera
auresko zarren bidean...
sinismen artaz, limosna eske gaur
Jainkoaren izenean.

9

Arinkerizko bizitza labur
galbidegarri aurrean
bizkarra emanaz orgo atsegiñai
aitona dago lenean...
ikasbide onak sarturik oso
illobatxoarenan,
itxaropenaz bete-beterik
goiko Ortze sabalean...
bitarte ortan, limosnatxo eske
Jainkoaren izenean.

EROSI ZAZU

Xempelar'en Bertsuak

Bere doñu ta guziyakin jarriyak

ASTERO, ASTERO EROSI ZAZU

BERTSOLARIYA

1903

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXII garren urtea)

Euskal-frantzesai agurra.

Berrogei pezetako aldeera eta bitezarra Irun-en irabazitako moldaera

Bialdutzen dizutet
agur bat benetan,
oraiñ izkribatuko
ditudan letretan;
ez dijua agurra
itz aberatsetan,
baizikan moldakaitz ta
oso traketsetan.

Baña sinist zazute
da benetakua,
biotzaren erditik
ateratakua;
ez da otza, ez ere
epeldutakua,
baizik sutan burniya
beziñ galdatua.

Maitatzen ditut asko
gizon mundukuak,
baña chit banatiro
euskal-errikuak;
ñola ez, izanikan
odol batekuak,
t' itzkuntz, t' oitura garbi
ber-beretakuak ?

¡Borra litzake Pausu
zubiko arrayak,
edo naiz Bidasoa
deritzan ibayak,
frantzes eta español
euskaldunen nayak?
ñola! baldin bagera
guziak anayak!

Odol batek errayak
dizkigu bustitzen,
itzkuntz batian denak
gerade mintzaten,
oitura garbi berak
ditugu gordetzen.
¡beraz, nere anayak
ditut nik agurtzen!

Arrera on bat egiñ
nere agurrari,
t' erregutu umilki
Zeruko Aitari,
osasuna deyola
Euskaldun denari
ala Español eta
berdiñ Frantzesari.

ENRIKE ELIZECHEA.

V. Iraola-ren moldizkidan.

BERTSULARIEN GUDUA

BAIGORRIKO BESTAN

UNTZ'URHEA

Eraman duen kantua **HIRUN GARAZTARRAK** egina

BI SOLDADO BAIGORRIARRAK

AIREA : **Orhiko chorignoa**

1

Mila zortzi ehun ta hostgarren urthean,
Rhin derizan ibaiko bazter zabalean
Zagon Frantses armada, gutien ustean
Etsaiarekin gerlan hasteko menean.

2

Armada handi hartan, sor lekutik urrun,
Ezarriak baziren hogoibat Eskualdun,
Bia Baigorriarrak, haurreko bi lagun,
Elkarrekin josiak..... han ziren ezagun.

3

Orhirat itzultzen da Orhiko choria :
Eskualdunak maite du bere sor tokia,
Maite sort-etche churi, teilatu gorria ;
Handik kampo denean, harat du lehia.

4

Eskualdun soldadoek, arrotz leku hetan,
Beren herria zuten aiphu maizenetan,
Eskual kantutto zembait emanez artetan,
Iduritzen zirela bere mendietan.

5

Baigorrik, plaza besta zuen hurbildua
Bi soldado gazteek ezin faltatua ;
Pilota partida bat zuten hitz hartua,
Aintzinean emanik erresan dirua.

6

Holako tepertuan zer eginen dute ?
Harispe jenerala berekin balute !
Han balire bederen Etcheverry, Duthe !
Baimena sei asteren naski balukete.

7

Manuaren haustez dire arrangura :
Ihesari dagoke gaztigu segura :
Baimena galdetzera nor laite mentura
Galdeak ez baitire nausien gustura ?

8

Asken egunak ditu hurbil uzta-hilak.
Ichilik badoazi gure bi muthilak ;
Nola baitziren hazkar, bolondros, biphilak,
Harmatzat hartzen tuzte bakarrrik makilak.

9

Soldadoa jiten da herrirat alairik ;
Harentzat ez da patar, bide maldatsurik
Biak bardin gaitz beraz baitzauden harturik,
Zangotan ez zuketen sendi pochulurik.

10

Zaharretarrik dugu bertz-orduz aditu,
Oinez bide guzia zutela segitu,
Burutik bururaino Frantzia kurritu,
Baionan zembait oren zirela gelditu.

11

Baionatik etcherat ez zitzaizen luze :
Zalhu zituzten igan Arruntz, Uztaritze,
Cambo, Itsasu-zilo, Bidarray, Orzaize ;
Iragan ilhuneko bai bozik Urdoze.

12

Gaua jaustera zohan zeru gainetikan,
Ezkilak ari ziren airos errepikan,
Soinulari jakinak, arrabit musikan.
Lagunekin zabiltzan Aintcharte karrikan.

13

Nolako zoriona ! Oi zembatatsegin
Ahal zuten senditu sartzean Baigorriin,
Burbaso, haurrideak ikustearekin !
Guziek bozkarioz nigar zuten egin.

14

Hamabost egun oso emanik bidetako,
Zuzenik aski bazen ongi pausatzea.
Indarrak berriturik biharamuneko,
Tenorez jeiki ziren mezarat gateko.

15

Zoin gocho zitzaioten mezan aurkitzea,
Eliza chaharrean othoitz egitea,
Orhoitzapen ezten erreberritzea,
Kantarien botzeri botzen juntatzea.

16

Ordukotz bazakiten Garazin, orotan,
Partida behar zela Baigorriin pilotan.
Hainitz sarthurik zauden, irabaztekotan,
Baigorriarren alde trebes izpichotan.

17

Bi soldadoak ziren ederki jokatu ;
Ikusliar guziak beha loriatu ;
Partida zen askotan bardinduz luzatu ;
Azkenean Baigorrik Baztane garraitu.

18

Bestetarik lekora, bi Baigorriarrak
Gintuen armadarat itzuli beharrak.
Bozki zuzten iragan gau egun ondarrak ;
Goiz-danik hasi ziren aitamen nigarrak.

Etchekoen uztea, oi zer bihotzmina!
 Herritik ilkitzea, zer golpe samina!
 Beharrik finki zuten biek hitz egina;
 Deusek etzuen hautsi beyen chede zina.

20

Adios, zuten erran, adios Baigorri!
 Amodioak gaitu hunarat igorri;
 Laster nahi ginuke bethikotz ethorri.
 Othoi, zuk, o Jainkoa, gaitzazu sokorri!

21

Ihunik hartu zuten jin bide ber bera,
 Azken so bat aurdikiz mendien gainera.
 Makurrik gabe ziren heldu Bordelera;
 Hortik jo zuten biek chuchen Rhin aldera.

22

Buruzagiek zuten handizki miretsi,
 Nolaz ez ziren egon gerlaren ihesi.
 Zer diren Eskualdunak hor zuten ikusi;
 Bai eta barkamendu biek ardietsi.

23

Handik arte laburrez, betan Frantziari
 Autrichia, Rusia zitzaizkon jazarri.
 Napoleon handia baitzen aintzindari,
 Frantzia zen fidatu haren izarrari.

Abendoaren bian, gudu mementoan,
 Baigorriar gazteek, ber gauza gogoan,
 Zioten, pharaturik elkarren ondoan:
 « Hobeki ginazteke Baigorri chokoan. »

25

« Hemen hil edo bizi daike berehala:
 « Beraz dezagun egin gur-egin abala.
 « Irabaz bagineza Baigorri bezala!
 « Jainkoak orai ere begira gaitzala. »

26

Etsaiek galdu zuten itsuski gudua,
 Austerlitzeko gudu guziz aiphatua.
 Frantziak gora zuen altchatu burua,
 Aphurbat egotu zen bakean mundua.

27

Zer egin othe ziren Eskualdun gaichoak?
 Gerlak ekartzen ditu berecha gachtoak,
 Eskualdunak zituen lagundu Jainkoak;
 Bizirik jalgi ziren gure bi hauzoak.

28

Ohore, dugun erran, bi soldadoeri,
 Baigorriar muthiko borthitz, subarrerri.
 Aitak, zuek erakuts goizik semeeri,
 Artoski jarraitzen Eskual oidurerri.

Bigarren Garhait-Saria untz erdi bat ereman duen kantua Pablo de Zamarripa y Uragak egina

EUSKALDUN GUDARIAK

LEMA : « **Beti Amaren altzoan.** »

« *Siempre en el regazo de la Madre* »

Amacho Euskal-erria, nire erri maitea,
 Zer zorion andia zugaz ibiltea!
 Zugaz, Amacho, zugaz pozkidaz betea (1)
 Dabil nire biotzcho euskaldun gaztea!

Zugaz nabil ni sortu nintzanetik gora,
 Urten barik (2) euskaldun lurretik kanpora;
 Ta eztoz gura zugandik alde egin inora,
 Ezpada Zerura, Ama, Asaben albora.

Arache bai pozarren, Jaunak deitutean,
 Joango nintzake, Amacho! Baiña bitartean,
 Eriotzak gorputz au lurpetu-artean,
 Gabilzan (3) biok, gorputz ta arimez, batean.

Zure lurretik urrun arkitzen diranak,
 Euskaldunak badira, damu dabe danak
 Zu ichitea, ta miñez (4) semeon ezpanak
 Diñoë : « Non dira, Ama, zure lur laztanak ? »

Non dira zure zelai ta mendi euskaldunak ?
 Zure elizacho ta eche margo zuridunak, (5)
 Zure chorien kanta gozo ta legunak ?...
 Ostu deustez (6) betiko zure urruntasunak ? » (7)

Urrun egozan urrun, *Rhingo* ibai-ertzean,
 Milla zortzireun eta bostgarren urtean
 Garagarrill-erdian (8), gudarako ustean
 Lauezpabortz gudari (9), ta danok batean,

Izanik euskaldunak, urruntasunean
 Solasa eben euskaldun lurraren ganean.
 Ta ikusirik egola au leku urrunean,
 Ai! zer zamina eukien biotz-barrenean !...

- (1) Llano de jubilo.
- (2) Sin salir.
- (3) Andemos.
- (4) Dolorosamente.
- (5) De color blanco.
- (6) Me los ha robado.
- (7) La ausencia, la lejanía.
- (8) *Garagarrill* en Viscaya es Julio.
- (9) Soldados.

Urrun Auñemendiak (1) ta euskaldun basoak,
 Urrun aitona, (2) amona... urrun gurasoak
 Urrun anaiak, urrun atsegin osoak,
 Urrun egozan euron pozkida gozoak.

Baigorriko beztetan pelotan eitea
 Zan aietan bik euken guraizatea,
 Itzemaña zutenez, baiña; au suertea!
 Urrun gudari dagoz! gaitz da (3) ara joatea.

Harispe aitzindaria bederen ondoan
 Balego! Arek baiñena emon lei; ta orduan
 Joan leitikez, baiña orain zela joan,
 Arkitzen ezpadabe *Harispe* inguruan ?

Guda ezta asiko baiña, diñoë orain pozik,
Alamaneri buruz, buruilean beizik;
 Anartean badabe gura beste egunik
 Joan ta etorriteko partida an egiñik.

Badoaz, ta osasunez ederto eltzen dira
 Amabost egun barru biak Baigorriara
 Bezta-bezperan chuchen... Beztaren begira
 Larri dagoz (4), joateko pelota-tokira.

Partida asi da noizbait. Lau pelotariak
 Eurakanduten dabez (5) ikusten begiak
 Arrituak (6) ikustez aín gorputz zoliak,
 Aín beso zantsu ta anka chit ibiltariak.

Pelota biribilla oiñ orra ta oiñ ara,
 Ormatik (7) eskura ta eskutik ormara
 Egaz dabil pozarren, eskuen indarra
 Laguntzat daroala leku danotara.

- (1) Los Pirineos.
- (2) El abuelo.
- (3) Es cosa difícil.
- (4) Están impacientes.
- (5) Cautivan.
- (6) Admirados.
- (7) De la pared.

Ikuslaren begiak (1) pelota ikustean
Egaz doala, doaz egaz bere atzean ;
Ta olanche atsegindurik beragaz batean
Dabilz pelota bera geratu-arte.

Orainche da azkenengo egaztadaaldia ;
Norentzat izango dan beraz pozgarria
Jakin nairik eizago jende-jillo andia,
Chaloka ari em eteko atsegin barria.

Gogor dabilz mutillok, iñoizko gogorren (2),
Laguna lagunagaz, etsaia etsaiaren
Kaltez ; laurak or dabilz... ta laurak porarren,
Etsaiari partida irabaztearren (3).

Laurak dira pelotan ikaragarriak,
Guztiak onak ; baiña gure gudariak
Makaltzen dabaz beste bi jokalaria,
Ta irabazi partida ta chalo ugariak.

Chaloen zaratakaz pozturik, batera
Gudari biok doaz gudaritaldera, (4)
Zintzorik gudan bere bear egitera,
Baigorri-pelotaka eiz eben antzera.

Lau illabete igaro orduko *Austerlitz*en
Bata besten alboan ebilzan gudaritzen,
Ta aurrez aur zeinbat etsai ebezan arkitzen,
Ainbeste ebezan eurak indarrez zapaltzen.

Zirauntsan (5) litartean bata besteari :
« Naiago neukek, mutill, Baigorri oin ari
Pelotan, baiña jarrai emengo lanari,
Urten daigun an legez emen garaitzlar! » (6)

- (1) A fin de ganar el partido al contrincante.
(2) Al regimiento.
(3) Los ojos del expectador.
(4) Mas fuertemente que nunca.
(5) Le decia.
(6) Victoriosos.

Amagandik urrun ta etsaien aurrean,
Zintzorik Frantziaren alde bearrean,
Ara an euskaldun biok... guda gogorrean,
Guda bizikentzale sutsu ta aserre in !

Indarra ta adorea baturik benetan
Ikusi geinkez orain mutillon zanetan,
Zeintzurik Eriotza ritala, eskue'an
Arturik, sartzen dabon gorputz etsaietan....

O ! zeinbat etsai jausi direan lurrera,
Odolez gorriturik, alkarren ganera !
Ta o ! zeinbat doazen o ! ill-añik jaustera
Gure gudari euskal lun gogorren ganera !....

Ori bai dala indarra ! eta ori adorea ! (1)
Ori da etsai guztiak birrinlu-gurea !
Ikusirik mutillon indar ta ardura, (2)
Dazaut Asaba euskaldun zarren ichurea.

Ta eztauke biotzetan mutillok bildurrik,
Ez, ez ; beuke bildurra etsaiak bakarrik !
Euskaldunak, Amacho ikustez, pozturik,
Egingo dabe alegin guztia azarturik.

Zer baiña ? Non dakuse (3) Amacho urrunean
Badago ? Bai dakuse biotz-barrenean
Era omentzeko dauken uste zuzenean,
Euron biotzak deuten maitetasunean.

Urruntasunen poza da maitetsuna.
Emen ta emetik urrun, biotz euskalduna,
Edonen (4) maitetuizu Amacho kutuna,
Maite izan barik iñoiz bere urruntasuna.

- (1) El valor.
(2) Lo destreza.
(3) La ven.
(4) En cualquier sitio.

Hirugarren Garhait-Sarria makhila ziharreztatua eraman duen kantua Pierre Dibarrart

Baigorrikoak egina

ESKUALDUN SOLDADOAK

AIREA : Yakintsunen arabera edo Lapurdi Bachenabarre

1
Eskualdun soldado batzu ditugu aiphaturen,
Leheneko denboretan, nola ibili diren.
Badakit bien berriak ; bat auzoan bainuen.
Thuna : harek erran hitzak dituzue entzunen ;

2
Mila zortzi ehun eta bortzeko otsailean,
Herritik bia baikinen eroriak zorthean,
Alemanak Fratseari oldartu zirenean ;
Gerlako armadan ginen Etsaiaren aldean.

3
Frantses eta Alemanen arteko ur-hegian,
Lau Eskualdun, bildu ginen uztailaren erdian.
Gorputzez hain urrun eta gogoz Eskual herrian,
Gure sorlekhu ederrez ginauden solasian,

4
Arpegi-arrai batekin lagunak erran zautan :
« Orhoit hiza guk herrian zer ginuen hitzeman ? »
Lau herriko aritzea, lau arrotzi Pilotan :
Han ginela aurkhituren Baigorriko Bestetan.

5
Buruilean omen baita gerlaren hastapena,
Arte huntan egin lukek Baigorriko yuan-yena.
— Oi ! Harispe hemen balitz, eman lirok baimena.
Haren faltan dugun mintza kargu-bera duena.

6
Yaun on harek zaukunean baimen hura igorri,
Laster ginen abiatu bas'ahuntzak iduri.
Gure oinak zaldi, eta art-izarra bidari,
Eskualdunik baizik etzen lothuko bide horri.

7
Nola uso gazte batzu ostor eror denboran
Akhituz baitira heltzen lpharretik hegoan,
Halaber gu heldu ginen uztailleko beroan
Nekheak oro ahantziz sorlekhu gogoan.

8
Agorrilaren bian zen argi-haste ederra !...
Laguna zait oihuz hasten : « behazak urrunera !...
Lanhopetik Mendi batzu han agertzen baitira !...
Nik hitz dañat hek dirrela ollandoi eta yara — »

9
Sorlekhu sarthu ginen bozkarioz bethiak :
— Bestaren bezpera zela etzanden ahantziak.
Bi-Ezkilak errepikaz oihartzunka Mendiak !...
Gau hartan gu ait'amekin gozatú ginen biak.

10
Besta biharamunean baitzen partida hori,
Ospeka ziren arrotzak ikusterat ethorri.
Pilotari zahar batzu eman ziren chachari
Eta Pello bilo zuri paso-marran juyari.

Zortzi gazte Pilotari suharki ginen hasi.
Gudakarik hain ederrik nihoiz etzen ikusi.
Ene lagun Martin baitzen pik emaiten nagusi,
Hari esker ginuen guk partida irabazi.

Hurbildu ginen soinurat zortzi Pilotariak
Akhiturik berotuak izerditan bustiak,
Bainan gure arno onak phizturik zain guziak
Airoski eman gintuen Eskual dantza yaúziak ! !...

Gure maite lagunekin oren guti egonik,
Bazkari bat egin eta ikusarte erranik !
Yuan ginen gu armadalat berriz oinak arinik.
Gero laster abiatu Alemanen ondotik.

Dtsaiari yarraikirik Austerlitz ondoraino,
Hango su izigarrian mintzo ginen oraino :
« Hobe zukan bai Pilotan hemen tiroka baino !
Berma gaiten han bezala garhaitu arteraino !... »

« Haur gazteak, egizue othoitz Yainko Yaunari
Izaiteko bethi prestu eta ohoragarri
Sorlekluan Pilotari armadetan gurlari,
« Orai ehun urthe ziren soldado hek iduri ».

PIERRE DIBARRAT, Baigorrikoa.

Laugarren Garhait-Saria. gerriko seda ereman duca kantua Victoriano Iraola Donostiarrak egina

Eskualdun gudaria 1805^{an}

Erriyo Rihn-en ertze ertzean
Napoleonen guda tokira.
beren banderak zabaldu eta
basorik baso joanak baitira ;
burui zorrotzak diztiatuaz
eguzki sutzu-aren argira....
lau eskal mutill gudatzalleak
sentirik illun biyotz mugira,
igarotutzen dute oroitza
mendi gañetik beren errira.

Partida blekan jokatzeko
bi euskaldunek ziñez Baigorriin,
irtengo ziran tronpeten deyak
astuta, gozoz utzirikan Rihn ;
mendi latzian goñitu ere
erbi pizkorra bezela ariñ,
baña serbitze gudariyenak
ez arkitzeak bideak berdiñ,
¿ nola osatu itzezko zorra
estura artean ? ¿ eta zer egiñ ?

An arkitzera Arizpe jauna
gerrari pizkor buru zutena,
antzinatikan famaren famak
irabaziyak zeukazkiyena ;
¿ nola irichi espa charrean
izanik beti gozon zuzena ?
¿ nola jatorrez baldiñ bazuen
biyotz leyala euskaldunena ?
¿ bai milla bider ¿ izango zuten
aren mutillak bere baimena.

Aukeraturik burrukariyak
Agor-illean erasotzea,
gai ziran mutill euskal biurrak
igarotzeko bide luzea ;
pelota plazan ausardi aundiz

indar sendoak eraskustea,
esku gogorrez jo bakoitzean
kia kenduaz zatituztea,
ala partida jokatu eta
Alemanira biurtuztea.

¿ Arrayetua ! esan bezela
arrunt joateko jarriyaz eran,
amabost egun oñez egiñaz
ez bas-usua bezela egaan ;
chori politikak bide lagunak
ziradelako mintza euskeran,
bai irichive fin Baigorriira
sartuaz lasai erri berberan,
mendi mutill bi sendoren gisa
pozez agurka festa besperan.

Kolko zabalik ta burutzean
legoi indartzu ayen modura,
beso burubak erakutziyaz
sartu dirade euskal jokurar :
jokatu eta arrunt eraman
diye, pelota partida ura,
baita ondoren dantzatu ere
lur ederreko euskal soñura,
gero laisterka saroi ta mendiz
jiratu ziran lengo lekura.

Lau illabete igaro eta
mutill gudari pelotariyak,
an Austerlitz-en eraso aundiz
burrukatzuten ziraden biyak ;
damu gabarik esanaz batek
antolatuaz guda burniyak,
« Baigorriin ondo izango giñan
nai digulako gure erriyak,
baña bentzutu ditzagun emen
ouratuzeko gero frantziyak ».

OHOREZKO AIPHAMENAK

Duela mende bat, kantuarentzat Dominique DOLHAGARAY Uztariztarrak egina.

Eskualdun Gudaria, Jose ARTOLA Donostiarrak egina.

Baigorriko bi soldadu, Goierritarrak egina.

Gudari Eskualduna, Elias GOROSTIDI, Donostiarrak egina.

Eskualdun soldadoak, VINCENTY Buenos-Airesekoak egina.

CANTUA :

B. CELHABE BARDOZTARRAC EGUINA.

AIREA : *Atharratce Iaureguian.*
Edo : *Mendian coin den eder.*
Edo bertee hainitz.

1.

Enteunic espantutan Indien berria,
Beldurtu ere gabe othe den eguia,
Montebidorat noha cembait urtherentçat,
Aisia bildu nahiz azquen egunentçat ;

2.

Ez naucan hainitz cela herritic ioaitea,
Cuti naquien cer cen nigar eguitea ;
Unteirat nohanean, orai dut sentitcen
Damuaren eztena bihotcean sartcen.

3.

Bertee aldiz eihozquigun irritan egunac,
Tristeric orai ditut aldean lagunac ;
Adiotarat çazquit nigarrez hurbilteen,
Iduri naïotela bethiçotçat hiltcen.

4.

Sor lekhuon nituen esteca guciac ;
Ez daquit handie urrun cer daucan biciac ;
Adios erratean herri maiteari,
Bihotça çaurthua, naiz eman, nigarrari.

5.

Diruaren goscae etchetie narama ;
Utei behar dut aita, utci behar ama,
Segurantçarie gabe nihoiz bihurtceco,
Iragan atseguinac beriz cobrateco.

6.

Lur atcean çuhaitça laster iraungitcen,
Desterruan guiçona gazteric çahartcen :
Han galdeturen bethi herria bihotçac,
Escasa ez betheco irabaci untçac.

7.

Desterruan non causi herrico mendiac,
Aiten eguin ederren lekhuco handiac ?
Ohitu ezquila ere ez dut aditurea,
Bozcariorat ez nu bestetan deithuren.

8.

Desterruco bidean erortcen denari
Lagun onic etçαιο, aguertcen sokhorri ;
Eritecan ez duque amaren artharie,
Hil daiteque inguruan nihor gabetarie.

9.

Adios Escual herri, hambat onhetsia,
Hire cerua çaitac ecin ahantcia :
Uzten çarozquitçiat maite ditudanac,
Ethor-bahi, aita-amac, haurreco lagunac.

10.

Noizbait ahanzten badut ene ama ona,
Beldur ez nadin ethor, nigarrez dagona,
Ahanzten badut aita, ahanzten herria,
Nihoiz ez bequit mugui ahoan mihia.

11.

Urrun, launa, niganic, othoi, çorigaitça,
Hustua causitceco aita-amen egoitça !
Aiteitic eguidaçu bihur nadin laster,
Eta goça ditçadan luçaqui, çuri esquer.

EPIGRAPHE.

Le Makhila, objet utile,
Soit dans les champs, soit à la ville,
Passe encor.
Mais l'once d'or
Est un trésor
Des plus minimes
Pour un gueux troubadour qui ne vit que de rimes.

AIREA : *Biciric naiz, bainan ez.....*

1.

Nahi nuen cantatu,
Aleguera phartitu ;
Bainan cer bihotz mina
Ene baitan da phartitu ?
Ene bihotça nola,
Nola daite consola ? (*Berriz.*)

2.

Norat hoa, untcia,
Norat utciz Franczia ?
Norat hola deramac
Orai nere biciac ?
Ene bihotça.....

3.

Bagoaci tristequi,
Ameriquetan khausi
Ustez gure goçoa :
Esperantça çoroa !
Ene bihotça.....

4.

Cerec nau lilluratu,
Hota cere enganatu ?
Eguiaçeo onac utciric
Itçala dut hautatu.
Ene bihotça.....

5.

Escual-herrian sortcen,
Ameriquetan hiltcen
Ai ! cer çorte dorphea
Orai dutan bilhaltcen !
Ene bihotça.....

6.

Escual-herri maitea,
Herri pare gabea !
Hiltcea da neretçat
Hi gabe bicitcea !
Ene bihotça.....

7.

Adios ama maite,
Galteen çaitut çu ere :
Ni çu ganie urrunduz,
Cembat bicico çare ?
Ene bihotça.....

8.

Eguin dudan botua
Baldin bethetcen bada,
Laster itçulico naiz,
Ama ona, çure ganat.
Ene mina bertcela
Nola daite consola ? (*Berriz.*)

Euskal-Erriarren Cantac

JUANA VISHENTA, NAGUSI GAUNA ETA MORROYA, HURRA PEPITOREN DOÑUBAN

J. Vishenta

Nagusi gauna, aushen da lana
amac bigaltzen nau bedoren gana

N. Jauna

Ay bigalduco bacindunque maiz
zu icusi ta consolatzen naiz
sinista zazu;
joso zoraturican naucasu!
¿orren polita nola sera su?

J. Vishenta

Amac esan dit, echeco errenta
pagazetco diruric es nuben ta,
ia eguingo diyon mesede,
illabetian gueyenas ere,
ichodiota,
bada cierto dala ematia,
pasa baño len illabetia.

N. Jauna

Logratutsia, errés alare,
nais ori ta beste cer nai gausare
seguru dala esan amari,
su baldiñ basatos mandadari,
dudarc gabe,
nere borondatiaren jabe
su sera Juana Vishenta Olave.

J. Vishenta

Beras bertatic, nua echera,
pos aundi bat amari ematea,
orain ariyo nagusi gauna
presaca juañ biat amagana.

N. Jauna

Ez zuacela;
portatu zaite nic nai becela,
Zuben echia dago urruti,
birian zer guerta izan bildurti,
bada iya pasa da eguna;
arratza berris dator illuna,
orañ juatia;
ghartzat iduqui nere maitia
caur emen bertan guera zaitia,
Ez juañ echera, bire oyetan,
gabas bacarric eta illumpetan,
contura erori zaitia zu
gabas illunpian juañ biazu;
peligro aundiz
eta obe dozu aun aldiz
biyar goician juañ egun arguiz.

J. Vishenta

Ezetz etsiya egon liteque,
ni emen guelditu eciñ niteque,
amac espero nau gaberaco,
eta ere espero naubelaco,
juañ biar det nic;
alaba icusi baguetanic,
amac izango ez luque onic.

N. Jauna

Emen zureztat, dira paraco,
jaqui chit gozuac afaiteraco,
erriya berriz jaungoicoa,
illac piztuzeco moducoa,
ardo onduba,
ontzen urtietan egonduba
Malagatican da bialduba.

J. Vishenta

Jauna berorrec, bañan alperric
badaqui armatzen laso ederric.
lazua eiz bague guera dediñ,
nere echian nai ditut eguiñ,
afalduta lo,
nayago ditut ango bi talo
ta ez emengo milla erregalo.

N. Jauna

Biyotz nereco dama polita
asmoz muda zaite aushe tori ta,
amasei duroco urre fiña,
sendatu nai zazun nere miña.

J. Vishenta

Es jauna, ez ez;
mereci beciñ copeta beltzez,
esango diot ezetz ta ezetz.

N. Jauna

Gañera berritz, Juana Vishenta
utzico dizutet echeco errenta....
quito zor diazuten guciya,
cumplitzen banazu cuticiya.

J. Vishenta

¡Lotza gagorra!
sufritzen dago gaur nere honra.
¡penac malcuac darizquit orra!

N. Jauna

Nic ditut culpac, ez eguin negar
arlaroric ez nizun esan biar,
animan sentidutzen det miña
zuri ofensa ori eguiña;
maldiciyua,
ez daquit nun neucan juiciyua
escatzen dizut barcaciyua.

J. Vishenta

Barcaciyua du ta estizu
nere biotz onac ucatu,
eracutzi ditalaco Jauna,
gaitz eguiñaren damutazuna,
conforme nago;
ez eguiñ ta ofensa gueyago
gaurcua oso astutzat dago.

N. Jauna

¿Berriz nic eguiñ zuri ofensa?
jarren orlaroric ez bada pensa!

zauzazquit nescacha fiñ batetzat
eta gusto aundiz emaztetzat
artuco zaitut;
biyotzetican esaten disut,
zureztat ona banderizkiznt.

J. Vishenta

Ori eguiyac, baldiñ badiyo
neregana egon liteque fiyo;
bañan usatubaz cortesiya,
ama neriari licencia.
esca bezayo.

N. Jauna

Ori gustora eguingo zayo
biar goician juango naitzayo.

J. Vishenta

Banua arañ N. J. Atoz onutza
bireraco artu zazu laguntza,
adi zazu morroi José Joaquín
echera farolan arguiyaquin,
aingeru oni,
gaur zuc laguntzia da comeni,
quesquetan egon ez nayen ni.

M

Aingueru ari, lagundu eta
orra jauna eguin ostera vuelta
birian bai bildurcho zan bera,
bañan allegatu ta echera,
contentu cegon,
orañ quesquetan ez du zer egon
oyera juañ ta pasatu gabon.

Eldu zanian, errengo goiza
nagusiyac zube cumplitu itza,
juañ citzayon amari echera
andretzat alaba escatzera,
amac chit firme,
artuta guero milla informe
guelditu ciran biyac conforme.

Andic zortzibat egunera,
edo amar esin zitezquen izan,
andic zortzi eguneran elizan.
ezcondu ciran;

ezcondu ta echera seguiran,
gendia franco bazuten giran,
Bost illabete, edo sei onetan,
ez dirade beti egondu lotan;
eman duten zembait girabira
eta gozatutzen bici dira

dichac ausarqui
obeto osiñ litesque arqui,
espero dute aurcho bat aurqui.

Dama gastiac, ez egon lotan;
beguirra zaiteste spillu ontan
guztatu ta birtute eder
andretzat artu bere maisterra,
du nagusiyac,
orla irabastera graciyac,
saya saiteste beste guciyac.

Izazu nitzas cupira

1

Loriac udan intza bezela
maite dot dama gazte bat,
ari ainbezte nai diyotanic
ez da munduban beste bat,
iñoiz edo bein pazatzen badet
icusi gabe aste bat,
biyotz guztira banatutzen zait
alaco gauza triste bat.

2

Nescacha gazte paregabia
apirillico arrosa,
izarra beziñ dizdizaria
choriya bezin airosa;
orainchen baño gusto geyago
nic eziñ nezaque goza,
zori onian icusten zaitut
jnere biotzac au poza!

3

Ez aldirazu emanten
nic zaitudala nayago,
ay, mariñelac gau egunian
izarra baño geyago;
nere onduan zaucatalaco
pozez zoraturic nago
zu icustiac alegratu nau
triste neguen lenago.

4

Nic ainbat iñorc nai dizunican
arren etzatzula uste,
nere begiyac beren aurrian
beti desio zaituste;
egusquirican icusi gabe
choriya egoten da triste,
ni eznau ezec alegratutzen
zu icustiac ainbeste.

5

Arpegi fiña gorputza berriz
ez dago zer esanican,
izquetan ere grazi ederra
ezer ez dozu charrican;

mundu guztiya miratutare
zu bezelaco damican,
egiyac izan liteque baño
ez det ziñesten danican.

6

Nere betico pensamentuba
nere consolagarriya,
zu gabetanic eziñ bizi naiz
esaten dizut egiya,
zu boziñaque arbola, eta
ni baldiñ banitz choriya,
nic zu ziñaquen arbola artatzen
eguingo nuque cabiyya.

7

Amoriyuac nere biotza
zureganuntza darama
erri gucian zuc daczun
nescacha bicañaren fama;
beste fortunice mundu onetan
ez det desiatzen dana,
aur batec berac izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

8

Falta dubenac logratutzeco
itz egitea chit on du,
eta ñic ere sayatu biat
ote gindezquen conpondu;
gaur nagon beciñ atrebituba
seculan ez naiz egondu
argatic golpez galdatzen dizut
nerequin naizu escondu.

9

Escondutzian izan beardu
preciso gausa charren bat,
ala esaten arizan beti;
nere consejatzalle bat;
alasen ere aren esanac
oso utzirik aldebat,
ongi pozican artuco nuque
zu bezelaco andre bat.

10

Zedorrec ere ongi daquizu
aspaldi ontan nagola
zuregatican penac sufritzen
bañan ordia au nola;
alasen ere nigana eciñ
bigundu zaitut iñola,
ni zuretzaco argizaya naiz
zu neretzaco marmola.

11

Nere biotza urtzen dijua
eta ez da misterio,
penaren çargac ostuta eta
sumua quendutzen diyo;
begiyac dauzcat gau eta egun
eguiñican bi erriyo,
beti negarra dariyotela
zu zeradela meriyo.

12

Zu zerelaco meriyo baldiñ
juaten bañaiz lur azpira,
gero damuba eta malcubac
alperric izango dira;
bein jua ezquero oyen birtutez
berriz ez niteque jira,
ori gertatu baño lenago
¡ITZAZU NITZAZ CUPIRA!



Eperraren cantac

Eperrac cantatzen du
goizean goizetan,
ez azco fiyatzeco
mutillen izquetan;
fiyatzen bazerade
mutillen izquetan,
erorico zerade
arri labañetan.

BERSO BERRIAC

61

1

Guipuzcoac partian
cariños bici gaitian
uniyo eder batian;
milla beratzirena ta irugarrena
cumplitzen zaigun urtian
Jaincuac digun suertian
justu gabiltza portian
osasuna dan artian.

2

Bersuac jartzen naiz asi
ez derizquiot itsusi
gusto dubenac icasi;
erreinu ontan desiatzen du
estranjeruac nagusi
guciyac nai degu bici
çoyec aimbeste nobleci
guc ez aldegu mereci?

3

Eurten mudantza berriya
Donostiyan da jarriya
ordubetaco neurriya;
zortzi orduan irabazten da
jornaleruen oguiya
arguitu zaigu beguiya
au ez da charaqueriya
bazan cerbaiten premiya.

4

Oraingo reglamentubac
zucendu ditu puntubac
ez daude lengo contubac;
cembat fabore eguiñ lezaquen
guizon baten talentubac
baliyo du erresetubac
gueroco escarmentubac
oic dira pundamentubac

5

Bein acordotzen naicela
quintzena billa guacela
bost urte bada au cela;
nagusi bati aditu niyon
pioyarentzat biartzela
ordu ascoco cartzela
amenazua bestela
Chinaco beltzac becela.

6

Gure orduco jarrera
pentsuric gabe lanera
biurtuguinan larrera;
beti mendian nai guinduztenoc
lengo oitura zarrera
eman diguten carrera
orañ artian charrera
ez daquit onez aurrera.

7

Languilliaren bicitza
bastante penagarrirtza
jendiac ala derirtza;
guc dabillquigun diariyua
ez da uts eguiten gaitza
cumplitzen ez bada itza
estimaciyo murrirtza
progaturican gabiltza.

8

Necazalien itzqueta
penoso dala uste ta
estutasunez beteta;
contribuciyo aundiyarequin
eciñ burutu zuten ta
cedulac eta patentia
lenagocuac errenta
arguitutzeco copeta.

9

Cer moduz itz eguiñ zuten
egonduba naiz entzuten
bat edo batec miñ zuben:
baserritarrac aritu zaizquit
dauzcaten penac esaten
nun nai guizonac izaten
oeiñ batalla bat jo zuten
arrazoi ere bazuten.

10

Tratalariyen leguia
batzuen abillidadia
guc degun bañan obia;
aldezaquenac eche aldera
bere posibilidadia
libre balego bidia
guyenac degun iria
nic aitortzen det neria.

11

Izan da zerbait agostu
guciyac guinaden poztu
oraindic ez zoigu aztu;
jenero dana errira sartzen
begendun naico apostu
sayatzen danari juntu
irabaciric ez ostu
beretzat gueyegui eztu.

12

Batzuben atrebientziyac
maliciyeta jantziyac
elcarri eracutsiyac;
urican gabe mostillu utsez
bete citazquen ontziyac
tragatu ditu Frantziyac
gu gaude baju utziyac
oyentzat abundanziyac.

13

Gure Españiyan lan dute
cergatic dagon arrote
consideratzen aldute;
jaquiña dago gaucic onena
campora bigaltzen batute
derechua abundante
alperrac guicendu arte
oyec pegatzen digute.

14

Ortic ez dator gauz onic
bear degun ontasunic
bicitzi ezquero personic;
cereait dubenac aditu nai ez
arlotiaren esanic
culpante asco izanic
ez det esaten icenic
bagaude jende zuzeniz.

15

Zorioneco botuac
nola litezquen justuac
ortic atera contuac;
egun batian ondo itz eguiñ
andic aurrera lutuac
engañiyoco tratubac
gu gaude obligatubac
ordenac ertu artubac.

16

Aguintzalleac que jatu
eciñ dirala bajatu
aundiyenera jocatu;
languillearen icerditican
cembaiten nai du zupatu
bere leguiac ucaçu
oponiyua trucatu
çori ez alda pecatu?

17

Gauza guciya gacitzen
guri sufrituaciten
eracusteco bizitzen;
jornal chiquitic ari gueranac
seme alabac acitzen
escola eracutsitzen
mantentzen eta jantzitzen
ez degu erraz lucitcen.

18

Emen bici dan jendia
gauza onaren zalia
debalde sortzen balia;
baserritican biltzen ez bada
pobrezan dago calia
guyenac iru aldira
beti cerbaiten galdia
çoyec eguiyac aldia?

19

Gaur eche asco guenduan
juntu alcarren onduan
jabiac daqui non duan;
preciyo ona izan ezquero
obe guenducque lenguan
gareshti daude suelduan
inore ez du nai galduban
au pasatzen da munduan.

20

Languille baserritarra
ez det icusten bacarra
indartu nairic bacterra;
cembait nagusic eguiten daqui
guero gañetican farra
errenta jarri azcarra
cargatziatic bizcarra
educaciyo cascarra.

21

Danac ez dira culpante
nai dubenari bacante
graciyac eman aparte;
beste cembaiten languillientzat
carifio obia daucate
oyec diran mediante
arguitzen guera bastante
jeniyo iguala ez dute.

22

Calian dancagun mora
pobria belican gora
tellatubaren ondora;
escalleraric manchatu gabe
pasa dezala dembora
ordenantza egongo da
naiz errenditu lengora
aidian eciñ joango da.

23

Gu gaude beti nequian
sobrante guchi cofrian
gastatutzeco golpian;
endredo asco es degu jartzen
casinuan ta calian
au esan biar nequian
onena cer litequian
pobrezan eta paquian.

24

Badegu ayudantia
guciyen jabe maitia
bertute aundiz betia;
desio nuque modu obian
jenerua eramatia
nic badet barondatia
zabaldutzeco atia
aushen da erremati.

Berso berriac José-Manuel Imasec jarriac



1

Memoria da pensamentua
bialdu dit Jaungoicuac
orain berriro jartzera nua
arrasoyaquin bersuac;
motivorican asco badago
quendu dituste fueruac
euscal-errico seme leyalac
es gaudes oso astubac.

6

Jaun Serucuac bialtzen digus
mundu ontara albistac
trumonadata desgrasi asco
gañera berris chimistac;
esaten digu galduac gaude
españolaren semiac
guraso asco lutos jantziric
negarres daude erdiac.

11

Sei urte osuan guerran ibili dira
españolaren semiac
maquiñacho bacamaren semec
utzita euren bisiac;
culparic gabe padesitutzen
orain guraso tristiac
mundu onetan engañatutzen
erres da inosentiac.

2

Siero galdu badira ere
gure osaben legiac
berris ostera jiratutseco
esdira asco costiac;
sentimenturic baldin badute
orain datosen gastiac
aguro asco librauco dira
lotuta dauden catiac.

7

Guraso asco semien faltas
icusten dira negarres
tristura aundian arqitzen
biotzetican dolores;
estira gausa laneraco ta
echian berris eser es
modu orretan icusi arren
iñore amparatu nai es.

12

Viva Alava eta Naparra
Guipuzcuaquin Vizcaya
orain artian bentzitu dega
sori gaistoco etzaya;
aitona sarrac irabasiric
maquiñachobat batalla
esdaudes berris etorrirican
len ayec siran tamaña.

3

Arbola maite chóragarria
emango desu frutua
Jaungoicoaren escuetatic
Guernica bedeincatua;
igartu gabe beti ordago
adar gañeco ostrua
sañetatican fresco saudesta
etzaude oso galdua.

8

Españiaco pasadisuac
gusiaco esin contatu
sori gaistoco guerra isanda
fameli asco ondatu;
guraso asco semian faltas
amparu gabe guelditu
asquenerako culpa gabeco
iñusentiac pagatu.

13

Cantabrico descalbroac
dirade lastimosuac
acordatuas etortzen dira
begietara malcuac;
erremediau albanesaques
pecatarien pausuac
Jaun onari escatzen diet
sabaldurican besuac.

4

Arbola sarra chutic daguala
gastia dator losano
satorrac fuerte ibilli arren
beti icustenda sano;
orain besela enemiguac
ibilli siran lenago
ori galtzeco boticarican
mundu onetan estago.

9

Jaungoico onac icusitzendu
ser pasatzendan cortian
cerucc argi ederrac danac
itzaldu dira colpian;
esaten digu bisi gaitezen
mundu onetan baquian
erreñu danac gorroto gabe
bacoitza bere lurrian,

14

Lan ontaraco esta geyegui
guison baten talentua
sentimentuac igestu gabe
errematatzer a nua;
guraso ascoi etortzen saco
begietara malcuac
negar egiñas despeditzen det
amabost garren bersua.

5

Alde gustiac icusten dira
jarri esquero beguira
nic esin eser alcansatudet
eguingo det alegiña;
lenago ere lau probensiabec
libre isanac badira
beste gausaric ez degu escatzen.....
lengo fueruac nun dira.

10

Orañ artian vitorioso
españolaren semiac
nasio danac erresetuan
bildur aundian lagiac;
urte guchian icusten dira
abec bai diferensiac
orain nun ete dirade jaunac
lengo abildidadiac.

Ondárroa y Septiembre de 1901.



BERSO BERRIAK

1

Berso Berriak ateratzeko
emen badago premiya
tristurac utzita alaiturik
orainche jarri naiz iya
cenbait personak agundu
arren eguiten daki tranpiya
alabatutzen azi biardet
Altza-ko nere noviya

2

Azko bezela ezkontutzeko
aziya nitzan gaztetan
emakume au orain nerekin
jarriya dago kazketan
guesurra eta saltsa badauka
orrek seitatic boztetan
arruagoric egongo danic
ezderizkiyot beztetan.

3

Tratamentua oraiñ bi urte
beragandic zan aziya
deabru zarra bezela dago
ori malisis joziya
baña damuric ezdaducat nic
nezkacha orrec utziya
berriz agur ezdiyot eguingo
egon liteke etziya.

4

José Agustín daukar izena
apellidua Uri
ezan biardet aldan lenena
zerdan asunto guria
nezkacha orri cantac jartzeco
oraiñ artudet idia
guchigo merezi duenentzat
iñois atera oidia.

5

Vitorian neguan soldadu
serviciyora juanda
cartac eguiten azi zitzaidan
orretarako zeon da
zori gaiztuan zinistu niskan
orrec guesurrac ezanda
gure okerra zortua dago
ori faltzua izanda.

6

Neskacha orren izenic jartzen
ezdit utzi justiziyac
nayago nuen logratu banu
jakin zezaten guciyac
ni soldaduscatic etorrira
eskondutzeko aziyac
jendiac ondo ikazibitza
oraiñ gure notiziyac

7

Enbuzteriya ugari cartan
bialtzen ziran emendic
nic orrelako mingain luzeric
ezdet ikuzi oraindic
mutil gastiac engañatutzen
dabil nondic edo andic
berri onikan esdu ekartzen
orrelakuac inondic

8

Donostiyako calian dago
neskacha ori servitzen
ezan ziraden eskondutzeko
berac ziradela aguintzen
arreskerotic fintazunian
beti niyoen seguitzen
nere calian egondu nitzan
zure baimena aditzen.

9

Egun batian fiyatu nitzan
nezkacha orren ezanian
ta esposatzeko jarri guera
prestatutzen gueranian
pensatu nuen egongo sala
nic ori fintazunian
amac nai estuen aitzekeya
ipiñidict askenian.

10

Ni Donostiyan jayotakua
ori Altzako erriyan
nereganako egondu zera
beti naitazun urriyan
baña alare eznaiz arkitzen
ozo estadu larrayan
beñ azikota ibilli guera
leku estimagarriyan.

11

Mingaiñarekin leunkerian
dauka abillidadia
errespetuan ibillitza
azkozaz luke obia
baña mundura etziñan jayo
orgullorican gabia
zuzeran bezin izar ederrac
gueyago ere badia.

12

Emakumeric esdet ikuzi
orren naitazun otzian
esker gaistua besteric neri
beñere eman etzian
mingaiñez leun itzezin baña
maleciya biyotzian
orlakuakin gusto aundiric
ezta izango echian.

13

Nere noviya letuitzazu
jarrita dauden loriac
ezdira mudatuko alare
azko zure coloriac
bezte polipat billatutzeko
orain daduzkat idiac
nunai aukeran badaduzkat
nic zu zeran baño obiac.

14

Amaika bider jarduna izan
biardu orrec kontari
orrentzako moduko mutillic
emen ezdala agui
naitazuna nork artuko diyo
orrela dabillenari
egun batian ay zer maleta
oneran etorrizan ori.

15

Juandan illaren ogueitabiya
degu señaladamente
aitzeki edo atzerapena
orduan jarri dirate
zer pasatzentzan ama alabai
ezaniyen derrepente
ortic eguiya ezta aditzen
guezurra berris zobrante.

16

Ezta aundiya nic neonekin
daucadan interesa
baña atzuac eta alabac
chit orgullo alrebeza
oyec naidute diru azkoko
Dukia edo Markesa
baña pobria ezagutuzen
leku guziyan erraza.

17

Bete ibilli izandu naiz ni
orren leyaltazunian
leku onian fiyatu nitzan
ni oriyen ezanian
acordatu nais esdabiltzala
oraiñ bide zuzenian
contentu nago orrenbestian
apartatu naizenian.

18

Adios nere noviya izana
Altzako aingueruchua
berso berriyak suri jartzeko
segon nere caprichua
es senbait besela isan basiñan
leyala eta chinchua
nic onen beztez bucatzen ditut
alaba eta achua.

BERTZO BERRIAK

LUMOCO NESCATILLA BATI JARRIAK

1

Eulali zertan zabiltz
Iñor engañetan
Eztiranak kontatzen
Baster gustiyetan,
Zeuk erruba euquta
Zeu sabiltz berbétan
¡Zerdan neuk ezango det
Berzo berriyetan!

5

Bilbon krijada onda
Etorri lumora
Puskabat descantzatzen
Osaban ondora,
Or sabiltz Erreguiña
Basiñan modura,
Zure bestekobat barris
Topau ley nungura.

9

Uste dezu zerala
Iya erreguiña
Ta bay zerala markes
Gaste baten duña,
Gorputzez chit ederra
Azal ez urdiña
Udabarriko lora
Edo kabeliña.

2

Zeuk biraldu senduban
Errekaduakin
Esaten nai sendula
Ezkondu nerekin,
Bayetz eraso arte
Ekin eta ekin
¡Ay, nik baneu orduan
Zu nor zeran jakin!

6

Lumoko erriyan dausan
Mutil aberatzak
Nai basendu lobrauko
Zendukez zeuretzat,
Alan kontutzen dezu
Egaletan beintzat
Kontuz... artu etzaizan
Eorbait zorotzat.

10

Diputadu gaste bat
Lobratu artian
Zugaz eztau gausonik
Biyen bitartean,
Senarra deusunian
Madrilgo kortian
Zeuk... ara urtetako
Automobillian.

3

Zeuk errekadu einda
Ni zugaz batzeko
Biyok bisimoduan
Alkarraz jartzeko,
Ta oin modu orretan
Atzeratutzeko
¿Zer motivo isanda
Eskon tzagaltzeko?

7

Pañelo gorri eta
Erropia beltza
Moda ekarridezu
Bilbotik onantza.
Arro pasatzen dezu
Lumoko aldatza
Baña beste batentzat
Mutil aberatza.

11

Marquesen batec
Laiter eskontzen b asera
Ta pasiatzen juan
Beras Paris-era,
Gueube despeditzeco
Prest egon guera
Emonik biderako
Eunbat bolandera.

4

Norbera ibilli barik
Burua jazoten
Ausuetan dakite
Poliki esaten,
Ondodakigu zuri
Zer yatzun gustatzen
Iñori lanak oraiñ
Zeu on deskantzatzen.

8

Eztago zulangorik
Lumoko partian
Zeu zera ederrena
Guztien artian,
Zuretzat senar gueirik
Emen parajian
Ezdago Madrillera
Mobidu ezian.

12

Amabi bertzorekin
Orra despedida
Eulalicho zurekin
Komediak dira,
Juaten zermanian
Lumotik Madrillera
Enamorauko yutzuz
Pañelo gorrira.

Santa Aguedaren Bersoac

1 Bedeincatua izan dedilla
Eche onetaco gendea
Pobre ta humill dabilzanentzat
Badute borondatea;
Santa martiri maitea
Dago erruquis betea
Berac alcanzatu dadiela
Osasuna ta paquea

2 Libertadea escantzen diet
Echeco principalari
Santa Aguedaren alabanzac
Cantatutera nua ni,
Graciac dioscat ipifii
Santa Bedeincatu oni
Onen fedean bici gaitecen
Osasunas eta ongui.

3 Nor esangodu cer pasaseban
Mundua Santa Aguedac
Lendabizico azotatuta
Quendu ziozcaten bularrac;
Gorrotuaren indarra
Gentillen biotz gogorra,
Instan batian estalicion
Gorpuz gustia odolac.

4 Santa au preso sartu sanian
San milagro bat aundia
Ceruetatic jachi sitzayon
Jaungoicoaren arguia;
Milagro icaragarri
Santa onen alegria
San Pedro berac curatucion
Santari gorpuz guztia.

5 Borrero gogor oyec diote
Ilco da gaurco gabian,
Len becin firme billatu zuten

Santa aun bidamunian
Esancioten onian
Nai dezu gure leguian,
Bestela presentatuco cera
Quincianoren aurrean.

6 Berris Emperadoriac dio
Eramateco argana
Doncella gastieren biotza
Len bicin firme darاما;
Jaun Cerucuac emana
Orain beraquin duana
Cer amorio aundia zuen,
Gure Jaungoicuagana.

7 Martiri oni galdetzendio
Seña segoan isillic
Adoraitzatu gure Jaungoicuac
Baldin nai badezu biciric,
Itz oriec adituric,
Santac dio bat bacarric,
Nic adoraturzen detena baño
Ez dago gizon besteric.

8 Cer baloria eraman zuan
Etzay gaistoen aurrera;
Humildadesco bere beguiac
Itzulirican lurrera;
¡Emperadore cruela
Au beti bere legueral
Arrastaca ta deshonoratuas
Atera bedi calera.

9 Orduan eranzu cien
Jaungoicuari graciac,
Baña Borrero gentil gogorrac
Ceuden gorrotos josiac,
Santaren fede bicia

Jaunaren proviencia,
Lurrac icarra eguin zuen ta
Arritu ziran guciac.

10 Parete aundi bat erorizan
Icara aren puntuan,
Emperadore aren lagun bi
Aspian artu cituan,
Icusirican orduan
Ayec alaco moduan,
Cer milagroac guertatu ciran
Santa onequin munduan.

11 Gentil gogorren escuetatic
Sartu zuan calabozuan,
Agoniaco ordu santuan
Ondo esagutu zuan;
Iltzen ceguan orduan
Jesusi osca ceguan,
Orain gloria gozaizen dago
Aingueruquin ceruan.

12 Cristau deboto batzuec zuten
Gorputz Santu au artu
Cataniaco Ciudadean
Baita ere enterratu;
Cristauac consideratu
Au onela zan guertatu,
Caridadean ematendana
Berac oidie pagatu.

13 Adios orain esaten diet
Santa onequin batian,
Urte oncho bat pasadesaten
Osasunas ta paquean;
Pobre humillen artean
Beti erruqui gaitean,
Caridadeac lagunducodu
Ceruetaco atian.

COPLAC

1 Nagusi jauna aurrera
Erreberencia lurrera,
Lotza guerala etorriguera
Jauna beren aurrera.

2 Alcate jaunac egonduguera
Atzoco arratzaldean,
Libertadea guerequin degu
Ibilzeco paquean.

3 Eche onetaco chiqui aundiac
Eder elizan liburu
Usuac aren inguru
Paradisuan aingueru.

4 Eder eleizan altare
Arri labratu pillare
Birgüña Amaren escogituac
Eche onetan dirade.

5 Usua dua otara
Nere beguiac lotara
Oranche nua nagusi jauna
Beorren copla etara.

6 Eder sornan goldia
Soñian capa morra
Eche onetaco nagusi jauna
Ondo guisoncho noblia.

7 Eder zeruban izarra
Erreca aldian lizarra,

Eche onetaco nagusi jauna
Urre gorritz du bizarra.

8 Urre gorritz du bizarra eta
Diamantesco espalda,
Beorri becin guizon presturic
Erri onetan es alda.

9 Eder inchoren cordena
Alassen degu ordena
Echeco andria coplatutzeco
Nagusiaren urrena.

10 Echeco andria orra ona
Cere gauzaren doy ona
Pascua goician jancico dituzu
Cere soñeac amar gona.

11 Chur nabarra azpico
Gorri ederra gañeco,
Andria zure pareriz esta
Plaza bat onratutzeco.

12 Eder baruan espala
Nic ecin esan bestela
Zure besuan lo eguin lezaque
Paradisuan bezela.

13 Arantzat beltza ostra chiqui
Puntara sacu loratzu
Orain emendic biarguenduque
Saldun gaste bat complatu.

14 Orra or goian iturri

Uda chorrotic erori,
Eche onetaco saldun gastiaco,
Amalau urre chincharri.

15 Amalau urre chincharrirequin
Zaspi damaren egusqui,
Ayec guciac ala iceniz
Gueyago ditu mereci.

16 Arantzabeltza ostrua chiqui
Puntara sacu loratzu,
Orain emen biar guenduque
Dama gaste bat coplatu.

17 Damuchu gaste componduba
Ori color gorria
Zuri matralla irurirentzat
Crabelinaren orria.

18 Crabelinaren orriarequin
Larrosa mayatzecoa,
Ceuri beguira emenche nago
Damacho biotzecoa.

19 Eder espata maguiarequin
Maguia paontalarequin
Echeco andria etorri saigu
Escuan limonarequin

20 Limosna ere artu degu ta
Orain abiagaitian,
Andiosican ez degu eta
Agur icusi artian.

Berso berriac Jesu-Cristoren pasiuari jarriac

66

1 Fedeco eguia bat
Cantuco moduan
Cer pena pasa zuan
Jesus-ec munduan;
Ya nere cristaubac
Aditu contuan
Izan bearco guenduan
Cerutic campuan,
Jesu-Cristo ill ezbalitz
Gurutze Santuan.

2 Pazcuaren aurreco
Ostegun gaba zan,
Jesus odol izurtzen
Egona Baratzan;
Baldin bere Aitaren
Borondatia bazan
Eriotzatic libratzia
Posible ote zan,
Ezetz esan cion da
Oso bildurtu zan.

3 Jesus orduraco zan
Judasec salduri,
Baita bere anima
Betico galduri;
Judu odol zaliac
Gaizqui informaturi
Etzioten arquite
Inun pecaturic,
Preso eraman zuten
Socaquin loturi.

4 Ogueita amar dirutan
Eguñic tratua,
Judasec saldu zuan
Jaungoico justua;
Bere gaizqui eguiñaz
Chit ernegatua
Pico batetic soca
Lepotic lotua,
Ostiral goizian zan
Judas urcatua.

5 Aimbeste soldadu tzar
Jesus lotutzer,
Andic eraman zuten
Anas en echera;
Guero berriz Caifasi
Presentatutzer
Cer dotriña zeducan
Cargu artutzer,
Cerutic jachi zala
Gu salbatutzer.

6 Pensatu zuten Jesus
Zalaco erua,
Buruan sartutzia
Arantzaz corua;
Aimbeste etzan ase
Caifasen gogua
Pilatosi biraldu

Jaun Soberanua,
Onec eguin cezala
Iltzeco modua.

7 Pilatos jarrirican
Jesus juzgatzeco,
Bañan ezin billatu
Culparic iltzeco;
Guero agundu zuan
Azotatzeco
Eriotzaric gabe
Ala libratzeco,
Bañan agundu zuten
Gurutz iltzatzeco.

8 Bost milla ta gueyago
Azote lembizi,
Alaco martirioric
Ez du ñore icusi;
Tormentu oyec danac
Emanic Jesusi
Gero eraso cioten
Berriz Pilatosi,
Gurutze baten puntan
Bear zala josi.

9 Aimbeste desafio
Aditu onduan,
Pilatos bildurtu zan
Alaco moduan;
Jartzeco gurutze bat
Berari lepuan
Calbarioco mendira
Arequin dijuan,
Pilatosen sententia
Ala eman zuan.

10 Gurutze bat emanic
Bera jositzeco
Calbarioco puntan
An icusitzeco;
Jesus conformatu zan
Danac sufritzeco,
Borondatez biciya
Emen utzitzeco,
Munduco pecatuac
Erremeditzeco.

11 Jerusalengo cale
Orietatican,
Mendira artu zuten
Socaz loturican;
Pauso bat ezin eman
Gurutze petican
Jesus-en empeñuac
Ciran gugatican
Libratziagatican
Gu pecatutican.

12 Calbarioco mendi
Bide gogorrian,
Iru bider erori zan

Jesu-Cristo lurrian:
Bere Ama Santisima
Cijuan aurrian
Icusiric semia
Ezin eguiñian,
Cer pena egongo zan
Aren barrenian.

13 Laguntzeco artu zuan
Simón Sirineo
Ojala pensatuco
Balitz egunero;
Ibilli ez gaitecen
Damututa guero
Simonen pausuetan
Jarraitzia dago,
Bost aldiz aditzenda
Culpitotic claro

14 Allegatu ciranian
Mendi santu artan,
Iltziaqui josi zuten
Escu ta oñetan;
Ceru lurren jabea
Gurutze orretan
Gure salbacio esque
Aitari benetan,
Zefi etzayo jartzen
Biotza penetan

15 Amabietan zuten
Curutzian jarri,
Zorrac pagatutzeco
Pecatariari;
Eregu eguin cion
Aita eternuari
Arren barcatutzeco
Aren etsaiyari
Orra combat nai cigun
Jesu-Cristoc guri.

16 Cer pena pasa zuan
Jesus-ec gugatic
Cincilica iru ordu
Gurutze batetic;
Lantza sartu zioten
Bular sagradutic
Ala ere bicico zan
Oyec danac gatic
Borondatez iltzan
Gu salbatziagatic.

17 Cumplimetu emanic
Jesus-ec lanari,
Pecatariac gatic
Artu zuanari;
San Juan utzi cion
Bere ordez Amari
Espiritua berriz
Aita eternuari,
Despeira eguin cion
Mundu gusiari.

Berso Berriyak



1

Gaur zembaitekin estago errez
paciencirikan artzen
crístau gaiztuak beñere estu
gausa onikan ekartzen
atzo sorguinbat dala meriyo
asi naiz bersuak jartzen
koncienciya kargatutzen det
zein dan espadek aitortzen.

2

Lotza garrizko gaus bat pasada
ernaniyako partian
orra añua deizen zayon
basarri eder batian
len esan deran atso gaiztuau
sartu dalako tartian
guerore ori alaizango da
eskarmentatu artian.

3

Dama gaste bat aurra eguiña
bada oyen inguruban
gueyago ere guertaizen dira
esta bakarrik munduban
iñude batek acitzen zeukan
ustez biarzan moduban
gaizua penaz illa omenda
orra zer planta joduban.

4

Beria zuen bezela zeukan
iñude orrek aur ori
añuan dagon atso zikiñiak
orr kendu diyo berari
jakiña dago pena emango
ziyola bere amari
azkenerako gaizua etzan
esku charretan erori.

5

Pensa lesake aurra kensia
dagola gaizki eguiña
ta motibuak bada dukazki
kastigatutzek odiña
orla dabillen emakumiak
okaciyuak jakiña
besten echia gobernatzan da
nor beria igual zikiña.

6

Aurrarenzako erruki gueyo
biar luke gurasuak
orra zer lanak ekartzen ditun
oker eindako pausuak
jainkuak daki zenbat sufritu
duban angueru gaiztuak
kastigazia mereci luke
añuan dagon asuak.

7

Zer burus bide artu zun orrek
saltsa oyetan sartzeko
nunbait gogua edukiko zun
okaciyuak jartzeko
esan oidegu gaiztua danai
pronto daudela elzeko
iñon esalda justicirikan
orri kargurik artzeko.

8

Bere asuan apenaz daukan
atzo onaren famikan
neronek ere ested siñisten
gaiztua gorik danikan
bere echia gobernatzuten
estu izango lanikan
koncienciya sikin naidu nak
estu artutzen penikan.

9

Aurra kensia pena aundiya
suen iñude gajuak
gogoz amaika illa betian
bularra eman dakuak
trishtiak ziran aren ondoren
bota zituan malkuak
orra zerlanak eragin ditun
atzo ajol gabekuak.

10

Basarritar bat estu ikusi nai
orren ernegaciyua
kale tarrarenzat obiagu
dauka estimaciyua
bere auzoko gueyenentzako
badu murmuraciyua
famiyako andre batentzat
ai zer edukaciyua.

11

Askok ibilli nayagoluke
guerran da gaizta keriyen
batzuk bagaude mundu onetan
eskarmentuban premiyan
orla sartutzen ibilli gabe
beste iñoren fameliyan
érrespetua edukizagun
bak oitzak bere tokiyan.

12

Naitare ishilik orri uztia
etzun aguinzen leguiak
orra amabi berso nun dauden
aldan bezela pariak
guchi yagorik estu mereci
crístau senzurik gabiak
bueltarik zortzen baldin badute
jarriko zaizka obiak.

AMA ANTIGUACUARI

I

Milla berachidegun
Gañera lau urte
Pelegrinacio bat
Disponitu dute
Agostuan ogueita
Bat señalamente
Ondarruara etorrída
Maquiñabat gente
Ama Antiguacua
Bisitatu dute.

II

Antiguaco eleisatic
Plasara ecarri
Bere guardian basan
Gendia ugari
Musica ta aingueru
Bandera ta gusi
Aurretican apaisac
Gustien nagusi
Alabansac ematen
Birgiña amari.

III

Plasa paratusuten
Berechat lecuá
Loras Apaindurican
Altara santua
Fray Bartel jaunarentzat
Berris curpitua
Errico principalec
San disponitua
Viva Ondarruaco
Aguintamentua.

IV

Bandera ta lujua
Balcoy ventanetan
Arcu ederrac berris
Cale cantoyetan
Arbola ostruaquiñ
Arraunac é bertan
Lora churi churia
Ya tapaurican
Semat cristau pasada
Oyen aspitan.

V

Fray Bartel jaunarequiñ
Gaudes aurrituac
Negar eraguin digu
Orren predicuac
Amari erreguca
Alchauric escuac
Claro esplicauditu
Fedeco contuac
Señi esdio erren
Beguitic malcuac.

VI

Sermoy au eguin suan
Ondarruaco plasan
Sorchi milla arima
Guchines basan
Fray Bartel jaun orrechec
Contu asco esan
Jesucriston dotrina
Iracurriosan
Canta desagun oraiñ
Bere alabansan.

VII

Provinciatic jente
Asco etorríta
Bizcayatic geyago
Ala comenita
Birgiña amaregana
Biotzac postua
Aimbeste milla cristau
Danac auspestuta
Imagiña adoratzen
Belaunicatuta.

VIII

Bizcaya baseguan
Jaun oyen bearra
Jesusen dotraniri
Emateco indarra
Vicario jauna ere
Esdegu aiñ charra
Erarian aurrera
Bastante da sarra
Sermoya predicatzen
Chit guison ascarra.

IX

Engañaturic gabils
Munduco gustuac
Elejiua galtzen
Persona gaistuac
Jesusen gugatican
Emandaco pausuac
Manifestuan orra
Eleisa santuac
Bisi gueren artean
Atera contuac.

X

Jesusen pausuetan
Acordatzen guerra
Guregatic ser modus
Ibili san bera
Icusi nai badegu
Begira curutzerá
Iltziaquin josiric
Escu oñetarra
Etzayac jarri suten
Modu orretara.

XI

Aransasco coroya
Etzayac sartua
Buru gusia dauca
Dena sulatua
Lepotic dario la
Odolen tantua
Aiñ sitala isanic
Gure pecatua
Guratzan ordago
Jesus penatua.

XII

Nai badegus arimac
Serurano jaso
Seculaco desteran
Pecatuac preso
Lusiferren galdara
Berua da oso
Fernuco eztayari
Sertan eguin caso
Jesucriston banderan
Egon alimoso.

XIII

Ama Antiguacua
Biotses grasiac
Arrigarriac dira
Orren mirariac
Susendu biar gaitu
Sure mesediac
Aita San Pedro Irequi
Seruco atiac
Loria gosatzeco
Arima tristiciac.

XIV

Agoniaco transa
etorri esquero
Lusaro bisitzeric
Esdegu espero
Iserdi tantuaquin
Gorputzetic bero
Asquenengo arnasac
Iges eguin gero
Jesusen sentencia
Etorrico sayo.

XV

Ama Antiguacua
Oraiñ erremata
Agonian urrena
Eriotzo data
Gure defensoria
Imagiñadata
Laguntzalliac ere
Maquiñabat santa
Seruan sartutzeco
Alabansac emanta.

BERSO BERRIAC

FRANCISCO ARANBURUC BEASAÑEN JARRIAC

1

Berso berriac ipiñitzeco
artu det pensamentua,
bai eta era berean
asmo bat guztiz sendua:
Ceruco Aita, argui zadazu
nere entendimentua,
bear becela alabatzeco
nere errico Santua.

2

Milla bosteun iruroguei ta
seigarrengo urtea zan,
Uztaillaren amaseyeen
aita san Martin jayo zan:
Juan Garcia Loinaz eta Martina
gurasoen icena zan,
ta Beasaingo Pontean berriz
san Martin batayatu zan.

3

Onen bicitza nai nuque cerbait
zueidi cantatutzia,
guci-guciya ezpada ere,
aldana esplicatzia:
aitac eta amac naizuten Martin
escolan arguitutzia
pensaturican Beasaindican
Alcalara bialtzia.

4

Asi zaneco, jaquinduriyan
zan guztiz talentusua;
parecorican etzeducala
zalaco birtuosua;
religioso sartzeco nunbait
baceucan pensamentua,
Alcalatican juan da sartu zan
Añoño Conbertura.

5

Aita Francisco Asiscoaren
Ordenapean sartuta,
Abitu on au jantzita joan zan
guerriya socaz lotuta;
nobiciyoco urte guciyac
cintzo aprobechatuta,
religioso balientia
laister zan profesatuta.

6

Garbitasuna, umildadea
eta gañera pobreza,
birtute oyec goyendatzeco
eguiña ceucan promesa,
Jaun Cerucoac emanic beti
escatzen ciyon laguntza,
oguei eta sei urte baño len
celabratu zuben meza.

7

Meza eman ta aita san Martin
cegon conbentu onetan
necatutzeco gogoarequin
religioco lanetan;
aditzen zuben cenbait ezjaquin
ceudela urrutiyetan,
ta irichi zan predicatutzen
lenbici Filipiñetan.

8

Aitan san Martin predicatutzen
zuteneraco cusi
Idolo edo Jainco paltsuac
joan ciraden iguesi;
infernuraco ceuden animac
Ceruraco irabaci,
era onetan beti jarraitzen
ciyon eintzoro Jesusi.

9

Eguin bearra izandu zuben
Manilara birajea,
predicatzeco baceucalaco
cerutarraren fedea;
ondorenean topatu zuban
Japontarren parajea,
guciro azcar icasirican
angoen languajea.

10

Ango izcuntza icasi eta
asi zan predicatutzen,
bañan etsayac asi ciraden
san Martin desonratutzen;
esanaz guizon gaizto bat nola
zebillen engañatutzen;
laister galduco zutela bada
ez bazan erretiraten.

11

Taicosama zan gobernadore
japontarren nagusiya,
Jaungoicoaren bildurric gabe
picardiyetan aciya;
mundo onetan gaiztoac beti
ona ecin icusiya,
ala aguindu zuben lotzeco
Martiniñen jende guciya.

12

Osacan preso sartu cituzten
Abenduaren sortziyan,
lendabicico azotatuta
sartu cituzten ichiyan;
desafiyuac eguiñagatic
Martin chit fede biciyan,
lagun guciyac consolatutzen
beti Jaunaren gracyan.

13

Andic Meacora eramanean
Il beltzaren iruaquin,
belarri bana quendu naye
guciyai cuchilluaquin;
Taicosama au etzan contentu
au ere eguiñarequin,
eta aguindu zuan iltzeco
gurutzean Nangasaquin.

14

Zaldietan da gurdiz batzuec
besteac altzan becela,
ostatuaren orde z gabean
guciyentzat zan carcela;
ecin zuana maquillaz joaz
agudo cijoacela,
mataderira baciyoacen
checor umillac becela.

15

Sanonqui deitzan erri batean
Otsaillaren laubean,
allegaturic calabozora
sartu cituzten gaubean
Nagonsaraño eramateco
iltzera biramonean,
martiriyuau izandu zan bai
santa Agueda egunean

16

Andic artuta Nanguisaquira
guciyac allegatuta,
Jesusen alde iltzeco etzeuden
batere icaratuta;
gurutze denac nola an ceuden
osotoro prestatuta,
adoratubaz an iltuzten
guciyac gurutzetuta.

17

Boriero ayec iduquirican
santu talde au penatzen,
aita san Martin abiatu zan
bere lagunac poztutzen;
esanaz: laster Ceruban guera
beti betico gozatzen;
Jaungoicoari asi citzayon
bere gloriyac cantatzen.

18

Gurutzetican asi zanean
Laudate Dóminum cantua,
presto cegoan entregatzeco
bici gucico contua;
Jaungoicoaren amoriyuau
biyotza ceucan sutua,
ta beriala cerura joan zan
Martiniñen espiritua.

19

Japongo guizon dollor gaiztoac,
eguin dezute naicua
ofenditzeco cupira gabe
gure Jaungoico santua,
Taicosamare infenuaren
barrenen ibillicoda,
justici ori nola eguin zuan
anche bai aguertucoda.

20

Fraileac eta cristabac ciran
oguei ta bat alcarrequin,
ta beste iru Jesuitac ciran
Pedro, Fraudo eta Miquin;
eta beste bi guizon languille
cebiltzanac Martiñequin,
ogueita seyac egun batean
il cituzten Nangasaquin.

21

Mundo onetan gauza onarentzat
beti persecuciya,
ta erri bati eguin citzayon
Santu onen desiua:
Aita Santubac erabaquiric
tema eta sesiyua
nic onenbestez acabatzen det
onen esplicaciya.

Gure santuben milagro denai
 utzitzen diet paquean,
 ezta posible esplicatzia
 danac asaldi batean;
 Jaun cerucuac baldin nai badu,
 oyec datorren urtean
 diran becela jarrico ditut
 beste papercho batean.

Nere errico jende maiteac
 aditu biar danean,
 bicitza charra seguro dago
 gure animen caltean;
 Martin becela garbiac eta
 umillac izan gaitean,
 pecatuaquin ezta sartuco
 iñor ceruco atean.

Aita san Martin, barcaciyua
 escatzen dizut cerorri
 conbeni ez diran itzenbatzuec
 baldin bazaizquit erori;
 zuc erregutu guregatican
 gure Jaungoico Jaunari,
 zure bitartez betico dichac
 gaitzan guciyoc estali.

Adi zazute, jende nobleac,
 eta iduqui gogoan,
 anparatzalle Aita san Martin
 nola daucagun ceruan;
 orra ogueita bos, berso berri
 jaquin dezaten munduan:
 escola gabe jarriac dira
 entenditzeco moduan.

asunto baten gañian atariak

1

Bertzoz barri batzuek
eguiteko jarri
motibo eder asko
eguin dira etorri,
urte bisan badabill
emen gauza ori
iñondik eta iñora
ezin erabagui.

2

Oguei ta bat urtegaz
gañera oguei eta bi
mutill listo bat emen
dabill barragarri,
tripak euki ezin da
bada guztiz larri
laster osatuko da
prenda garbi ori.

3

Ze gaiso daben orrek
nagui bada jakin
emen iminitenda
lau bost bertsorekin,
amar eginak eta
kobrau ogeirekin
susen agertuak dira
languille orrekin.

4

Munte diruak gaitik
zerbait biar da ezan
geiyenak eisengozan
onan edo alan
iñork ezin zinistu
orrelakorikan
orren prueba ona
bada dago geugan.

5

Persona orregaiti
zer biarda ezan
libertade osuagaz
dabilela olan
akordatuko aldie
gizonak benetan
ejemplu bat emoteko
paraje aonetan.

6

Zekretu ori nairik
onelan azaldu

orretarako gizon bat
egiañ zan artu
beste jaun bategaz
konsultia artu
seguridade guztia
egin zan agertu.

7

Mezede bat eskatu
bai justiciari
erabagi izan zedin
eskabide ori,
milla buelta egin
eta erabilli
gauza zikiña nekez
imintenda garbi.

8

Mingañian ona da
konsientsi ona
erraz engañetanda
onelan gizona,
askosaz obieda
bada obra ona
onelan igoteko
gora eta gora.

9

Denpora pasaueta
benetan agertu
merezidaben penia
egiañik eskatu.
Zintzo dabillenenzat
bada nork lagundu
Alzaga lako jaun batek,
asko baliyo du.

10

Askok nai leuk jakin
bai or eta emen
bertso berri onexek
norentzat dirien
jakin biar senduen
ori gaur baño len
jakitun andi ori
nor izan dan emen.

11

Aiñ abilla izanik
zaldun gazte ori
askok gura zana
lenago zan ori,
berbetan asi arren
ezin leyo igarri

bada begiratu ondo
bere bizitzari.

12

Urrutxuan asi eta
Lekeitio'raño
bardin Lekeitio'tik
Ereño,ra guiño
gozatu nai isandeu
orrek orain diño
bedorren izena da
JOSÉ ANTONIO

13

Jaun orrek egiña da
bedorrek eskatu
jubilaziño on bat
nai leukela artu
kasuori egiñ nairik
bertan-bera gelditu
zelan-bait gura leuke
orrek eskapatu.

14

Konbenida ezatia
nai bada ziñestu
egitada onak, orrek
euki biar ditu
zintzo dabillena
biarda goratu
gizon on eta noblia
nunbait baditugu.

15

Bada onen bestegaz
laster da amaye
ezta emen imiñi
izandan guztiye
bakotxak libre dauko
bere eretxie
oneri emoteko
susen erabagiye.

16

Gizona egiteko
ondo ezagutu
bere egitadieri
susen begiratu
onela egin eta
zara zu aitortu
bizi-modu barri bat
askoz oba dozu.